

# Goienkaria

2009ko irailaren 18a > Egubakoitza > IX. urtea > 389. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Eredu berriak  
berrasmatu  
behar dira  
politika  
egiteko"

**Iñaki Galdos**  
Hamaikabat  
alderdiko burua  
> 08-09



**G2a**

Berri Txarrak  
taldea bihar,  
Eskoriatzan > 37

**ANTZUOLA**  
AHTri buruzko batzar informatiboa  
deitu dute astelehenerako > 27

**ELGETA**  
Hamar kamioikada zikin atera dute  
Asezioko putzutik > 30

**ARAMAIO**  
Hasi dituzte parkeko lanak eta  
urrian jarriko dituzte ziburuak > 31

**MEMORIA HISTORIKOA** > GERRA FRANKISTA

## Bailarako bi gizon hil zituzten kontzentrazio-esparrutan

**MAUTHAUSEN ETA DACHAU**  
Tomas Rebollo elgetarra eta Pedro Jose Axpe bergararra hil zituzten esparru horietan naziek

**ARETXABALETA** Intxorta 1937 elkartek liburua aterako du eta jasoko ditu gerraren eragina herrian eta Axperen historia

**ELGETA** Jaurlaritzak 120.000 euro eta Aldundiak 39.000 eman dizkiote asteen udalari, Intxortako ibilbiderako > 02-03

**JENDARTEA** > LEHIAKETA

## Gisatu lehiaketa deitu dute

Bailarako harakinek antolatu dute eta herrika egingo dira kanporaketak; lehena bihar, Arrasaten > 04


### Autoz beharrean, umeak eskolara oinez eroateko eskatu diete eskoriatzarrei

Mugikortasun iraunkorren aldeko astearren harira, martitzenean *Goazen oinez ikastetxera!* ekimena egingo dute Eskoriatzan. Eskolako orduan haurrak herriko zenbait gunetan batu eta ikastetxerainoko bidea oinez elkarrekin egitean datza.

Udalak esperientzia hori ikasturte osora zabaldu gura du, eta, hori horrela izan dadin, dagoeneko harremanetan jarri da ikastetxeekin eta guraso elkarrekin. Aurrera zelan eraman aztertzen ari dira orain guztien artean. > 29



AUTO ILARAK Egunero auto ilarak sortzen dira ikastetxeen aurrean, umeak uzteko orduan.



MIRIAN BITERI

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05  
Iritzia > 06  
Elkarrizketa > 08-09  
Gutunak > 10  
Herriak > 12-32  
Kirola > 34-36  
Kultura > 38-39  
Saillkatuak > 40  
Gazteak > 42  
Telebista-Irratia > 43  
Zerbitzuak > 44  
Berri-zakua > 45  
Eskelak > 45  
Non-zer > 46-47

**KIROLA** > MOTO-KROSA

## Aramaioko rallysprinta bihar

Hirurogei pilotutik gora arituko dira; besteak beste, Vilariño anai-arrebak > 34

**JENDARTEA** > EHIZA

## Ohi baino beranduago hasiko da ehiza denboraldia Gatzagan

Leintza Gatzagatik kanpoko ehiztariendako ehiza-barrutian uso pasea urriaren 12an hasten da urtero, baina, ia seguru, aurten hasiera ohi baino beranduago izango da. Aurten egokitzen da eremu hori zeinek esplotatuko duen adjudikatzea, lau urtean behin egiten den moduan: irail hasieran

bukatu zen adjudikazioa lortzeko lehiaketara aurkezteko epea; horren ondoren, tramite batzuk daude betetzeko, baina zozketarako garaiz betetzea zaila izango da. Bestalde, ia segurua da orain ere Gipuzkoako Ehiza Federazioak lortzea adjudikazioa, hura bakarrik aurkeztu da-eta. > 11

## Ondo Bizi gehigarria

GOIENKARIArekin batera osasunaren gaineko orrialde bereziak, barrualdean.





MEMORIA HISTORIKOA &gt; INTXORTAKO IBILBIDE TEMATIKOA

# Intxortako ibilbideak 160.000 bat euro jaso ditu

**DIRULAGUNTZA** Gerraren gaineko ibilbidearen proiektuak dirulaguntza garrantzitsuak jaso ditu Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik

**GARBIKETA** Fronteko gune estrategiko batzuk garbitu dituzte joan diren egunotan; lanak agudo joan dira, boluntarioen laguntzari esker

**GARRANTZIA** Hiru gune estrategikotan lanean ibili dira, eta lubakiei eta atzeguardiako babesleku bati ere itxura har dakieke dagoeneko

LEIRE KORTABARRIA &gt; ELGETA

Intxortako fronteko lubakiak, babeslekuak eta kokapen estrategikoak pixka bat bistarago daude aste honetaz geroztik. Gerrako fronte haren inguruan Elgetako Udalak egiten diharduen *Gerra Zibila Euskal Herrian: ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* izeneko proiektua egiteko lehen pausoak eman dituzte Aranzadi Zientzia Elkarteko bi lagunek eta boluntario ibili diren bost bat herritarrek, fronteko gune batzuk garbitzen ibili dira-eta.

Bestalde, egunotan, beste bulzada garrantzitsu bat jaso du proiektuak: Eusko Jaurlaritzara eskatuta zegoen 120.000 euroko dirulaguntza ailegatu da Elgetako Udalera; eta Foru Aldundiko Kultura sailetik, 22.000 euro, eta Turismo sailetik, 17.000. Horrenbestez, Elgetako alkate Oxel Erosarberen esanetan, "hilabeteotan gu baino handiagoak diren erakundeekin egin ditugun gestioek fruitua eman dute, eta Elgetarako garrantzitsua den proiektu honek argia ikusiko du hurrengo hilabeteotan".

Garbiketa lanak uste baino bizkorrago bukatu dituzte, horiek zuzentzen ibili den Javier Bucesek Aranzadiko arkeologoak dioskun moduan: "Herritarrek ondo erantzun diote laguntza deialdiari; gainera, guk tresnak generatzen arren, norik berea ekarri du etxetik". Lehenengo fasea bukatuko da planimetria bukatzen denean; hau da, bertatik bertarako datuak hartu -lubakien eta bestelako guneen neurriak, sakonera, luzera...-, ordenagailuan sartu eta hiru dimentsioko planoak egin. "Tresna zehatzena



1936ko urriaren 4az geroztik, frontea defenditzeko lehenengoetariko parapeto bat, Los Toldos.

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA

da hori; planimetriatik abiatuta, dena berregin daiteke, eta ordenagailuan ikuspuntu desberdinetatik ikusi", dio Javier Bucesek.

**'LA BELGA'-REN BILA**

Gero, bigarren fase bat etorriko da: benetan Intxortako frontea zena berreraikitzea. Ez da frontea bere xehetasun guztiarekin berreraikitzea; izan ere, lan eta dirutza eskerga da hori. Hezkuntza edo dibulgazio aldetik interesgarria dena berreraikitzea da, gune zehatz batzuk -gotorlekuak, lubakietako leku konkrituak- berreskuratuz. Orain arte hiru gune

**Lubakien garbiketa lanak bukatuta, hiru dimentsioko planoak egiten dabilta orain**

**'La Belga' topatzeko, metal-bilatzaile bat ekarriko dute Aranzadikoek**

garbitu dituzte: Los Toldos izenez ezagutzen den parapeto bat (goiko argazkian), Elgeta eta Kanpanzar batzen dituen bidea jarraituta; tiratzaile-postu esanguratsu batzuk; eta, hirugarren, *La Belga* izeneko metrailadorearen euskarria eta haren inguruko babeslekuak. Hirugarren hori berreskuratzea oso garrantzitsua izango da, metrailadore hark izan zuen garrantziarengatik; baina oraindik ez dute lortu hura zehazki kokatzea: "Metal-bilatzaile tresna bat ekarriko dugu, eta, ze munitzio erabiltzen zen jakinda, lekua mugatzen saiatuko gara. Arazoa

da denboran iraun duen egitura-rik ez dagoela; dena egurrez egin da zegoen, hormigoizko ezer ez zen egin, eta lur-eremua asko aldatu da urteotan: pinudiak landatu dira, herriko umeez zuloak aprobetxatzen zituzten jolasteko...", azaltzen du Javier Bucesek.

Garbitu duten lur zatian, lubakiak eta gudariak erabiltzen zituzten bideak igartzen dira, eta, Los Toldos jarraituta, Partaitiko gotorlekua ere bai; bidearen errebuelta bat aprobetxatuta egin zuten hura, atzeguardian.

**ILE-APAINZAILAK FRONTEAN**

Diruaren menpe ere egongo dira aurrerapenak. Elgetako Udala 383.122 euroko aurrekontuarekin hasi zen, eta erakunde publikoen dirulaguntzak ezinbestekoak ditu. Horregatik, Udalak eskertuko ditu Eusko Jaurlaritzak eman berri dizkion 120.000 euro horiek.

Izan ere, Intxortako ibilbidea proiektu handia da eta ahalegin ekonomiko handia eskatzen du. Ez lanek eurek bakarrik; esaterako, ibilbideak hartzen duen lur-eremuko zati garrantzitsuenetako bat Udalak erosi du; beste lursail bat eta bidea igarotzen den zati pribatua erabiltzeko baimena eman diote jabeek Udalari, baina frontea egon zen eremua oso zabala da, lubaki kilometroak, jateko tokiak, metrailadoreen kokalekuak, gorde lekua eta hainbat toki garrantzitsu daude, baina lurak pribatuak dira orain, eta Udalari horiek jabeek erostea ezinezkoa egiten zaio, beste erakunde batzuen laguntzarik gabe. Gero, beharrezkoa izango da pinuak botatzea eta aurre-lan bat egitea berreraikitze lanak

UDAL  
EUSKALTEGIAK

09/10 ikasturtea

MARIKULA EGITEKO EPEA ZABALIK!

**ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA**

Arimazubi plaza, 2  
(Eskola Politeknikoaren ondoan)  
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88  
Faxa: 943 79 91 43  
E-posta: euskaltegi@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi, 13 BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
E-posta: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

**LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA**

Nafarroa 2-4  
20550 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 21 68 • Faxa: 943 79 92 62  
E-posta: leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10  
20540 Eskoriatza  
Tel.: 943 79 21 68  
E-posta:  
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

I AM  
TÚ ERES  
... هيGU GARA  
VOUS ÊTES  
ELES SÃO

Elkar ulertzea, euskaraz  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura  
Departamentuaren laguntzarekin  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura  
Departamentuaren laguntzarekin



hasi aurretik. Komeni da lan horiek luzaroegi ez etetea: Javier Bucsek dioen moduan, "sei hilabete edo gehiago geratzen bada, landaretza berriz haziko da".

Emaitzak merezi izango du, Aranzadiko arkeologoak dioskun moduan: "Dena garbi ikusi arte ezin dezakegu benetan gure buruan irudikatu zelakoa zen bizitza han, eta zelakoa izan zen negu oso bat han ematea. Eta dena berriz eraikitzen denean, are gehiago". Gudariak bizimoduak bazituen egunerokotasun printzak, harrigarria bada ere: hala, ondoko argazkian ikusten den moduan, ile-apaintzaileak eta guzti zituzten. Argazki hori non ateratakoa den ez dakigu, baina ziur Elgetan antzeko egoerak ikusten zirela, egun baten bukatu ziren arte: "Euskal unitateek, beste laguntza-zerbitzu batzuen artean, ile-apaintzaileak zituzten, gehienak profesionalak, baina fusilak hartu behar izan zituzten haiek ere 37ko apirilko hondamendiaren ondoren", esaten du Intxorta 1937 Kultura Elkarteko Josuren Murgizu kideak.

Elgetako zinegotzi Edurne Alberdik gogorarazten duen moduan, "ibilbidea bera helburu turistiko batekin egiten da, bai, baina, hori baino gehiago, helburua da gogora ekartzea eta ez ahaztea zelako sarraskia eragin zuten Francoren inguruan zebiltzan faxistek". Memoria historikoa betirako gordetzea, alegia; eta horretan, Udalak Intxorta 1937 elkartearen laguntza dauka. Gernikarekin eta Bilboko Burdinazko Gerrikoarekin batera, Elgetako ibilbideak Euskal Herrian gerra frankistak izan zuen eragina ulertzen lagunduko du.

**"GUREAN JATEN ZUTEN GUDARIEK"**  
Elgetako setioak sei hilabete luze iraun zuen, eta etsaiak hiru aldetik erasotzen ziharduen. Defentsan, gakoa izan zen *La Belga* izeneko metrailadore-habia, zuzenean Asentziora begira zegoena. Haren bala-zorroak aurkitzeko itxaropena dute Aranzadikoek; eta baliteke, lanek aurrera egin ahala, gerrako aztarna gehiago agertzea. Dena dela, Javier Bucsen esanetan, ez da aurreikusten giza-aztarnarik agertzea. "Topatzekotan, bala-zorroak edo antzekoak topatuko ditugu", esaten du. Baina berreskuratzea ez da soilik materiala izango. Behar bada, Intxortako ibilbidea hasi da, pixkana-pixkana, bere helburua betetzen eta memoria historikoa



Gudariak gotorleku baten.

SABINO ARANA FONDOA



Javier Bucsek, Partaitiko babesleku zaharrean. LEIRE KORTABARRIA



Boluntario elgetarrak ibili dira Intxortako inguruak garbitzen.

ARANZADI



Lubakiak, garbituta.

ARANZADI

## Ibarreko bi, nazien biktima

Gerra frankistaren biktima batzuk Alemaniako nazien kontzentrazio-esparruetan hil zituzten. Horien artean, elgetar bat eta bergarar bat. Elgetarra zen Tomas Rebollo Etxaniz, 1907ko abenduaren 21ean jaioa. 1941eko azaroaren 3an eraman zuten Mauthausen-era. Han hil zen 1942ko ekainaren 28an. Zamorako guardia zibil baten eta Eibarko emakume baten semea zen. Haren gainean ez dago datu gehiagorik.

Bergararra, Pedro Jose Axpe Sagasta, 1906ko irailaren 29an jaio zen, arrasatearren seme. Aretxa-

baletako Eizaguirre, Acha y Cia lantegian jardun zuen. UGTko eta Union Republicana alderdiko kide zen. Gerran, Dragones batailoian borrokatu zen. Francok aurrera egin ahala, Frantziara ihes egin zuen, eta naziek Frantzia inbaditu zutenean harrapatu zuten. Dachauko kontzentrazio-esparrura eraman zuten 1944ko abuztuan, eta abenduaren 18an hil zen.



Pedro Axpe Sagasta.

JOSE RAMON INTXAUSPE

DOKUMENTAZIOA

### Jaurlaritzaren gaineko artxiokoak

Urte askoko eztabaidaren ondoren, Eusko Jaurlaritzari saldu zizkion EAJK gerran Bilbo jausi aurretik handik ateratu zituen Eusko Jaurlaritzaren gaineko artxiokoak. Orduz geroztik, II. Mundu Gerran eta ondoren, Artean gordeta izan zituen. Azkenean, artxiokoak Jaurlaritzara bueltatu dira, Irargi erakundeak oraindik Bergaran duen egoitzara.

PEDRO AXPE

### Aretxabaletaren gaineko liburu baten

Aretxabaletan gerrak izan zuen eragina aztertzen duen liburu bat prestatzen dabil Jose Ramon Intxauspe historialari eta Intxorta 1937 elkarteko kide, eta han jasotzen da Pedro Axperen historia. Nazien preso izan ziren 59 gipuzkoarren izen-abizenak daude Espainiako Kultura Ministerioan, eta 9.000 espainiarrenak; gehienak errepublikanoak ziren.

*Lore*

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

**islada**  
ile apaindegia

SPA masajeak, sentsazio erlaxatua eta berriztua.

Uribarri etorbidea 6 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 08 17 06 e-posta: [isladaileap@hotmail.com](mailto:isladaileap@hotmail.com)

**txondorra**  
erretegia

Sagardotegi menua | Menu pertsonalizatuak  
Menu bereziak | Karta

**ESPEZIALETATEAK**  
Haragia eta arraina txingarretan erreta  
Irailaren 22tik aurrera:  
eguneko menuak | Kazuelatxoak

Bizkaia Etorbidea 9  
(Muxibar aparkaleku gainean)

20500 Arrasate  
Tel.: 943 79 42 76



# Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Iraileko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**

Tel.: 943 08 10 50

[harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)

Kuota: 20 euro

ZIRA




Bidali AG ZIRA  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA



Bidali AG AQUARIUM  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



UMEENDAKO LIBURUAK



Bidali AG LIBURUAK  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



PENDRIVE BAT



Bidali AG PENDRIVE  
[Harpidedunaren izena]  
5533 zkra.



## SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA  
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**  
Sistema eragilea: Ubuntu Linux.  
Prozesadorea: 1.6Ghz Intel® Atom N270  
Diamondville (533Mhz/512Kb).  
Memoria: 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).  
Disko gogorra: 120GB 5400RPM SATA.  
Pantaila: 10" pantaila TFT WSVGA LED.  
Bermea: Hiru hilabeteko Standard3  
Netbook bermea.  
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa.
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Amillaga 32 • 943 76 59 60  
(auto garbigailu ondoan)

**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [harpidetza@goiena.com](mailto:harpidetza@goiena.com)



2007an Bergaran egindako okela gisatu lehiaketa.

GOIENKARIA

LEHIAKETA > OKELA GISATUA

# Harakinek okela gisatu lehiaketa antolatu dute

Bertako okela bultzatzea da txapelketaren helburua; lehenengoa bihar izango da Arrasaten

**ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA**  
Debagoieneko harakinek Debagoieneko I. Okela Gisatu Lehiaketa jarri dute martxan. Mankomunitatearen, Giokela eta Eusko Label markako harategi batzuen eta Bolintxo okindegiaren laguntzarekin antolatu du txapelketa Ederto harakinen erosketa taldeak.

Arrasateko plazan izango da lehenengo txapelketa bihar, zapatua. Datorren astean Oñatin egingo dute; eta Bergara, Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatzan noiz egingo duten zehaztu barik dute oraindik. Helburua bertako okela jaten dutenak bultzatzea da. Esan behar da herri bakoitzeko bi talde onenek finala jokatuko dutela.

**KULTURA ELKARTEEI LAGUNTZA**

Lehiaketan prestatuko duten okela pintxotan salduko dute, 1,5 euroren truke 19:00etatik aurrera. Diru hori herriko kultura elkartearen artean banatuko dute;

DATUA

**3**

KILO

Talde bakoitzak hiru kilo okela jasoko ditu. Jon Leturia Bergarako harakinak azaldu digu okela guztia behiaren zati berekoa izango dela. Gainerako osagaiak norberak jarri beharko ditu.

Arrasaten, Lore Gazteak dantza taldearendako, adibidez. Ota-mendi harategiak, Joxe Elortzak, Gorka harategiak, Agirretzek, Landaluzek, Joxean Izagirek eta Azpilikueta harakinek parte hartuko dute bihar.

**ARRASATEKO TXAPELKETA**

Bihar 15:00etan jasoko dute okela Arrasateko lehiaketan parte hartuko duten taldeek. Okela eta sua herriko harakinek jarriko dute, baina gainontzeko osagaiak eta tresnak parte-hartzaileek eraman beharko dituzte.

Oñatin, hilaren 26an izango da lehiaketa. Oñati jaietan murgilduta egongo denez, ezinezkoa izan da gisatua prestatzeko lekua bilatzea. Hortaz, talde bakoitzak bere elkartean prestatu beharko du gisatua eta 18:30erako plaza-eraman. Dirua Oñatz dantza taldearendako izango da.

EROSKI > PLASTIKOZKO POLTSAK KENTZEKO EKIMENA

## Plastikozko poltsa kopurua nabarmen jaitsi da Eroskin

Kanpaina martxan jarri eta lehenengo egunean %21,6 jaitsi zen poltsa kopurua

A.E. > BERGARA

Erantzun ona izan du Eroskik plastikozko poltsak kentzeko abian jarri duen kanpainak. Ekimena abian jarri eta lehenengo egunean %21,6 jaitsi zen erabilitako poltsen kopurua. Beste modu batera esanda, 433.545 poltsa gutxiago erabili ziren lehenengo egunean. Ohi-

ko da eguneko bi milioi inguru poltsa erabiltzea.

Sistema informatiko bidez kalkulatu dute erosketa bakoitzeko zenbat poltsa behar dituen bezeroak. Hala, bezeroak hartu ez duen poltsa bakoitzeko zentimo bateko deskontua egiten zaio erosketan.

**IBAI ARTE**

Bestalde, Arrasateko Ibai Arte dendarien elkarteak telazko 20.000 poltsa atera ditu. 160 dendatan banatu dituzte, bakoitzetan 100 poltsa. Denda batzuetan dagoeneko agortu dira poltsak.

> PRESOEN ZAINDARIA

## Txema Auzmendi Aretxabaletan izango da astelehenean

Datorren irailaren 24an Mesedetako Andre Mariaren eguna ospatuko da, presoaren zaindarien eguna. Horren harira hainbat ekitaldi antolatu dituzte ibarrean. Arrasaten eta Oñatin atzo egin zituzten ekitaldiak. Arrasaten Arantza Bajineta gizarte laguntzaileak egin zuen hitzaldia *Reinsertar o humanizar?* izenburupean; eta Oñatin, Arantza Azkue boluntarioak egin zuen hitzaldia. Ekitaldi nagusia astelehenean egingo da, Aretxabaletan. Txema Auzmendik egingo du hitzaldia kultura etxean, 18:00etan. Gaia da *Experiencias personales en el tema de la cárcel y el proyecto de Loiola-Etxea*.



EKONOMIA > EROSKI TALDEA

# Hipermerkatu kontzeptu berria aurkeztu du Eroskik

Kantabrian inauguratu zuen eguenean hiper berritua, lau gune bereizi dituena: produktu freskoak, etxea, norbere zaintza eta jaioberriak

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Eroski Taldeak hipermerkatu eredu berritua aurkeztu du Kantabrian, Valle Realen, eta aurki Tarrasan ere bai. Orain arte funtzionatu duen hipermerkatuaren ereduari aldaketa batzuk egin dizkio Eroskik, eta oraingoz bi leku horietan probatuko dute. Etorkezunean bere sare osora, Arrasateko hiperrera kasu, hedatuko den horren arabera erabakiko dute. Bere sare osoak ehun hipermerkatu inguru ditu.

AMENDAKO HITZALDIAK

Eroskik 1,5 milioi euro inbertitu ditu Valle Realeko hipermerkatua berritzen. 11.700 metro koadroko establezimendua da. Eroskiko komunikazio arduradun Josu Sanzek eta Valle Realeko hipermerkatuko zuzendari Raul Vilak esan dutenez, zentroa hipermerkatua ulertzeko modu berri baten fruitu da; eta, kontzeptu aldaketa hori, hipermerkatuek merkatua berreskuratzeko duten premiari eragin du.

Hala, Kantabriako hipermerkatuak lau gune bereiztu izango ditu: produktu freskoak, etxea, norbere zaintza, eta jaioberriak. Bakoitzean, aholkulariak egongo dira, bezeroak hobe-

to atenditzeko. Horiez gain, ekin-tzetarako leku bat sortu dute, eta hainbat jarduera egingo dituzte han. Adibidez, emaginen hitzaldiak amek umeei masajeak ematen ikas dezaten; makillaje ikas-

DATUA

1,5

MILIOI EURO

Valle Realeko hipermerkatua berritzeko 1,5 milioi euro inbertitu ditu Eroski Taldeak. Establezimendua 11.700 metro koadro dauzka. Hiper bakoitza berritzearen kostua horixe da.

ESANAK

**"Bi hipermerkatu berrituko ditugu oraingoz, proba gisa; ikusteko dago berritasunak sare osora hedatzen diren"**

Ainara Zarraga > Komunikazio saila

taroak, eta beste gai batzuk. Berrikuntza borobiltzeko, produktu gehiago eskainiko ditu hipermerkatuak: 2.000 produktu berri, zehazki.

ORAIN 35 URTEKO FORMATUA

Berrikuntza honekin, Eroski Taldeak aurrea hartu du Estatuko banatzaile taldeen artean. Beste banatzaile batzuek antzeko asmoak dituzte; Carrefourrek, esate baterako.

Eroski Taldeko ordezkariek diotenez, "formatu hau orain dela 35 urte sortu zen, eta tarte horretan ia ez da aldatu". Horrek eragin du eredu zaharrak erakargarritasuna galdu izana, eta azken bost urteotan euren merkatu-kota %5 jaitsi izana, modu jarraian. Bestalde, lehia gogorra izan dute: batetik, supermerkatuena; eta, bestetik, espezializatutako merkataritza-zentro handiak. Horrenbestez, euren burua berritzea ezinbestekoa izan dute.

Eroski Taldeak urte eta erdi eman du hipermerkatuen kontzeptua goitik behera berritzen. Inbertsioa ere parekoa da, izan ere, zentro bakoitza berritzeak 1,5 milioi inguruko inbertsioa eskatzen du.

Bestalde, Gasteizen hipermerkatua duen Carrefour taldeak ere bide berea jarraituko du. Oraingoz, ikerketa fasean dago berritzea, baina inauguratu berri dituzten zentroek badituzte berritasun batzuk.

etxeke leihotik



Eneko Azkarate > 'eazkarate@goiena.com'

## Aniztasunaren zeharkako kalteak?

Erakundeek herrilanean inbertitu nahi dituzte diru publikoak krisitik irteteko edo, behinik behin, lana eta ekonomia jarduerak sustatzeko. Eta, hala, agindu dituzte, esaterako, Zumarragatik Antzuolara arteko errepide berria, Abiadura Handiko Trena, Hondarribiako aireportuaren handitzea... eta Donostiarako metroa, Arriola jaunak, Donostiako alkate txit agurgarriaren zorionerako. Eibartarrak bilbotar samarrak direla ziotenei arrazoi emanez. Non eta Donostian metroa! Propaganda hutsa dela entzun diet agintari batzuei, ez dela inoiz egingo. Hala dirudi, marketinean maiz bada Donostiako alkatea.

Baina Debagoieneko tranbiaren gaian berbarik ere ez, Arrieta eta Gartzia sozialista arrasatearrek esan arren azpiegitura hori ezinbestekoa dela ibarrarendako.

Ematen du, gobernu berriarekin, atzeratu egingo direla

ibarreko hainbat azpiegitura lan: tranbiari agur, Miguel Altuna institutu berriari agur, Bergarako epaitegi berriari edo auditoriumari gero arte... Hori guztia, krisiaren aitzakian. Baina susmoa daukat, sakonean, beste arrazoiren bat dagoela. Erakunde batean alderdi batek eta bestean aurkako agintzen egotearen ondorioa, aniztasunaren zeharkako kalteak, adostasunera heltzeko borondate edo ahalmenik eza, baina beste behin galtzaile eskualde honetako biztanleak. Poztuko nintzateke erratuta egongo banintz.

**"Gobernu berriarekin atzeratu egingo ei dira ibarreko hainbat lan"**

**> 100 urte bete dituen erakundearekiko begirune gutxi izan du Bergarako Udalak. Mendeurreneko bandera oparitu zion, Bergarara etorrita entrenatzera, eta gonbita egin zion bandera udaletxean jartzeko. Eskaerari muzin egin eta ez dute bandera eskegi.**

**> San Mames berria eraikitzeke 55 milioi euro eskatu dizkio Athletic-ek Jaurlearitza. Eta egunkari batek eskatu du tratu berdina Realarendako: atletismoko pistak ezabatzeke dirulaguntza. Lotsagabekeria galantak, bizi dugun krisian.**



Udal euskaltegiaren zuzendariak eta euskara zinegotziak.

TXOMIN MADINA

EUSKARA > UDAL EUSKALTEGIAK

## Zabaldu dute izenemate epea Bergara, Arrasate eta Leintz bailarako udal euskaltegiek

Aurten, 4. maila emango dute Debagoienean, berritasun moduan

TXOMIN MADINA/L.K. > ARRASATE  
Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal euskaltegiek 2009/2010 ikasturteko aurkezpena egin zuten martitzenean. Ikasturte berezia izan-

go da Aretxabaleta eta Eskoriatza batzen dituen Leintz Udal Euskaltegiarendako, 25 urte beteko ditu-eta. Izan aditzaren taula aukeratu dute euren leloa osatzeko: hainbat hizkuntzatan idatzia agertzen da eta euskarari *Gu Gara* egokitu zaio, modu azpimarratuan, gainera. Arduradunen esanetan, aniztasun linguistikoa bizi garen herria garelako adierazi gura izan dute kanpaina honekin, baina bide batez gure euskalduntasuna aldarrikatuz.

Lehen aldiz, laugarren maila eskainiko dute Debagoienean; EGA baino maila goragokoa da, euskararen sakontzea gura dutenentzat. Ikastaroak 150 ordu presentzial izango ditu, eta beste 15 tutoretzetarako. Udal euskaltegiaren arduradunen esanetan, ikastaro hau administrazio publikoan ari direnendako edo aritu gura dutenendako da egokia.

Bestalde, Facebook-en eta Twitter-en kontua zabaldu dute udal euskaltegiek, "euskara ikasi edo hobetu nahi dutenen sarea handitzeko".

Izena emateko epea zabalik dago. Arrasateko eta Leintz Udal euskaltegiaren irailaren 25a arte egongo da matrikulatzeko aukera; Bergarakoan, hilaren 26a arte.

> INGURUMENA

**Aizkorri-Aratz parke naturaleko pagoak babesteko dituzte**

Aizkorri-Aratz parke naturalean dauden pago motzak babesteko plana martxan jarriko du Gipuzkoako Foru Aldundiak, Europako Batasunak dirua ipinita. Hala, Aldundiak 50 hektarea gordeko ditu Gipuzkoan pago motz gazteak bizi daitezten, eta gaur egun dauden pagadi garrantzitsuenak babesteko ditu; Aizkorri-Aratz parkeko pagadia dago planaren lehentasunen artean, beste gune batzuekin batera. Oñatiko Iturrigorri basoan dago, hain zuzen, pagadi baliotsu bat, eta han baso babestua egiteko asmoa dute Udalak eta Aldundiak.

> KRISIA

**Etxetresnek %19,67 gutxiago fakturatu dute aurten Espainian**

Etxetresna elektrikoaren fakturazioa %19,67 jaitsi da Espainian urteko lehen zortzi hilabeteotan, iazko epe berberaren aldean. Datu hori eman du ANFELeK, Lerro Zuriko Etxetresnen Egileen Espainiako Elkarteak. Fagor elkarte horretako kide da. Abuztuan 19.168 etxetresna gutxiago saldu ziren eta urte osoan, 1.029.806 etxetresna gutxiago.

Produktuka, labean salmenta jausi da gehien (%27,31 abuztura arte); gero, bitrozeramika eta indukziozko plakak (%24,86); ontzi-garbigailuak (%21,39) eta ate bateko hozkailuak (%19,34).





zabalik

Mikel Lezamiz

## Europa lotan

Europa zaharra aitzindari izan zen Frantziako Iraultza burgesa bultzatzerakoan 1789an eta baita Parisiko 1968ko Maiatzeko Iraultzan. Baina azken urte hauetan bai Frantziako gizartea eta oraindik gehiago Europa osoko bizitza soziala lotan dago eta ez dago mugimendurik. Parte-hartzea arazo sozialetan ia ezereza da. Eta arazoak ez dira falta, ugariak baitira.

Eta Euskal Herrian zer esanik ez, lotan gaude eta ez dugu sentsibilitaterik gizartea mugitzen hasteko eta hobetzeko.

Egia esan, badirudi Frantziar azken hauteskunde europarretan zerbait mugitu dela ezkerre eta ekologismoa eta Daniel Cohn-Bendit Berdeen liderrak eta José Bové altermundialistak eta beste batzuen elkarretaratzeak botoen %16 lortu zuten. Hortik etor daiteke mobida pixka bat gizartea astintzeko.

Baina Ameriketatik berri hobekak datozkigu, bai Hegoameriketatik eta baita Estatu Batuetatik ere. Gero eta jende gehiago dabil arduratuta gizarte berri bat sortu nahian. Krisi ekonomiko eta finantzario honek batzuen begiak zabalteko balio izan die, eta ikerketa eta garapen berriak sortzen ari dira.

Bolivian, Brasilen, Venezuelan eta Nicaraguan eta beste batzuetan, botoen aldaketa egon da eta barne garapenak ematen ari dira. Ekonomia solidarioaren kontzeptua guztiz barneratu da gizartean eta Brasileko Movimiento Sin Tierra eta Ekonomia Solidario osoa iraultza bat bideratzen ari dira. AEBetan ere Barak Obamaren atzetik jartzeak beste zerbait esan nahi du eta jende asko legoke prest beste era bateko garapena egiteko. Irakasleak, ikertzaile sozialak, ekonomilari asko ari da eurek dioten moduan "hirugarren bidea" bilatu nahian.

Garaia da Europa ere berpizten hasteko eta gu ere mugitzen hasteko.

**"Euskal Herrian lotan gaude eta ez dugu sentsibilitaterik gizartea mugitzen hasteko"**

usteak uste


Irati Agirreazaldegi

## Autobuseko istorioak

Lurraldebuseko istorioak iragarkiaren harira, autobuseko istorioak asko eta bitxiak ere badira. Azkenaldian maiz erabiltzen dut autobusa eta ibiltzen naiz harantz eta honantz. Batean ordua baino lehen egiten du ihes, hurrengoa ordurako iritsi ez, eta hurrengo Maltzagan Eibarrerantz Elgoibarrera joan partez. Pasa berri dena omen da mugikortasunaren astea, baina autobusez mugitzea batzuetan, behintzat, nolako desastrea. Nola nahi dute, bada, toki guztietara garaiz iristea?

marrazkiz

Unai Busturia



blog-top

## Arrasate, lan eta lo?

Joxe Aranzabal  
www.goiena.net/blogak/faroa

Lau ikasle ditut Erasmus programaren barruan. Komunikazioa ikasten ari direnak, eta laurak Bergaran bizi dira irailaren hasiera ezkerre. Atzo esan zidatenez, oso gustura bizi dira Bergaran. Are gehiago: Bergara gustukoago dute Mondragoe baino, han giro hobe bizi dutelako.

Pozten naiz Bergaragatik, baina kezka piztu zait nire jaioterriarengatik, iaz ere hainbat Erasmus ikasle adierazi baitzidaten ez zeudela gustura Mondragoen, bertan giro eskasa aurkitzen zutela-eta.

Zer gertatzen ari da Mondragoen? Mondragoetarrak ekin-tzaile apartak izan dira, Mondragoen sortu zen Euskal Herriko kooperatiba mugimendua, baina beste inon zerbitzuek eta aisiak garrantzia hartzen duten neurrian, Arrasate atzera geratzen ari da, herri triste bihurtzen ari zaigu, lo-hiri bat (...). Inork ez dio erremediorik jarriko gainbeherari?

## Eta Anza?

Imanol Murua Uribe  
www.berria.info/blogak/imanol

Albisterik ez izatea albiste ona dela dio ingelesezko esamolde zaharrak, baina Jon Anzaren kasuan kontrakoa esan beharko genuke. Betiko zalaparta mediatikoaren erdian, Jon Anzaren aztarren inondik atera ez izana izan daiteke uda honetako gertaera kezkarrietakoa. ETak salatu zuen bezala, Anzaren desagerpenaren atzean "Frantzia eta Espainiako estoldak" daudela ondorioztatzen du moduko daturik ez da agertu, baina susmo hori gezurtatzen duen informaziorik ere ez. Baina esanguratsua da, ildo horretan, Joseba Egibar EAJko GBBko lehendakariak egindako eskaera Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Barne ministroari: "Ona litzateke Rubalcabak azaltzea Frantziako lur horietan Espainiako Poliziak hura atxiki edo atxilotu zuen". Egibarrek ez du besterik esan, ez du beste ezer dakienik iradoki, hilabeteetan gai honi dagokionez isilik egon ondoren, orain eskaera hori egiteko arrazoiren bat izango zuen.

koplak

Andere Arriolabengoa

## Egunez egun segituko dugu kalean

Afari eta bazkari denak etxean egin hobe da azkenaldian kalera ere ezin gara ta atera.

Lagun arteko mus txapelketak sortu hamaika endredo beldurra dute ordago haiei botako diegun edo.

Futbol partida antolatuta zerbait bagendun halare kirola oso arriskutsua dugula ohartu gabe.

Nahiz eta pena asko sentitu urruti ditugularik ez okurritu anai-arreben argazkirik ipintzerik.

Donostian manifa ixila goraiatuaz bizitza inposaketa deitzen da hori inolaz ere baldintza.

Egunez egun ta kolpez kolpe segituko dugu kalean adierazpen askatasuna berreskuratu artean.

## Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktoreburua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarría (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ixaso Berezibar, Aintzane Muruamendiarrak Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko  
JaurlaritzaGipuzkoako  
Foru AldundiaArrasateko  
UdalaBergarako  
UdalaOñatiko  
UdalaAretxabaletako  
UdalaEskoriatzako  
UdalaAntzuolako  
UdalaAramaioko  
UdalaElgetako  
UdalaLeintz Gatzagako  
Udala

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria**



Kutxa Auto Asegurua

# Orain baditugu auto-asegurua. Bila ibili beharrik ez.

Ongi etorri **Kutxa Auto Asegurua**. Diruaz gainera, buruhausteak aurrezten dizkizun aseguruak. Estaldura zabalak, zerbitzu-kalitatea eta prezio ona ondoen konbinatzen dituen eskaintza. **Liberty Seguros** etxearen bermearekin. Eta, jakina, **kutxa**ren konfiantzarekin.

Zatoz gu ikustera, eta xehetasun guztien berri emango dizugu.



zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**



Alderdi politikoek eta abertzaletasunak, batez ere, hausnarketa egin behar dutela dio Iñaki Galdosek; "abertzaletasuna berrasmatu" egin behar dela.

Bestalde, turismoaren aldetik uda ona izan dela dio, baina jatetxeek batez ere igarri dutela krisia, jendeak gutxiago gastatu duelako.

Iñaki Galdos > Gipuzkoako Kirol eta Kanpo Ekintzetako diputatua

# "Politika egiteko orduan, eredu berriak berrasmatu behar ditugu"

ENEKO AZKARATE > ARRASATE

Iñaki Galdosek (Oñati, 1966) urte bi daramatza Diputazioan, kirol eta turismo kontuetan batik bat. Une honetan, ordea, EAren zatiketarik sortutako Hamaikabat alderdi politiko berria sortze prozesuan buru-belarri dihardu.

**Zeintzuk dira Hamaikabaten ezaugarri nagusiak?**

EAren barruan geundenean ere ezagunak ziren gure ezaugarriak, gure aldarrikapenak, baina gogoeta egin dugu hainbat konturen gainean: batetik, ikusi dugu abertzaletasunak, batez ere tradizio historikoa duenak, eta guk hor kokatzen dugu gure burua, krisi sakona bizi duela jendartean eta erakundeetan, eta berreskuratu egin behar da konfiantza. Bestalde, ikusten da gero eta alde handiagoa dagoela alderdien eta jendartearen artean. Politika egiteko orduan, eredu berriak berrasmatu behar ditugu. Hirugarren ezaugarri nagusia da modu berriak daudela gizarte-ekintzetarako. Ezker-eskuma dialektika klasiko horrek lehengo garrantzia galdu du eta egoera berri horri adarretatik heldu behar diogu eta politika egiterakoan molde berriak erabili behar ditugu. Bada, Hamaikabat da tresna gure betiko proposamenak gizarteratzeko, molde berriez baliatuz.

**Politika eta abertzaletasuna berrasmatu egin beharra dagoela diozue. Zer esan nahi duzue?**

Abertzaletasuna plurala da, espresio asko daude, baina guk tradizio historikoko abertzaletasunean kokatzen dugu gure burua. Abertzaletasunak, arrazoi asko direla medio, herritarren

babesa galdu du. Ikusi besterik ez dago orain dela 20-25 urte zer indar zuten alderdi abertzaleek. Gauzak ez ditugu ondo egin, besteak beste, hiri handi askotan, Araban, Donostian... eta aztertu egin beharko da hori zergatik gertatzen den. Belaunaldi berrien egarri eta goseari erantzuten ez dugu jakin. Ditzuten kezkei erantzuten ez dugu jakin. Hortik abertzaletasunak galdu duen pisua. Hori aztertu eta alternatibak berrasmatu behar ditugu. Euskal Herri askea nahi badugu Europa berri baten, aztertu egin behar dugu zelako aldaketak egon diren jendartean eta onartu egin beharko dugu gauzak ez ditugula ondo egin, bai erakundeetan eta baita jendartean. Ahaleginak egin behar ditugu egoera honi buelta emateko. Berrasmatu egin behar dira gauza asko, politikagintzan eta, batik bat, abertzaletasunean.

ABERTZALETASUNA

**"Abertzaletasunak krisi sakona bizi du jendartean eta erakundeetan; konfiantza berreskuratu egin behar da"**

EZKERRA ETA ESKUMA

**"Ezker-eskuma dialektika klasiko horrek bere garrantzia galdu du azkenaldian"**

**Noiz egingo duzue Hamaikabat-en sorrera batzarra?**

Talde sustatzaile bat ari da lanean hegoaldeko lau herrialdeetan eta horrek iragarri du azaroaren azken astean izango dela sorrera batzarra. Lan interesgarria egiten ari gara, jardunaldi-tan-eta. Unibertsitate munduko jendearen eta gizarte eragileen laguntzarekin. Lehenago ere, EAren barruan, azken hauteskundearen porrotaren ostean, Susperu prozesua jarri genuen abian eta jendarteko hainbat eragilek, ekonomia mundukoek, unibertsitatekoek... ekarpenak egin zituzten. Horietako asko eta beste berri batzuk ari dira laguntzen. Hau ez da bataioa izango, prozesu luzea baizik.

**Ze iritzi daukazu polo subiranistaren gainean?**

Abertzaletasunaren barruan bi estrategia posible daude: batetik, abertzaletasun historikoa, Jose Antonio Agirreren tradizioz datorkena, eta arrakasta handia izan duena, besteak beste, azken hamarkadetan herri hau erakundeetatik eraiki delako. Beste estrategia da ezker abertzalearen inguruan eraiki nahi den polo hori. Uste dut biak direla beharrezkoak eta bakoitza da tradizio batekoa, kultura batekoa, etika batekoa. Abertzaleek erabaki behar dute zein estrategiarekin egiten duten bat. Horrek ez du esan nahi estrategia edo polo bakoitzean espresio bakarrak duenik tokia, abertzaletasuna plurala delako, baina abertzaletasunaren barruan bi dira estrategia posibleak eta guk argi eta garbi kokatzen dugu gure burua abertzaletasun historikoaren tra-



Iñaki Galdos, Goiena Telebistaren egoitzan, Arrasaten, martitzenean.

dizioan. Hurrengo hilabeteetan eragile ezberdinek erabaki beharko dute non kokatzen duten beren burua. Izan ere, estrategia biak bateraezinak dira.

**EAJrekin elkarlana planteatzen du Hamaikabatek?**

Bai, guk ez dugu hori ezkutatzeko. Beharrezkoa da indar metaketa egitea abertzaletasun historikoan. Besteak beste, hauteskundeetan elkarrekin joateko. Baina horrek ez du esan nahi alderdi horretan sartu nahi dugu-

nik. Ni ez naiz EAJn inoiz egon eta ez daukat alderdi horretan sartzeko asmorik. Azkeneko hauteskundearen emaitzak ikusita, jabetuko gara EAren boto emaile ohiko askok zer hautu egin zuten: Ibarretxeren alde. Baina ziur naiz horiek askoz ere gusurago emango ziotela botoa osatu ez zen koalizioari. Boto emaile horiek ez ditugu umezurtz utzi nahi. Adibide bat jartzearen: EAK, hastapenetan, 2.800 boto emaile zituen Arrasaten, %20 edo; azken hauteskundeetan, ostera, 600 boto lortu ditu. Horrek esan nahi du milaka lagun daudela, Arrasaten bertan, beste hautu bat egin dutenak.

**Hamaikabatek EAJn amaituko duela diote batzuek, hala ere.**

Denborak esango du. Urte asko daramatza horixe entzuten. 1999an Iruñean EAK egindako kongresuan horixe zioten orain ere diotenek EAJn amaituko dugula. Ideiak oso garbi dauzkagu. Ez da ona abertzaletasun historikoaren barruan alderdi bakarra egotea. Edozelan ere, argi dugu beharrezkoa dela indar metaketa, batez ere hauteskunde-etarako. Ajuria Enean sozialista bat dago agintzen eta, agian, norbaitzuek beste erabaki bat hartu izan balute, orain ez genituzke ikusiko sozialistak agintzen.

BOTO EMAILEAK

**"EAren boto emaile ohiko askok Ibarretxeren alde egin zuten hautua eta boto emaile horiek ez ditugu umezurtz utzi nahi"**

PATXI LOPEZ

**"Ez da erraza Lopezen lanaren balorazioa egitea, propaganda egiten ibili direlako"**





XABIER URTZELAI

**Sozialistak eta popularrak, Espainian etsai eta hemen bat. Ostera, abertzaleak inoiz baino zatituago.**

Abertzaleen artean estrategia kontrajarriak daude eta ona da biak indartzea herriak auke-  
ratzeko zein nahi duen. Hurrengo hilabeteetan abertzaletasuna-  
ren artean gauzak argitzen joan-  
go direla espero dut. Arnaldo Otegi iragarri zituen udazkene-  
rako berriak. Hamaikabat sortu,  
indartu, oinarriak jarri eta gizar-  
teratzeko lanean dihardugu guk.  
Geroak esango du zer hautu egi-  
ten duen jendeak.

**Zer balorazio egiten duzu Patxi Lopezen gobernuaz?**

Ez da erraza balorazioa egi-  
tea, propaganda handia egiten ibi-  
li direlako. Badirudi mundua  
orain hasi dela, baina guk ez  
dugu ikusten ezer egiten dihar-  
dutenik. Ertzaintzaren eta preso-  
en argazkien inguruko gaiarekin  
mundu bat eraiki dute, gai horren  
gainean eztabaidatan ibiltzeko,  
beste gai batzuk ahaztuta; krisia-  
ren kontrako neurriak iragarri  
dituzte, gehienak lehengo Jaur-  
laritzak iragarri zituenak... Hor-  
tik aurrera ezer gutxi, eta kezka-  
garria da, krisi garaian gaudela-  
rik, jendarteari proposamenak  
eskaini behar zaizkio-eta arazo-  
ak konpontzeko.

**Testuinguru horretan koka-  
tzen duzu uda honetan sortu  
den polemika presoen argaz-  
kien gainean?**

Bai. Kontu honetan garbi hitz  
egin behar da. Gauza bat da pre-  
soen giza eskubideen gaineko  
aldarrikapenak egitea, eta hori  
errespetatu egin behar da, eta bes-  
te bat da terrorismoaren gorai-  
pamena egitea. ETaren anagra-  
mak-eta, hainbat jaitan kalean  
ikusten direnak, ez dira onarga-  
rriak. Baina presoen argazkien  
inguruan gertatzen ari dena pro-

paganda operazioa da. Hurrengo  
egunean Madrilgo egunkarietan  
laudorioak jasotzeko helburua-  
rekin egiten dute, baina euskal  
jendartean daukan eragina ez da  
ona.

**Gipuzkoa Gehi 20 (Gipuz-  
koa+20) prozesua da zure ardu-  
retako bat Foru Aldundian.  
Zer da eta zein da haren hel-  
burua?**

Legealdia hasi zenean sortu  
genuen Gipuzkoako estrategia  
bulegoa eta Gipuzkoa Gehi 20 da  
bulego horretako zeregin nagus-  
ia une honetan. Gogoeta estra-  
tegikoa da, lau fasetan banatua,  
eta orain bigarren fasea amaiz-  
ten ari gara. Datorren astean  
izango dugu Arantzazun horre-  
tarako batzarra. Hainbat eragi-  
le dabilta lanean; etorkizune-  
ko batzordea sortu da Batzar  
Nagusietan; Eusko Ikaskuntza-  
rekin Kontseilu bat sortu dugu;  
Elhuyar fundazioaren bidez 500  
gazte ari dira; eskualdeetako  
garapen agentziarekin ere elkar-  
lanean gabilta; gure webgune-  
aren bidez ere bultzatu nahi  
dugu herritarren parte-har-  
tzea... Asmoa da 20 urteko  
Gipuzkoa irudikatzea. Irailaren  
20tik aurrera bigarren fase hon-  
tan murgilduko gara eta Gipuz-  
koaren erronka nagusiak  
marraztuko ditugu.

**Zelan irudikatzen duzu Gipuz-  
koa 20 urte barru?**

Gipuzkoa oso lurralde bere-  
zia eta dinamikoa da. Lurralde-  
aren oreka lortu behar dugu eta  
iruditzen zait erakundeak asko-  
tan ez direla ondo portatu Deba-  
goienarekin eta Debarrenare-  
kin. Pasaiaiko kanpoko portua,  
errepideak, aireportuak, tran-  
bia, Abiadura Handiko Trena...,  
horiek dira gure erronkak. Nork  
bere iritzia du horien inguruan,  
baina erronkak dira lurraldea-  
rendako. Horiek definitu egin

ETA

**"ETAren anagramak-eta,  
hainbat jaitan  
kalean ikusten  
direnak, ez dira  
onargarriak"**

TURISMOA

**"Turismoaren alorrean,  
Debagoiena eredugarria  
da erakundeen eta  
eragileen arteko  
lankidetzan"**

behar dira. Bestalde, Gipuzkoan  
industriak daukan pisuari eutsi  
egin behar diogu eta, horretara-  
ko, berrikuntzaren eta teknolo-  
gia berrien erronkari heldu behar  
diogu. Horretaz gain, jendartea  
zahartzen ari da, emigrazioaren  
eragina nabaria da, gaixotasun  
berriak badaude... Eta euskaldun  
izaten jarraitu nahi badugu, horri  
ere eutsi beharko diogu. Izan ere,  
askotan, egunerokoan, ahaztu  
egiten zaigu euskal nazioa osa-  
tzen duen lurralde batean bizi  
garela eta nazio horrek irauteko  
urratsak eman behar dira hizkun-  
tzaren alorrean, besteak beste.

**Realak 100 urte betetzen dituen  
honetan, zelakoak dira Dipu-  
tazioaren eta Realaren arteko  
harremanak?**

Onak, baina eztabaidak iza-  
ten ditugu, normala den moduan.  
Realak 7 bat milioi euro zor diz-  
kio Diputazioari eta zor horrekin  
zer egin orain ari gara erabaki-  
tzen. Gipuzkoarron diruak kude-  
atzen ditugu eta hor ere kontuan  
izan behar dugu dena ez dela  
libre. Bestalde, iraganean gauzak  
ez dituzte ondo egin Realean.

**Debagoieneko kirol ekipamen-  
duei dagokienez, Aretxabale-  
tako kiroldegia da une hon-  
etan premia nagusia. Zenbate-  
kin lagundu du Diputazioak?**

Kirol ekipamenduen ingu-  
ruan, Gipuzkoan diru gehien ero-  
ango duena Aretxabaleta izango  
da, kiroldegi berria egiteko, hain  
justu ere. Bi milioi eta ehun mila  
euro. Bestalde, Antzuolako alka-  
tearekin aste honetan bertan ber-  
ba egingo dugu eskolako patioko  
estalpea egiteko pausoak emate-  
ko; Oñati eta Bergarako futbol  
zelaietarako ere egon dira lagun-  
tzak... Aurrera begira, beste  
dekretu bat atera nahi dugu, bes-  
te hainbat ekimen diruz lagun-  
tzeko, eta horietako asko hona ere  
etorriko dira.

**Eta turismoarekin lotutako ze  
ekimen bultzatuko du Deba-  
goienean Diputazioak legeal-  
di honetan?**

Turismoaren alorrean, Deba-  
goienean oso ondo dihardute eta  
eredugarria da erakundeen eta  
eragileen arteko lankidetzak.  
Azken ekimena izan da Oñatiko  
San Migel parrokiako argiteria  
berrian laguntzea. Aurrera begi-  
ra, hala ere, dirulaguntzak jar-  
duerak bultzatzeko izango dira,  
eta ez inbertsioetarako.

**Turismoaren aldetik zelakoa  
izan da uda Gipuzkoan?**

Beste lurralde batzuetako  
beherakadaren aurrean, Gipuz-  
koak gutxiago igarri du krisia.  
Hala ere, datuak ematerakoan,  
batzuk ematen dira eta beste  
batzuk ez dira ematen, zaila dela-  
ko datu zehatzak lortzea. Bisita-  
ri kopuruari dagokionez, ondo  
eutsi diogu, egonaldiak-eta ez  
dira askorik murriztu. Baina ara-  
zoa da turistak zenbat diru gas-  
tatzen duen eta nabaritu dugu jen-  
dea gutxiago gastatzera etorri  
dela. Hotelek, nekazari turismo  
etxeek, ez dute horrenbesteraino  
nabaritu krisia, baina bai, ordea,  
jatetxeek.



## Krisi mahaia

**Jesus Markaide**  
Arrasate

Joan zen irailaren 10ean argitaratu zen egunkarietan gutun bat Jacinto Irazolarena. Gutunean, iragartzearekin batera bertan geneukala krisi handia, hau da, oraingo krisiak hiritarren ekonomian bete-bete eragingo duena, proposatzen du krisi mahaia eratzea, herri edo auzoetan, herritarrengandik gertueneko gunee-tan. Hortaz, krisi handia badatorrigu. Tamalez, baina gupidagabe. Eta lehen gerizan, hau da, familiarenean, izango du eragina batez ere, jende askok pairatuko du-eta krisia.

Eibarren, antza, oso aurreratuta daude ideia honekin (herritarren parte hartzea bultzatzeko Plataformarekin eta Udalarekin) eta nahi dute babesik barik ez utzi gure inguruko familiak. Dirudienez, Plataforma horrek kaleratu du manifestu bat bermatzeko laguntzak pertsona eta familiei, egoera ekonomiko larrian geratu baino lehen.

Ez dakit gure inguru honetan horrelako ekimenik

badagoen. Kontu honetan, eibartarren ideia interesgarria iruditzen zait, ez karitate-erakundeak sortzeko, baizik eta jendartean elkartasuna bultzatzeko, bazterrean inor ez uzte aldera.

## Bertokoaz lan egiten dutelako

**Josu Pagaldai Igartua**  
Eskoriatza

Joan den egubakoitzeko GOIENKARIAko artikulu batean, hemengo okela saltzaileek ez zutela hemengo okelarik nahi irakur zitekeen. Nire amak harategia du Eskoriatzan, abuztuan astebe-tez harategia itxita eduki eta gero, hilaren 24an ireki zuen berriro. Lehenengo astean neure txahal bat hil zuen, abuztu amaieran Azkonteiko (Oñati) eta Itxurraldeko (Eskoriatza) bana.

Irailaren 4an Sorautzko (Eskoriatza) bat, hilaren 11n Leteko Felix Zubiaren 2, eta aste honetan Bergarako Zabale goikoa baserriko 2 txahal hilko ditu, 11 eta 12 hilabetekoak.

Nire amaren gisa, ziur nago Debagoieneko harakin gehienak antzera ibiliko direla bertako txahal edo kasu banaka batzuetan behiak hilez.

Okelaren kalitatea desberdina izaten da txahalaren arrazaren arabera: batzuetan ona eta bestetan hobea. Hazte prozesua, berriz, antzerakoa baserri gehienetan. Txahala, 4-6 hilabetera arte amaren errepean egoten delarik, eta ondoren ikuiluan, solte edo lotuta, ondo gizendu arte. Hiltze data desberdina delarik, harakin bakoitzaren gustuen arabera, baina normalean betik 11 hilabetetik gorako txahalak.

Gaur da eguna ez dudana ezagutzen harakin bat subentzioak kobratzen dituen bere zerbitzua emateagatik; bai, ordea, makina bat baserri eta ganaduzale. Batzuek merezia edukiko dute, baina beste askok... Beraz, Gorka, merkatu bat zabaltzea nahi baduzu, erabili egiazkoak diren argumentuak, eta kritikatzekotan, kritikatu negozio txikiak hiltzen ari diren supermerkatuak.

Azkenik, Debagoieneko haragijaleoi, jarraitu lasai horrela badiharduzue, behintzat, zuen herriko konfiantzaz-

ko harategira joaten, eta harakinarengan fidatzen. Soilik, exijitu beti bertokoa, eta Zubillagako hiltegia hildakoa bada, askoz hobea.

## Prostituzioa

**Iñaki Lasagabaster**  
Arrasate

Azken egunotan hedabide askotan dago berbetagai prostituzioaren gaia. Batez ere hiri handietan, hiri handietako kaleetako auzokideak gogaituta daudelako prostituzioa kalean hain modu agerikoan praktikatzeko ikusteaz. Gehienetan, emakumezkoak dira prostituitzen direnak, emakume atzerritarrek, hego-amerikarrek edo Europa ekialdetik etorritakoak. Premia larrian daudenak.

Ikusi ditugu argazkiak sexua praktikatzeko Bartzelonako erdi-erdiko kaleetan, prostituta eta bezeroen artean. Irudi txundigarriak, gogorak, adin txikiendako ez ezik pertsona ororendako. Eta eztabaida zabalduta da: "Prostituzioa arautu egin behar da!", diote askok. Iritzi horrekin bat nator.

Prostituzioa legeztatuz gero, saihestuko lirakeke mafiak; emakumeak esklabo bihurtzen dituzten txuloak; prostituitu nahi duenak modu duinean egitea ahalbidetuko luke; zergak kobratuko lirakekeenez, ogasunerako sarrera berriak sortuko lirakeke... Geratuko litzateke airean garrantzitsuena, halere: bere gorpua sexurako saltzea erabakitzen duenak, libreki eta norberaren borondatez erabaki ahal izatea. Hori konplikatuagoa da, baina beste hainbat arazo konponduko lirakeke.

## Arrasateko frantziskotarrei

**Arantza Urtzelai**  
Arrasate

Arrasatetik, eskertu nahi ditut lerro hauen bidez frantziskotarrak. Batetik, gure artean urte askotan bizi izan direlako. Eta, bestetik, eskuzabaltasunez aritzearren, hiritarren gizarte ongizate eta espiritualaren alde. Badakigu bazoaztela, baina ez gaituzuela ahaztuko. Eskerrik asko, zuen ahaleginarengatik.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefonoa:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
goienkaria@goiena.com

# Berriz ere.

**GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoienean, berriz ere.** CIEsen 2009ko lehen neurketak horixe dio. Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero. Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek. Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.

**GOIENKARIA: 36.000 irakurle**

El Diario Vasco: 21.000 irakurle

Gara: 4.000 irakurle

Noticias de Gipuzkoa: 3.000 irakurle

Berria: 2.000 irakurle

El País: 2.000 irakurle

Marca: 1.000 irakurle

# Goienkaria



# Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Aretxabaleta > 20-21 Oñati > 22  
Antzuola > 27 Eskoriatza > 28-29 Elgeta > 30 Aramaio > 31 Gatzaga > 32




> **ARRASATE**  
Aldai inguruak dagoeneko badauka parke itxura > **12**



> **BERGARA**  
Eguraldiak lagundu egin zuen San Martin jaietako danborradetan > **16**



> **ARETXABALETA**  
Ate irekiak hasiko dira astelehenean ludotekan, ume eta gurasoendako > **20**



> **ELGETA**  
Hamar kamioikada zikinkeria atera dute Asentzioko putzutik > **30**

LEINTZ GATZAGA > EHIZA

## Ohi baino beranduago hasiko da aurten ehiza denboraldia Gatzagan

### LEHIAKETA

Barrutia kudeatzeko lehiaketa deitu da, eta irail hasieran bukatu da aurkezteko epea

### ATZERAPENA

Ehiza Federazioarena da eskaintza bakarra, baina tramiteek luze joko dute

LEIRE KORTABARRIA > LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako herritik kanpoko ehiztariendako ehiza-barrutian uso pasea urriaren 12an hasten da urtero, baina, ia seguru, aurten hasiera ohi baino beranduago izango da. Aurten egokitzten da eremu hori zeinek esplotatuko duen adjudikatzea, lau urtean behin egiten den moduan, eta oraindik irail hasieran bukatu zen adjudikazioa lortzeko lehiaketara aurkezteko epea. Horren ondoren, tramite batzuk bete beharko dira –dena ondo bidean–, baina zozketetarako garaiz betetzea zaila izango da.

Ia segurua da orain ere Gipuzkoako Ehiza Federazioak lortzea adjudikazioa; izan ere, lehiaketa publiko bidez ematen da, Gatzagako Udalak deituta, eta Federazioa bakarrik aurkeztu da. Federazioak badaramatza 12 urte eremu hori kudeatzen. Baina tramiteak luzeak dira –adjudikazioa egiteko osoko bilkurak oraindik ez du datarik, baina seguruenik hil amaieran izango da–, eta, Federazioko arduradunek esaten duten moduan, "lizentzia jaso arte, postu horiek legez kanpo daude; hortaz, ezingo dira zozketak hasi".

Ehiza-barruti hori publikoa da; hau da, edozeinek dauka aukera hango postu bat lortzeko. Gatzagako Mendian dago eta usoa ehizatzen 46 postu ditu. Bestalde, Galbarrain delako lerroko postuak Leintz Gatzagako ehiztariak bakarrik erabili ahal izango dituzte, orain arte bezala hori ere.



Bi ehiztari, Leintz Gatzagan, usoa noiz agertuko zain.

XABIER URTZELAI

### DENBORALDIKO, 700 EURO

Ehiza ez da ekintza merkea, eta ez bakarrik materialari dagokionez. Leintz Gatzagako postuak inguruetakoa arrakastatsuen eta desiratuenetariko batzuk dira uso migratzaileak ehizatzen. Gatzagako horien ohiko pasabidea da, eta uso

migratzaileen eta birigarroen ehiza denboraldia, normalean, urriaren 12an hasi eta urtarriaren 31n bukatzen da, biak barne. Federazioak kudeatutako ehiza-barrutiak 75 bat postu ditu, eta bakoitzean bi lagun ibiltzen dira egunero; horietako bakoitzak, egun bakoitzeko, bere gas-

tua egiten du. Gatzagan urtero-urtero ibiltzen den ehiztari baten esanetan, "egunero ibilita 700-800 euroren bueltan ibiliko da denboraldiko kostua". Hori, tramite burokratikoak bakarrik kontuan hartuta. Adibide bat ematearren, postuak egunero zozketatzen dira, eta zozketan

parte hartzearen bakarrik tasa bat ordaindu behar da eta beste bat, postua lortuz gero.

### EHIZTARI GEHIAGORENDAKO

Ehiza-barrutia Gipuzkoako Ehiza Federazioak eramatearen gaineko denetarioko iritziak daude. Hala, batzuek esaten dute ehiztari elkarteek zein bestelako elkarte pribatuek kudeatzeak izango lituzkeela abantaila gehiago. Baina, bestalde, ehiztariok onartzen dute Federazioak kudeatzeak ehiztari gehiagori ematen diela aukera, eremu hori elkarte pribatu batek kudeatuko balu baino. Gatzagako postuak zein preziaztuak diren kontuan hartuta, bali-teke hori izatea gehienak onartuko lukeen irtenbide bakarra.

Aurten, itxaron egin beharko dute Gatzagara doazen ehiztariak, baina datozen urteotan beste ezer gutxi aldatuko da. Denboraldia hasten denean hasita, bai-larako ehiztarien topaleku bihurtuko da hura berriz ere.

HISTORIA PIXKA BAT

### Gaur egungo eremua, bi urte eta erdiko lan handiaren fruitu

Leintz Gatzagako ehiza-barrutiak modu berezian daudela antolatuta ezagun da inguruko ehiztariendako. Horietako askok, batez ere gazteenak, ez dakitena, ordea, da antolamendu berezi hori 70eko eta 80ko hamarkadetan egin zen lan handiaren eta borondateak bateratzearen fruitua dela; Gatzagako ehiztarien eta Udalaren ekimenez, Gatzagako herri osoa ados jartzea lortu zuten, sorreratik, 1972. urtetik, ordura arte kaosa zen lur-eremu bat behar bezala ordenatzeko. Araudia onartu zen arte, ordenamendurik ezean, "norbera nahi zuen tokian jartzen zen", dio garai haiek gogoan dituen ehiztari batek. Horrek egonezina eta arriskua sortzen zituen.

### DENON ADOSTASUNA

Ehiztari horrek gaineratzen duenez, "bi urte edo bi urte eta erdiko lana" izan zen alde guztiak bat egitea, baina azkenean 1987an egin zen Foru Aldundiaren ordenamendu-araua. Horren bidez, Gatzagako eremu edo babesleku bat sortu zen, eta "mendiaren gainerako zatia aprobetxatu zen ehiza-barruti bat egiteko", gogoratzen du gatzagar horrek.

Denon gustua egitea ezinezkoa da, baina horren gainetik egongo zen akordio bat egitea izan zen gakoa hemen ere. Iritzi kontrajarriak zeuden orduan eta daude orain ere, baina oraingoz, behintzat, horrelaxe jarraituko du Gatzagako ehiztatarako lursailak.



OBRAK &gt; E PLANAREKIN FINANTZATUTAKO OBRAK

# Santa Marinako obrak, justu; Aldaikoak, ondo

Oraingo astean semaforoa ipini dute Obenerrekara bidean, zirkulazioa txandakatzeko

Santa Marina auzoan hormigoizko estrukturak egiten dabilta, azpiegiturak sartuta daude-eta

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Santa Marina eraberritzeko obrak ezin izango dituzte bukatu urte amaierarako. Dagoeneko seguru esaten dute hori udal ordezkariak, atzeratuta dabilzailako. Epea bete ezean, baina, luza-pena eskatzeko aukera badago-eta ere azpimarratu dute.

Kontuak kontu eta atzeratuta ibili arren, lan handiak egin dituzte dagoeneko. Kale osoa altxatuta dago, azpiegitura guztiak lurpean sartu dituztelako: argindarra, ura, telefono haria eta abar. Orain, hormigoizko estrukturak egiten dabilta, gero kalea nibelatu ahal izateko.

SANTA MARINA LAUTU GURAN

Izan ere, Santa Marina bi mailatan dago; errepidea pasatzen da erditik eta, gorago eta beheago, espaloiak eta etxe eta bestelako-etarako sarbideak daude. Bada, dena nibelatu eta maila berean uzteko obrak egiten dabilta.

Ostean egingo dituzte irisgarritasuna bermatzeko obrak: espalo handiagoak, jarlekuak eta, besteak beste, berdeguneak.

ALDAIKO PARKEA, ITXURATUTA

Oso bestelakoa da, berriz, gobernu zentralaren E planarekin finantzatu duten Aldaiko parkearen obren egoera. Inguruak



Langileek Aldaiko parke berriko bidexketan lanean dihardute.

UBANE MADERA

badu parke itxura. Eta obra esandako eperako bukatuko dutela diote udal ordezkariak; hau da, urriaren amaierarako.

Gernika Oinezkoen Zumarditik ikusten da parkeak izango duen itxura: bidexkak eginda daude, eskailerak ipinita eta parkearen gunek banatuta.

SEMAFOROA, ZIRKULAZIORAKO

Bestalde, Obenerrekarako errepidean obretako semaforoa ipini dute astean, zirkulazioa txandakatzeko. Kontua da aldapa horretako ezker aldeko espaloiak handitu egin behar dituztela, eta astean hasi direla lan horiek egiten.

## oharrak

NORTASUN AGIRIAK

&gt; Txandak, BAZen

Abendura bitartean hiru txandatan etorriko dira Arrasatera nortasun agiriak egin edo berritzera: urriaren 27an eta 29an; azaroaren 24an eta 26an; eta abenduaren 10ean eta 18an. Txanda alde aurretik hartu beharra dago, BAZen, telefonoz (943 25 20 00) edo bertara joanda.

BASERRIA

&gt; Baserriarren azoka

Bihar, zapatua, baserriarren azoka egingo dute Seber Altuben. 09:00etatik 14:00ak arte izango dira honako baserrietako produktuak (Arrasate): Ikutixo, Askasibar, Enuzketa Aldekoa, Gorostiza, Aranguren, Bidasoro, Etxebarri eta Meatza.

Urretxutik, berriz, Aikur Erle Museoko ezti ekologikoa ekarriko dute eta Tolosatik, *Aldabazahar* baserriko ahuntz gazta eta bestelako produktu ekologikoak.

ODOL EMAILEAK

&gt; Irailean eta urrian

Odola ateratzera etorriko dira Arrasateko anbulatorioa irailaren 22an, 23an, 24an, 29an eta 30ean eta urriaren 1ean, 6an eta 8an. Anbulatorioan, 16:15etik 20:00ak arte.

**MEHER**

Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.

Bañez doktorea 1  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 63 85

**MUXIBAR**

Maritxutan ere eguerdian zabalik

Zatoz bazkaltzera!

Bizkaia etorbidea 1  
943 79 11 25

Anima zaitetz!

**biodan-a**

ikastarora

NON?  
ARRASATE YOGA ELHARTEAN ALTAMIRAN  
ZE ORDUTAN?  
19:30tik 21:30era ASTEAZKENERO

Informazioa: 679 441 229  
biodanzavitoria@gmail.com

## LORE GAZTEA dantzari taldearen aldeko BERTAKO HARAGI GISATUAREN 1. TXAPELKETA

Arrasateko Enparantza Nagusian  
zapatua, 2009 - 09 - 19  
arratsaldeko 7etan

## Antolatzaileak

Agirre-Etxe Harategia  
Zarugalde, 33

Kajoi Edaritegia  
Erdiko kale, 20

J.Elorza Harategia  
Juan Bengoa, 1

Gorka Harategia  
Merkatua, 15. postua

J.R.Otamendi Harategia  
Olarate, 13-B



Berme osoko okela



OMENALDIA > EL SALVADORKO GERRA

## Pakito Arriaran omenduko du Arrasateko herriak, erail zutela 25 urte betetzear direla

Irailaren 26a izango da omenaldiaren egun handia; herri bazkaria, omenaldi ekitaldia eta kontzertuak egingo dituzte, besteak beste

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

*Bi herri eta borroka bakarra.* Esaldi horrek pisu handia izan zuen Pakito Arriaran gudari arrasatearraren bizitzan. Euskal Herriaren eta El Salvadorren alde bizitza eman zuen Arrasateko borrokalaria erail zutela 25 urte beteko dira aurten. Hala, *El Salvador bihotzean* taldeak egingo dion omenaldiak kutsu berezia hartuko du oraingoan.

EL SALVADOR EZ ZEN ERBESTEA

1984ko irailaren 30ean, Farabundo Martí Askapenerako Indarrak -FMLN- gerrillarekin El Salvador gerran borrokatzen ari zela atzeman zuen El Salvadorko armadak Arriaran, eta gorputza tiroz josi zion. Jaioteritik oso urrun hil zen arrasatearra, baina ezin esan erbestean hil zenik, Arrasate eta Euskal Herria bes-



Irudian, Pakito Arriaranen ama, iaz egin zioten omenaldian.

GOIENKARIA

te maite baitzuen El Salvador. Amerikara joan aurretik ETAKo kide izan zen, eta poliziatik ihesi joan El Salvadorrera. Han internazionalismo aktiboarekin konprometitu zen eta El Salvador gerra zibilean FMLN gerrillan borrokatu zen. Azken muturreraino eroan zuen bere borroka.

EKITALDIZ JOSITAKO OMENALDIA

Pakito Arriaranez gain, Begoña Gartzia eta Marta Gonzalez euskaldunak ere omenduko dituzte,

El Salvadorren eraildako beste bi emakume internazionalista. Omenaldiaren egun handia irailaren 26a izango da: herri bazkaria, omenaldi ekitaldia eta kontzertuak antolatu dituzte. Bazkaria Uarkapen izango da eta txartelak Irati tabernan daude salgai -ikasle eta langabeek 10 euro eta langileek, 20 euro.

Gainera, hilaren 24an, El Salvadorren egondako brigadista batzuek ikus-entzunezko hitzaldia egingo dute Kulturaten (19:00).

KOMUNIKABIDEAK > ITXUNGI IRRATIA

## Itxungi irratiaren aldeko musika jaialdia asteburuan

J.B. > ARRASATE

Gaztetxeke Itxungi irrati librearen aldeko Itxungi Rock jaialdia izango da aste bukaeran gaztetxean. Itxungi irrati Arrasateko gazte talde batek sortu zuen, eta diotenez, "herriak gura duena esateko sortua" da. Eta hauxe gaineratu dute: "Betiko gauzeekin asperuta gaudenez, komunikabide zabal eta ezberdin bat sortzea" erabaki dute: "gure gauzak esan ahal izateko", finean.

BEDERATZI TALDE GAZTETXEAN

Gaur eta bihar, musika oldarkorrek ez du etenik izango. Izan ere, bederatzi musika talde pasako dira gaztetxeke agertokitik. Oro har, punk-rock eta oi! doinuak izango dira nagusi. Hauek dira taldeak: gaur, Disorders, Material Rechazado, No hay Solucion eta Plan B; eta bihar, Klinesa ta Kaka Arrastua Komunzuluan, Friday's Crew, Johnny Gerriwelt, Aggressive Combat eta Last Strenght.

> INGURUMENA

**Aste bukaera ekitaldiz lepo, Mugikortasun Astearen barruan**

Gaur, Iñaki Mataren *Barreras* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da; irisgarritasun arazok era komikoan azaleratuko ditu Matak. Bihar, berriz, Mugikortasun Asteke egun handiena izango da: Birzikleta Azoka, segwaya erabiltzeko aukera eta emisio txikiko ibilgailuen gaineko erakusketa izango dira, besteak beste. Domekan, azkenik, bizikleta bira egingo dute, Arrasatetik Eskoriatzara.

> HEZIKETA

**Guraso eskoletan izena emateko azken eguna irailaren 25a izango da**

0 eta 16 urte arteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta guraso eskolak antolatu ditu Udalak beste urtebetez. Urri hasieran hasiko dira, astean ordu eta erdiko saio bat eginez -guztira zortzi saio-. Gehiengoak aukeratuko du eskolak goizez ala arratsaldez izango diren. 943 25 20 07 telefonora deitu behar da izena emateko, irailaren 25a baino lehen. Ikastaroak Kulturaten izango dira.

Zatoz **triLINGUA** Komunitatera!


Goazen **hiru hizkuntzatan** bizi eta komunikatzen den komunitatera!  
Goazen **Prestatuenen komunitatera!**



Zatoz **MONDRAGON LINGUAra!**



**LINGUA**  
Komunitatea



Ander  
triLINGUA da

join us!  
únete!  
zatoz!

MONDRAGON LINGUA **metodoa**

Gure metodoak urteetako esperientziaren bermea du. Eraginkorrena da, ikasteko hiru bide optimizatzen baititu:

- Informatikako azken teknologiak.
- Klase presentzialak.
- Jarraipen pertsonalizatua.

**Cambridgeko azterketak**

azterketak gure zentroan bertan egiten dira. Prestatzeko klase bereziak Junior mailako ikasleentzat.

**Balio erantsiko** zerbitzuak

- **Antzezlari** interaktibo eta atseginak.
- **Linguamailak.** Ikaskuntza-pilulak ikaslearen posta elektronikoan.
- **Extranet: bertako edukietara on-line sarbidearekin.** Jarduerak, ariketak, intereseko estekak, bideoak, albisteak, hiztegiak, irakurketa, gaurkotatzen eta askoz gehiago.
- **"6 o'clock tea"** play school-eko haurrentzat.
- **Talde txikiak.**
- **Mediateka.** Mota guztietako materialak daude ikasleen esku: multimedia, bideoak, liburuak, entzuteko zintak, aldizkariak, etab.
- Eta, gainera, ditugun **lankidetzak akordio guztien** onurak dituzu: Arizmendi, Ser katea, FNAC, BOS, ARTIUM, Donostiako Orfeoa...

eta gainera...

- **Haurrentzako udalekuak**
- **Udako ikastaroak atzerrian**
- **Ikastaro trinkoak** uztailan eta irailan
- **Hitz egiteko** klaseak
- **Larunbatetan** klaseak
- **Skype bidezko** klaseak
- **Murgiltze klaseak** helduentzat
- **Itzulpen zerbitzua**



MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ikaslea baldin bazara, **%25a arteko deskontua** izango duzu klase presentzialetan.



[www.mondragonlingua.com](http://www.mondragonlingua.com)

ARRASATE-MONDRAGON  
Avda. Alava, 4  
943 71 20 55



OÑATI-OÑATE  
Olakua, 14  
943 71 60 00



matrikula  
zabalik



&gt; ERAKUSKETA

**'Reuters: munduari begira' argazki erakusketa Kulturaten**

*Reuters: munduari begira* izenburuko erakusketa ikusgai dago Kulturateko klausuroan urriaren 18ra arte. Erakusketa horretan, Reuters agentzia ospetsuko argazkilarien irudiak biltzen dira: mundu zabaleko gatazkak, politikarien irudi bitxiak eta bestelako pertsonaien argazkiak. Testu txiki batez lagundutako 80 irudi dira, guztira. Erakusketa martitzenetik domekara 17:30etik 20:30era dago zabalik.

&gt; IKASTAROKAK

**Eskulan ikastaroa eta orratz lanena, Ekin elkartearekin**

Ekin Emakume Elkarteak eskulan ikastaroa eta orratz lanena antolatu ditu. Eskulan ikastaroa Bea Arregik emanango du, abenduaren 23ra bitartean, martitzenetan, 15:30etik 17:30era edo 18:00etatik 20:00etara; orratz lanen ikastaroa Asun Mendizabalen eskutik, abenduaren 17ra arte, eguenero, 15:00etatik 17:30era.

Izenematea eta argibideak Ekin elkartearen (943 79 83 70).



*Start restart undo* diskoa kaleratu du Anni B. Sweetek apirilean.

GOIENKARIA

MUSIKA &gt; 'KULTURATE AKUSTIKOA'

## Saioa eta Mursego gaur Kulturaten; bihar, Anni B. Sweet

Mursegok, Ana Arroitauregik, txeloarekin egingo du gaurko emanaldia

EDU MENDIBIL &gt; ARRASATE

Emakumeen txanda izango da oraingo asteburuan *Kulturate akustikoa* programazioaren barruan: batetik, Saioa bakarlarria eta Mursego ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza,

20:00etan; bihar, berriz, Anni B. Sweet izango da Kulturateko agertokian.

FOLK ETA POP DOINUAK

Saioa legorretarrak bi disko kaleratu ditu dagoeneko: *Particular*

*land* (2007) eta *Matrioska Heart* (Moonpalace records, 2008). AEBetako folk sustraiak sumatzen dira Saioaren abestietan, baina, adituen arabera, beste forma eta doinu batzuk ere antzematen dira. Kantu mingotsak, hunkigarriak dira, "tristeak eta, aldi berean, politak", Saioaren beraren hitzetan. Diskoko azken kantuetan doinu alaiagoak landu zituen Legorretako gitarrista eta abeslariak.

Mursego, berriz, Ana Arroitauregiren proiektua da. Folk eta popa uztartzen ditu, Portugal aldeko fadoarekiko miresmena ezkutatu barik. Txeloarekin lagunduta, itsaskorra eta labainkorra da Arroitauregiren proposamena, proposamen arriskutsua eta zorrotza. Gaur Kulturatera joaten direnek bertatik bertara frogatu ahal izango dute.

ANNI B. SWEET, ANDALUZIAITIK

Bihar, zapatua, Anni B. Sweetek egingo du emanaldia Kulturaten. Ana Lopez (Malaga, 1987) dugu Anni B. Sweet. *Myspace*-en abesti batzuk zintzilikatu zituenetik jarraitzaileak lortu ditu han eta hemen. Folk eta indie-pop kutsuko abesti gozoak ekarriko ditu Arrasatera. Ingelesez abesten du eta daukan ahots gardena da Anniren ezaugarrietako bat. *Start restart undo* diskoa kaleratu du apirilean.

Gaurko eta biharko emanaldiak ordu berean izango dira, 20:00etan, eta sarrera doanekoa izango da.



# ARRASATE MONDRAGON

## EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA 2009ko IRAILAREN 16tik - 22ra

ARRASATEKO UDALA  
Ayuntamiento de Mondragón

UDALSAREA

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE  
PLANINGITZA, NEKEZARITZA  
ETA ABANTZETA SAILADEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA.

## Egitaraua • Arrasate

EUROPAKO MUGIKORTASUN ASTEA  
2009KO IRAILAREN 16tik 22ra

## HIRIBUSA

Irailaren 16tik 22ra, hiri busean guztiz DOAN ibili ahal izango da.

\*\* Adin txikikoek autobusa erabili ahal izango dute bakarrik nagusi betengatik lagunduta badoaz edo ohiko eskolako bidaiak egiteko\*\* (aurreko urteetan sortutako arazoak gerta ez daitezzen)

## Irailak 18, Egubakoitza

**BARRERAS IKUSKIZUNA** -Herriko kaleetan zehar-  
19:00

## Irailak 19, Zapatua

**BIRZIKLETA AZOKA** - Bigarren eskuko bizikleta azoka -Seber Altube plaza-  
11:00 - 14:00 eta 17:00 - 19:30  
• Noiz eta nola batuko da materiala (\*)

**SEG WAY ZIRKUITOA** -Biteri plaza-  
11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00

**ERAKUSKETA - EMISIO TXIKIKO IBILGAILUAK** - "mugitzeko beste era bat" -Biteri plaza-  
11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00  
Auto hibrido, elektriko eta bioetanolaz dabilzanak, Motor elektrikoak, Paseoko bizikletak, Bizikleta tolesgarriak, Bizikleta elektrikoak, Segwayak ...

## Irailak 20, Domeka

**BIZIKLETA BIRA** - Arrasatetik Eskoriatzara (Torrebaso Industrialdea) bidegorritik.  
Irteera 11:00etan -Seber Altube plaza-

## Irailak 22, Martitena

**Mugikortasun eta irisgarritasun TAILERRAK** - Seber Altube plaza-  
17:00  
Irisgarritasuna lantzeko jarduerak eta oztopo ibilbidea

(\*) BIRZIKLETA azoka - Noiz eta nola batuko dugun materiala:

- **Zer batuko** dugu: Egoera onean dagoen edozein material. Edozelako bizikletak, mendikoak, paseokoak, errepidekoak, haurren bizikleta, triziklo, patin, patinete, kasko, belozimetro, gurpil, eskularruak, mailotak...
- **Noiz eta non batuko** dugun materiala: **Udal azokan**

Irailaren 12an, zapatua  
11:00 - 13:00

Irailaren 15an, martitena, eta irailaren 17an, eguena  
11:00 - 13:00 / 17:00 - 19:00

Salneurria jabeak jarriko dio. Saltzen ez den materiala jabeei itzuliko zaio



**SASKIBALOIA > OINTXE!**

# Urriaren 4an hasiko du MUK liga, Mikeldiren kontra

Bitartean, taldeak prestaketa lanetan jarraitzen du; Zaragozan egindako asteburua borobila izan da etxekoendako

**XABIER URTZELAI > ARRASATE**

Ointxe! saskibaloia klubeko talde guztiak denboraldi-aurrean dabilta buru-belarri lanean, eta joan den asteburuan Zaragozan egin duten egonaldiak lagundu du liga txapelketak prestatzeko beste pauso bat ematen.

Zaragozan Helios eta Olivar taldeen kontrako lagunarteko partiduak jokatu dituzte, eta, horrekin batera, bidaia balio izan du talde giroa sustatzeko. Egubakoitzean egin zuten bidaia, eta ilunkeran turismo apur bat egin ostean goiz erretiratu ziren, zapatuan goiz hasten ziren-eta hitzorduak.

Zapatuan Helioseko taldeak izan zituzten aurrean, eta Arrasateko taldeko ordezkariak lan ederra egin zuten, bai kadetetan (42-67 eta 37-44), bai gazte mailan



Zaragozatik lan ona eginda itzuli dira Ointxe!-koak.

OINTXE!

(43-47 eta 24-53) eta baita seniorretan ere. Lurrealde mailako seniorrek 36-40 irabazi zuten eta lehen nazional mailako taldea izan zen lehen egunean estropezu egin zuen bakarra, Zurbanoren mutilek 89-67 galdu zuten-eta Heliosen kontra.

**DOMEKAN, OLIVAR AURREAN**

Domekan ere lagunartekoekin jarraitu zuten, oraingoan Olivar taldekoen kontra. Eta hor, Zurbanoren jokalariek asteburua zuzentzea lortu zuten, Aragoiko lehenengo mailan jokatzeko duen Olivarri 53-60 irabazita.

**ATLETISMOA > ESPAINIAKO TXAPELKETA**

# Espainiako txapelketara Ruiz de Azua eta Gorroñoigoitia

Bidasoa taldea ordezkatzeko Arrasateko atletek lan ona egin zuten joan den asteburuan

**X.U. > ARRASATE**

Bidasoa taldea ordezkatzeko ibili ziren joan den astean Arrasate-Kanpanzar taldeko Izar Gorroñoigoitia eta Malen Ruiz de Azua, eta egindako lan onari esker urriaren 3an egingo duten Espainiako Txapelketan izango dira. Oraindik zehazteko dago lekua, baina seguruenik Zaragozan izango da. Izar Gorroñoigoitiak aparteko lana egin zuen, salto hirukoitzean lehenengo sailkatuz; 10,40 metroko marka egin zuen, eta bere marka pertsonala 13 zen-

timetrotan ondu zuen. Malen Ruiz de Azuak ez zuen bere salto onena egin pertikarekin, eta ala ere bigarren sailkatu zen (2,80 metro).

**ENTRENAMENDU SAIOAK**

Bestalde, esan beharra dago Arrasateko taldean hasi dituztela entrenamenduak: 10 eta 13 urte bitartekoak eguazten eta egubakoitzean (18:00etan hasita). Kadete mailatik aurrera, berriz, egunero elkartzen dira entrenatzeko; hori bai, ikasle-oren ordu libreterara moldatuta.

**> KIROL ELKARTEA**

## Arizmendi kirol elkarteak bost sail izango ditu aurten eta 240 ikasle inguru batuko ditu

Emakumezkoen futboleko 90 jokalaririk izango dituzte, lau taldetan banatuta. Gizonezkoetan, berriz, 40 gazte izango dituzte kadete eta gazte mailetan. Horrekin batera, UDArekin elkarlanean erreional talde bat ere izango dute. Saskibaloian, Eskoriatza kirol elkartearekin egingo dute lan emakumezkoen talde bat ateratzeko, baita Ointxe!-rekin ere Series Colegiales txapelketan parte hartzeko. Aretoko futboleko ere Eskoriatzarekin izango dute elkarlana, eta igeriketa eta squash sailak ere izango dituzte.

**Batzuetan, biderik laburrena da onena**

**...garena ikasteko!**

**ikasi euskara eman izena**

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

**aek-n**

[www.aek.org](http://www.aek.org)

• EUSKALDUNTZEKO MAILA GUZTIAK / ERRELEBOAK ERE BAI

• ALFABETATZEA 2 egun astean, batua eta euskalkiarekin jolasean.

• MINTZA TALDEA 2 egun astean, ahozkoa lantzeko

• 1. MAILA 2 egun astean

• 2. MAILA 2 egun astean

• 3. MAILA / EGA 2 egun astean

• 4. MAILA / 4. PERFILA 2 egun astean + proiektua+tutoretzak

• AUTOIKASKUNTZA PROGRAMA (ordu eta erdi mintza astero + 45 minutu tutoretza astero + etxerako lan pertsonalizatua)

**Matrikula zabalik irailaren 30era arte**

**MATRIKULATZEKO ORDUA:**

**Goizez 11etatik 1etara arratsaldez 6etatik 8etara Udalaren laguntzaz beka sistema**

ERDU AEK

Garibai etorbidea 14 3 ARRASATE

943 77 03 69 [arrasate@aek.org](mailto:arrasate@aek.org)





Pello Garitano.

URKAN

## OMENALDIA

## Pello Garitano omenduko dute

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Pello Garitano ezaguna omenduko dute urriaren 18an. Herriko koadrila batek antolatatu du Pello Eguna, eta ekitaldi xume eta,aldi berean, popularra egin nahi dute: "Azken baten, Pello den modukoa", esan dute. Gainera, uste dute "omendutakoa ondo dagoenean" egin behar direla halakoak, "egindako lana eskertzeko eta herriaren aurrean etsenplu gisa aurkezteko". Eta hau gehitu dute: "Pello moduko gutxi daude, edozein ekitaldi aurrera ateratzeko beti lanerako gertu".

Pello Garitano Mendibil 1939an jaiotakoa da eta beti saltsa askotan egon da murgilduta: kirolean (batez ere, Lokatza Ziklismo Eskolan), musikari (Musika Eskola, Arizeta edo Alai Taldea), gizarte elkarteetan (San Joxepe erretiratuen elkarte eta Mizpirualde egoitza), jaietan...

## OMENALDIKO EKITALDIAK

Urriaren 18an herri bazkaria izango da Udal Pilotalekuan eta txartelak 20 eurotan jarriko dituzte salgai datorren astean. 11:00etan, Alai Taldeak abestutako meza egongo da. Gero, dantzariak aureskua egingo diote eta 12:30ean Udal Musika Bandak egingo duen emanaldian piezaren bat ere eskainiko diote. Antolatzaileek dei egiten diete herritarrei omenaldiarekin bat egiteko.

JAIK &gt; SANMARTINAK

# Aterruneari esker, aurrera egin zuten danborradek

Udal arduradunek alternatibak erabakita zituzten arren, ohiko bidea egin ahal izan zuten

MONIKA BELASTEGI &gt; BERGARA

Eguazten gaueko suzko errube-ekin batera, nagusien eta umeen danborradek agurtu dituzte San Martin jaiak. Zalantzaz jantzitako amaiera izan da, gainera; izan ere, martitzen iluntzeko euriak eta eguazten arratsaldekoak zerura begira jarri zituen danborradetako kideak eta herritarrek, oro har.

Nagusien danborrada martitzen gauean izan zen eta, udal arduradunek esandako moduan, "badaezpadako bi plan" zituzten: euri pixka bat eginez gero, zuzenean plazara joan eta han San Martinen heriotza irudikatzea; euri asko eginez gero, Udal Pilotalekuan egitea danborrada, baina irudikatze barik. Azkenean, euriak tregoa eman zien eta danborradak ohiko bidea egin zuten herritarren txalo artean.

Konpainia berriak hartu du parte aurten, Gazte Taldeak, eta estreinatu barik geratuko ote ziren beldur zirela aitortu dute:

"Beldur ginen aterako ez ginela pentsatuta, baina azkenean egin genuen danborrada eta oso pozik gaude", esan du Maitane Arteagak: "Motza egin zitzaigun", gehitu du. Hasieran urduri zeudela aitortu du, "herritar asko" joaten da eta danborrada ikustera, "baina hasierako urduritasunaren ondoren, oso polita eta entrete-nigarria egin zitzaigun".

Talde Gaztea 16 eta 17 urteko 30 gaztek osatzen dute. Hiru izan ezik guztiak neskak dira. Hala, mutilei gonbita egite diete datorren urtean eurekin bat egiteko. Izan ere, datorren urtean jarraitzeko gogoz daude eta jantzi aproposagoa ere egin nahiko lukete.

## UMEEEN DANBORRADA

Txikitxoek danborradak ere primeran egin zuten ibilbidea, eguazten arratsaldean. Tantarik ez zuten egin eta umeez pozik jo zuten danborra kaleetan barrena. Amaieran, Zuloak egindako txokolata jan zuten plazan.



Talde Gazteak lehenengoz hartu du parte nagusien danborradan.

MIGURA



Txikienek ere doinuak ondo ikasi dituztela erakutsi zuten eguaztenean.

M.B.

### Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitetz TB digitalera.

**TRINMER 20 urte antenetan**  
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305  
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR  
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60  
[antenas@trinmer.com](mailto:antenas@trinmer.com) | [www.trinmer.com](http://www.trinmer.com)

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## TELEIXA BILTEGIAK

**Eraikuntza materialak**

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tel.: 943 76 27 93

**INPRIMATEGIA GARBIL**  
**PAPERDENDA**

943 76 23 28  
943 76 54 87  
[imprentagarbil@eurkalnet.net](mailto:imprentagarbil@eurkalnet.net)  
Artzamendi, 4  
20570 Bergara Gipuzkoa

**%10eko deskontua iragarki hau aurkeztuz gero**



KULTURA > POL-POL ARGAZKI LEHIAKETA

# Gaur jasoko dute saria argazkilariek

Zuri-beltzeko lehen saria izan da Javier Fernandezdako; koloretakoa, Juan Gilendako

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Pol-Pol argazki lehiaketako irabazleek gaur jasoko dute saria, 20:00etan Aroztegin egingo duten ekitaldian. Zuri-beltzean lehen saria jasoko du Berangoko Javier Fernandezek, *Luchadores 2* lanarengatik; bigarrena, Josu Garai legazpiarrak, *Korosti* lanagatik; eta hirugarrena, Benito Cantero bergararrak, *Igeriketan* lanagatik. Herriko saria, berriz, Juan Antonio Untzurrunzagarendako izan da, *Levantando* lanagatik.

Koloretako sariei dagokienez, lehena jaso du Legazpiko Juan Gilek, *Somo* lanagatik; bigarrena, Jose Agustin Gurrutxaga bergararrak, *Txalupa* lanagatik; eta hirugarrena Berangoko Javier Fernandezek eroan du, *Caballos en la playa* lanagatik. Herriko saria Benito Cantero-rendako izan da, *Ala delta Dolomititan* lanagatik.

Lehiaketaren XIX. aldian izan da eta 170 lan jaso dituzte: 95 koloretan eta 75 zuri-beltzean.



Agustin Untzurrunzagaren *Levantando* lanak jaso du herriko saria.

## ERAKUSKETA AROZTEGIN

Lehiaketan parte hartutako lanetako 44 ikusgai jarri dituzte Aroztegi aretoan.

Gaur hasi eta hilaren 27ra arte egongo dira ikusgai zuri-beltzeko eta koloretako argazkiok, aretoaren ohiko ordutegian.

bere ustez



Aitziber Azkondo

## Bergara 'Herri Bildu'

**G**aztelako errege zen Alfonso X.ak Bergara *Herri Zabal* zena *Herri Bildu* bihurtu zuen 1268. urteko uztailearen 30ean. Batzuek, hala ere, Bergara erregeak orduan sortutakoa dela diote.

41 urte dira Bergara Herri Bildu bihurtu zelako 700. urteurrena ospatu zela. Urte hartan, M. Lekuonak Bergaran hitzaldia eman zuen: "Bergara ez da inongo Erregek sortua. Millaka urte lehendik bazan Erri, Erri Zabal, baina Erri, bego ori, ondo-ondo oinarriturik guztion gogoan". Herri Zabala, baserri eta mendiko

**"41 urte dira Bergara Herri Bildu bihurtu zelako 700. urteurrena ospatu zela"**

bizitzarekin zer ikusia zuena zen, eta "Herri Zabal horren erdi-erdian (Ariznoan), Herri Bildu bat egin zuen, horixe izan zan guztia". Herri Bildu izateko forua jaso, eta eliza inguruan plaza eta kaleak egin zituzten, ondorioz merkataritzagune bihurtuz. Motzean, horixe da gaurko Villa de Bergara izendapenaren nondik norakoa. Interesak medio (ekonomikoak, politikoak eta mendi artean izanik, herriaren bizitza baketsuaren babes eta denfentsarako baliagarria zelako) *herri bildu* sortzeko prozesuaren baitan sartu zuen erregeak. Hala ere, eta Manuel Lekuonak esandakoari eutsiz, "12.000 urte baino gehiago darabagu euskaldunak gure lur hauetan, eta euskaldunak baziren, bergararrak ere orduko baziren".

txaloak eta txistuak

## Trasteak aste osoan jasotzeke

Artekaleko bizilagunen kexa jaso dugu. Herritar batek traste zaharrak dagokion egunean atera ez, eta aste osoan Erromagalartza zeharbidean jasotzeke egon direlako kexatu dira. Udalera ere helarazi zuten kexa, baina traste zaharrak batzeko zerbitzua Mankomunitatearen ardura dela erantzun zieten esan dute auzotarrek.



MONIKA BELASTEGI

**DRAGON ORIENTAL**  
*Jate txetxea*

**Etxera eramaten dugu**  
Edaria, postrea eta tabakoa eramaten dugu

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €  
Inguruetara + 2 €

☎ **943 25 06 77**  
Fraiskozi plaza 7 (Frontoi parean)  
**BERGARA**

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

## BOLU SUKALDEAK



Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02 • [bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) • <http://goiena.net/blogak/bolusukaldeak>



DANTZA &gt; 25. MOISES AZPIAZU TXAPELKETA

# Moises Azpiazu txapelketak zilarrezko ezteiak bete ditu

Hamar bikote izango dira lehian gaur Udal Pilotalekuan, 19:30etik aurrera

Aitzol Ena eta Maite Lazkano bikote bergararra, txapelketa irabazteko faboritoen artean

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Dagoeneko 25. ekitaldira iritsi da Moises Azpiazu dantza irakaslearen izena daraman txapelketa. Gaur, egubakoitza, hamar bikote lehiatuko dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean hasita.

Bizkaitik hiru bikote etorriko dira eta beste zazpiak gipuzkoarrak izango dira. Faboritoen artean Aitzol Ena eta Maite Lazkano izango ditugu. Lazkanok hainbat aldiz irabazita dauka

txapelketa Aitzolen anaiarekin, Asierrekin. Aitzolekin ere primeran moldatzen dela erakutsi du; besteak beste, Donostian, Zarautzen eta Estibalizen, Gasteizen, nagusitu dira aurtan.

**BASETA-IGARTUA, KANPOAN**

Ibane Basetak eta Mikel Igarauak ere emaitza bikainak lortu dituzte. Elgoibar, Azkoitia eta Sorraluzeko txapelak jantzi dituzte, baina ezin izango dute parte



Ezkerretik eskumara: Arkaitz Arana, Arantzazu Iñarra, Amaia Agirre, Aitzol Ena, Joxu, Arana, Nekane Gabilondo, Ibon Gabilondo, Olatz Gabilondo, Moises Azpiazu irakaslea, Josu Iñarra, Ibon Mujika eta Lierni Gabilondo. Argazkia, Serafin Esnaolak atera zuen Trintxerpen, Gipuzkoako Gazteen Dantza Txapelketan, 1981 aldera. UDAL ARTXIBOA - M.A. ELKOROBEREZIBAR FONDOA

hartu gaur, Mikel Belgikara joan delako ikastera.

Aritz Arrillaga eta Amaia Bolinaga izango da Bergarako beste bikotea gaurko saioan. Maila txukuna erakutsi dute.

Esan bezala, zilarrezko ezteiak betetzen du txapelketak, baina antolatzaileek ez dute ekitaldi berezirik aurreikusit. Sarre-ra doan izango da. Estanga anai-arrabek soinu eta trikitiarekin alaituko dute saioa.

## Euskadiko txapelketari begira

Maila handiko dantzariak izango ditugu gaur Bergaran. Euskadiko txapeldunak, Eneko Gil eta Maria Vesga, ez dira Udal Pilotalekura etorriko, Eneko Gil Kukai dantza taldearekin diharduelako azken hilabeteotan. Dena den, urriko Euskadiko txapelketari begira saio aproposa bihurtu da Bergarako hitzordua. Orain arte sanjuanetan jokatu izan da Euskadiko txapelketa Seguran, baina aurtengo ekitaldia urriaren 11n izango da. Gauzak horrela, norberaren zein aurkarien maila neurtzeko aproposa da Moises Azpiazuren omenezko txapelketa. Gaurko irabazleek *boleto* asko irabaziko dituzte Segurara begira.



MOISES AZPIAZU dantza taldea

BERGARA

## 2009-2010 DANTZA IKASTURTEA urriaren 5ean hasiko da

**GURASO BILERAK**

- 5 eta 6 urteko umeen gurasoak: irailaren 28an 18:45ean.
- 7, 8 eta 9 urteko umeen gurasoak: irailaren 29an 17:45ean.
- 9 urtetik aurrerako umeen gurasoak: irailaren 29an 18:45ean.

Bilerak Aranzadi Ikastolako psikomotrizitate gelan izango dira.



# IRAILAK 26 II. IKASTOLA EGUNA



jokoak



puzgarriak

Aranzadizalea  
bazara...



## ARANZADI

*ikastola*

Kalitatezko  
Euskal Heziketa



txorizo  
eta salda

bazkaria

...zatoz gurekin  
ondo pasatzera!!!



ibilaldia

erromeria

Irailak 26: II. IKASTOLA EGUNA Aranzadin

Urriak 4: **Kilometroak** Donostian

Urriak 18: **Nafarroa Oinez** Etxarri-Aranatzen

**Bazkarirako izen ematea:** Aranzadi Ikastolan irailaren 10etik 22 arte

San Martin Plaza 4 • 20570 BERGARA

Tel. 943 76 90 71 • [bergara@ikastola.net](mailto:bergara@ikastola.net) • [www.aranzadiikastola.org](http://www.aranzadiikastola.org)



LANAK &gt; MITARTE KALEA

# Azaroarekin batera bukatuko dituzte lanak

Hodidak aldatzerakoan ezustekoren bat edo beste izan dute, baina bukaera epea bete egingo dute

Espaloiak eta errepidea maila berean egongo dira eta ez du aparkalekurik izango

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETAKO

Gutziz itxi dute Mitarte kalea asteon automobilendako, eta oinezkoak pasatzeko ere ez dago batere samur. Izan ere, lanak aurrera doaz eta orain Araba ibilbiderantz ematen duen zati-hodidak aldatzen dabilta. Bien bitartean, Eroski supermerkatu aurrekoak bukatu dituzte eta dagoeneko hasita daude galtzadaren harrira jartzen.

Udaleko Hirigintza Saileko arduradunen esanetan, hitzartutako epeak betetzen dabilta Amaral enpresako langileak, eta, ondo bidean, azaroko azken aste-rako bukatuko dute –sei hilabete-ko lanak dira. Hala ere, argitu digute beti izaten dela ezustekoren bat halako lanetan: "Instalazio zaharrak eta hodi berriak bateratu behar dira askotan, eta horrek arazoak sor ditzake".



Mitarte kalea, zabaldua hodiak aldatzeko.

M.A.

OTALORA KALEAREN ITXURA

Lanak bukatutakoan, Otalora kalearen itxura hartuko du Mitartek. Hau da, zorua, farolak eta eserlekuak berdinak izango dira bietan. Gainera, maila berean geratuko da kalea, igo beharreko espaloi barik. Kalearen alde bat bestea baino altuago dago eta, ondorioz, malda izango du, baina oso leuna, %6 baino txikiagoa.

Lehen legez, noranzko bakarreko kalea izango da eta bi aldeetan oinezkoendako espaloi zabalak izango ditu, errepidearen maila berean. Oinezkoendako pasabidearen eta autoendako bidearen artean granito harrizko zutabetxoak jarriko dituzte, Durana kalean dauden modukoak. Automobilerik ez ditzate aparkatzen, baina zama-lanak egin ahal izango dira.

INGURUMENA

## Udalak bat egingo du bizikleta martxarekin

Eskoriatzatik Arrasatera joango da martxa domeka goizean

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Mugikortasun Astea ospatzen dabilta Eskoriatzan, eta bizikleta martxa antolatu dute domeka goizerako (10:00). Eskoriatzatik Arrasatera joango dira, eta Aretxabaletako Ingurumen Sailak bat egin du martxa horrekin. Hori horrela, aretxabaletarrak ere parte har dezaten dei egin du Udalak.

Iturri gorri pilotaleku albotik pasatuko da martxa (10:20) eta aretxabaletarrek bertan egon beharko dute zain. Arrasatera ailegatutakoan berriro Eskoriatzara buelta egingo dute eta martxari bukaera emateko hamarretakoa eskainiko dute Torrebasoan. Antolatzailerik jakinarazi dute kaskoa derrigorrez erroan behar dela.

Lan egiten duzun bitartean **KARROZERIA** titulu ofiziala ateratzea nahi duzu?

Nahiko duzu 18 urte izatea eta honako ikasketaren bat gaindituta izatea

2.BBB  
LH1  
2.IEE  
DBH titulua

**ALE**  
ARETXABALETAKO  
Lanbide Eskola

Ge. ir. zikloko Lanbide Heziketarako Berriakoko Institutua

Etor zaitez Aretxabaletako Lanbide Eskolara eta informatu

Matrikulazioak irailaren 25erarte

Etxebarri auzoa z/g  
20550 ARETXABALETAKO (Gipuzkoa)  
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43  
webgunea: [www.iaaretxabaleta.com](http://www.iaaretxabaleta.com)  
e-posta: [ia@iaaretxabaleta.com](mailto:ia@iaaretxabaleta.com)

AISIALDIA &gt; LUDOTEKA

## Ludoteka ezagutzeko aukera dute umeei eta gurasoei

Hainbat jarduerak egingo dituzte astelehenean bitartean egunera bitartean

M.A. &gt; ARETXABALETAKO

Ate irekiak egingo dituzte Algara ludotekaren datoren astean, astelehenean egunera bitartean. Egotea bera eta antolatzen dituzten ekintzak ezagutaraztea dute helburu ate irekiei, bai ume eta gazte-txoen artean, bai gurasoen artean.

BI TXANDATAN BANATUTA

Ume guztiak elkarrekin egon ez daitezten bi txanda egin dituzte egun bakoitzerako: lehen txandan (17:30-18:30) txikiak sartuko dira eta bigarren txandan (18:30-20:00) dagoeneko ezagutzen dutenak. Bigarren txanda horretan sartuko dira egunero 7 eta 12 urte artekoak.

Astelehenean, hilak 21, 2005ean jaiotakoak egongo dira lehen txandan eta papera erabilita egingo dute jolas –papiroflexia. Martitzenean, 2004an eta 2003an jaiotakoak elkartzeko dira eskulantxoak egiteko. Eguaztenean, 2006an jaiotakoak mahai jolasetan jardungo



Iaz egindako ate irekiak Algara ludotekan.

M.A.

dute. Eta egunero, hilak 24, 2003an, 2004an eta 2005ean jaiotakoak maskarak egingo dituzte.

Bigarren txandakoak ere izango dute zeregina egunotan: marrazkiak, mahai jolasak, eskulanak eta karaoketa.

IZENEMATE EPEA, ZABALTZEAR

Ate irekiekin batera izenemate epea zabalduko dute. Ludotekaren gaineko argibideak jaso dituzte eskuorri batean eta orritxo hori beteta erroan behar dute matrikulatu gura dutenek.



TXAPELKETA > SASKIBALOIA

## Hiruko saskibaloia txapelketa bihar herriko plazan

Arizmendi Kirol Elkartek antolatuko du eta 8 urtetik gorako gazteek jardungo dute

M.A. > ARETXABALETA

Arizmendi Kirol Elkartek hiruko saskibaloia txapelketa egingo du bihar, hilak 19, herriko plazan. Zortzi urtetik gorako neska-mutiko guztiek har dezakete parte, baita beterranoek ere.

GAZTEAK ETA HELDUAK

Herria girotu beste helbururik ez du saskibaloia txapelketak eta, horretarako, kirola eta gazteak elkartzea pentsatu dute Arizmendiko kideek. Udalaren eta Orly tabernaren laguntza jaso du ekimen horretan, baita Artano eta Paulaner taber-

rena ere. Gorka Gabilondo aretxabaletarra ibili da izenak jasotzen -Arkupe kultura etxean eta Orly tabernan ere bai- eta esan digu uste baino lan nekezagoa izan dela gazteak animatzea: "Koadrilaz koadrila ibili naiz iragartzen eta benetan interes txikia azaldu dute gehienek". Gazteek ez ezik, helduek eta beterranoek ere har dezakete parte.

LAU PISTA HERRIKO PLAZAN

Bihar, 10:00ak inguruan hasiko dute txapelketa. Lau pista gertatuko dituzte plazan eta musika lagun dutela jokatu dituzte partiduak. Ligaxka erara izango da txapelketa eta goiz partean gazteen partiduak izango dira. Arratsaldea, ostera, nagusienendako utziko dute, baita adin tarteko bakoitzari dagozkion finalak jokatzeko eta hiru puntuko saskiratzeak egiteko ere.

> IKASTAROA

### Trantze egoeran murgiltzeko perkusio ikastaroa eta dantza eskolak Jaikiren eskutik, udazkenean

Nick Twilley irakasleak trantze egoeran sartzeko perkusio ikastaroa egingo du. Urriaren 13an, 14an eta 15ean izango da (18:30-21:30) kuartel zaharrean -prezioa 40 euro-. Interesatuak dei egin diezaiotela Pacori: 618 04 67 43.

Dantza ikastaroa ere antolatu du Jaiki elkarteak; funk, afrotribala eta dantza karibearrak irakatsiko dituzte. Eskolak martitzenetan dira, urriaren hasita (19:30-21:00). Prezioa 35 euro da hiru hilabetea. Izena emateko idatzi helbide honetara iraila bukatu aurretik: [jaikielkarte@yahoo.es](mailto:jaikielkarte@yahoo.es).

## oharrak

MUSIKA

> Miren Fernandez kontzertuan

Kontzertua eskainiko du Miren Fernandezek bihar Arkupen (22:00). Prezioa: 8 euro.

IKUSKIZUNA

> 'Baso sorgindua' umeendako txotxongilo emanaldia

Patata Tropikal taldeak Baso sorgindua ikuskizuna eskainiko die umei etzi, domeka, Arkupen (17:00). Prezioa: 3 euro.

ERRETIRATUAK

> Abesbatzaren entsegua

Basotxo erretiratuen elkarteak sortu duen abesbatzak entsegua egingo du irailaren 23an Basotxon (18:00).

IKASTAROA

> Iritzi artikulua idazten

Karmele Igartuak iritzi artikulua zelan idatzi erakutsiko du urriaren 21etik abenduaren 9ra. Izenemate epea zabalik dago Arkupen. Prezioa: 15 euro.

XAKEA > DENBORALDI HASIERA

## Hasi du denboraldia xake taldeak, eskolak antolatuta

Euskal Ligako ohorezko mailan jokatuko du aurten Arlutz xake taldeak, iaz mailaz igo osten

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Arlutz xake taldeak astelehenean, hilak 21, zabalduko ditu lokaleko ateak xakean jokatu gura duenarendako. Irabalbarri plazan du egoitza.

XAKEA EZAGUTARAZTEA

Arlutz xake taldeko kide Aitor Alcaidek emango ditu xake eskolak astelehenero (18:00-20:00). Eta hark azaldu digu eskolak norendako izango diren: "Edonor etor daiteke jolastera edo ikastera, baina gomendatzen dugu 8 urtetik gorakoak izatea".

Gazteen artean xakea ezagutaraztea eta bultzatzea du helburu Alcaidek. Hala, Arlutzen eta Arrasateko San Andres elkartearen artean taldeak sortu zuten orain dela hilabete batzuk eta Kutxa Txapelketan parte hartu -argazkian. Ildo beretik, hirugarren aldiz antolatu dute San Migel



Kutxa txapelketa jokatzen, Aretxabaletako hainbat gazte.

ARLUTZ XAKE TALDEA

jaietan xake txapelketa. 16 urtez azpiko gaztetxoendako da eta domekan, hilak 27, jokatuko dute, herriko plazan (16:00).

HELBURUA, MAILARI EUSTEA

Eskolak ematen bakarrik ez, entrenamendu saioekin ere badabilta Arlutzeko kideak. Izan ere, aurten berriro egongo dira Euskal Ligako ohorezko mailan, iaz

mailaz igo osten. Udazkenean hasiko dute liga eta Alcaidek azaldu digu zein den taldearen helburua: "Urtero moduan, goreneko mailatik ez jaista izango da, baina badakigu urtetik urtera gero eta zailagoa dela". Horrez gain, Arrasateko Nazioarteko Txapelketa irekian izango dira urriaren 9tik aurrera, eta Gipuzkoako txapelketan ere bai.



JULEN ABASOLO

## Jolas asko eta txapeldun ugari Areantzan

Joan den aste bukaeran ospatu zituzten Agorreko Andramaixak Areantzan. Honela laburtu dizkigute jaiak auzokideek: "Jinkana probaren 25. urteurrena izan da, baita aparteko proba jokatu ere: 27 partaide norgehiagokan. Eta laranja kolorea nagusitu zen (argazkian). Juan Jesusek bota du, aurten ere, txapela urrutien eta Danelen hegazkina ibili da hegan luzaroen. Horregatik, hura jaitzi zen Kurtzebarritik bi laguneko parapentean. Maialen, ostera, aro sartze txapelketan nagusitu da".



**DESKONTU BEREZIAK**  
AUTO, ETXEBIZITZA ETA BIZITZA  
ASEGURUETAN

INFORMA ZAITEZ!

Errekararren 3 ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: [angelzubi@euskalnet.net](mailto:angelzubi@euskalnet.net)

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Jou Diaz  
Harakina

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA







■ FISIOTERAPIA

# Fisioterapia egiteko aukera, norberaren premien arabera

LEIRE KORTABARRIA

**B**ergaran, Ibargaraiko Felsinee zentroan, fisioterapia eta gorputzarendako hainbat terapia mota jasotzeko aukera dago, eta nork bere beharrei egokitutako hainbat ikastaro eskaintzen hasiko da hango arduradun Saioa Etxabarri fisioterapeuta. Harekin izan gara.

Fisioterapia arloaren barruan, denetariko prestakuntza jaso du Saioa Etxabarri bergararrak, eta, horren bidetik, oso terapia sesio bariatuak martxan jarriko ditu udazkenean. Hainbat premia edo arazori erantzuteko dira.

Adibidez, erditze aurreko eta erditze osteko ikastaroak emanago ditu. "Erditze aurreko ikastaroa haurdunaldiaren 32. astean has daiteke, eta normalean bi hilabetekoa da. Erditzea ondo joan dadin, erlaxatzen, arnasa hartzen, pujak egiten... ikasiko dute; eta, prebentzio moduan, zoru pelbikoa indartzen ere bai. Bikotekidearekin eskola bat ere egingo dugu: dilataziorako biondako postura ezberdinak, emakumeari masajeak nola eman... ikusiko dugu hor. Erditze osteko ikastaroan, batez ere zoru pelbikoa, abdominalak... indartuko dituzte, aurrerantzean jaitsi ohi diren organoak ere bere lekuan mantenduz". Emakume horiek aholku batzuk jarraitu beharko lituzkete: "Egunero bi ordu oinez ibiltzea, medikuak kontrakoa agindu ezean; ura edatea; eta



Saioa Etxabarri, erditze aurreko ariketekin laguntzen bi emakumeri.

FELSINEE

larregiko pisurik ez hartzea", gomendatzen du Saioak.

Ikastaro horietan, Saioa Etxabarri aseguru etxeekin ere lan egiten du.

**Erditze aurreko eta osteko ariketak erakutsiko ditu Saioa Etxabarri**

#### ARIKETA PERTSONALIZATUAK

Jende askok gorputzeko atal ezberdinetan minak sarritan izaten ditu, eta askotan min berberak errepikatzen dira. "Tratamendu onena prebentzioa da, kalitate onarekin bizi izateko osasuna zaintzea, mina agertu arte itxaron beharrean. Eguneroko bizitzan posturak zaindu eta, behar izanez gero, bakarkako tratamendu edo taldeko tratamenduetan parte hartu beharko litzateke", azaltzen du fisioterapeutak.

Hortaz, gorputz osoa kontuan hartuta, fisioterapiako hainbat teknikarekin egindako ariketa askoz osatuta egongo dira Saioa Etxabarri emango dituen ikas-

**Tekarterapia teknikarekin, errehabilitazioa has daiteke min hartu eta berehala**

taroak; norberaren posturari, osotasunean, berme handia emanez. Bezero ez direnak ikastaroaren aurretik aztertuko ditu Etxabarri, taldeko lana izan arren bezero bakoitzari komeni zaizkion ariketak erakutsiko baitie.

Bizkarreko zein jarrerak eragindako minak dituztenei, Etxabarri hau aholkatzen die: "Norberaren gorputzeko gune ahulena zein den jakitea eta hori berori zaintzea. Eta kirolari dagokionez, igeriketa, bizikletan ibiltzea... bakoitzak egokiena aukeratzea: kirola ez da beti osasuna!".

#### GORPUTZEKO EDOZEIN ATAL OSATZEKO

Fisioterapia teknika berri bat ere ematen du Saioa Etxabarri: tekarterapia. Italiatik datorren teknika horren bidez, ohiko fisioterapiak behar dituen epeak laburtu egiten dira, eta denetarik arazoak hobetzeko balio du: tendinitisa, lunbalgia, zerbikalgia, ziatika, artrosia, bihurrituak, faszitisak... Makina batekin eta eskuak ere aplikatuz, eremu magnetikoa sortzen da eta min hartutako muskulua, tendoia, ligamendua... tratatzen da. "Gorputzeko edozein atal tratatzeko balio du tekarterapiak; garrantzitsuena helburu argia edukitzea da, gaitz bakoitzari dagokion moduan aplikatzeko teknika, tekarterapia ez delako makina soila", dio Saioa Etxabarri. Abantailen artean dago berehala has daitekeela osatzen handituta dagoen gorputzeko atala, handituta dagoen atala jaitsi arte itxaron behar izan barik.



Felsinee  
www.felsinee.net

WEB ORRIALDE BERRIA LASTER MARTXAN!

FISIOTERAPIA eta ERREABILITAZIOA - TECARTERAPIA  
FISIOTERAPIA OBSTETRIKOA - ERREABILITAZIO UROGINEKOLOGIKOA  
R.P.G. - PODOLOGIA - ELIKADURA eta DIETETIKA

IBARGARAI ETORBIDEA 17, BEHEA - 20570 BERGARA (GIPUZKOA) - Tel.: 943 53 44 53







Luis Javier Martinez podologo kontsultan lanean, joan den martitzenean.

E.M.

## ■ PODOLOGIA

# Papilomak, oinazpian azaltzen diren lesioak

EDU MENDIBIL

**B**irus batek sortzen ditu oinetan izaten ditugun papilomak eta kasu gehienak nerabeen artean, 12-16 urte bitarteko neska-mutikoen artean gertatzen dira. Orain dela 30 urte ingurura arte ezjakintasun handia zegoen patologia horien inguruan. Gero eta ohikoagoak izaten dira papiloma kasuak, are gehiago kirola egiten duen jendearen artean.

Luis Javier Martinez podologo bergararraren arabera, edozein adinetan ager badaitezke ere oso arraroa da 5 urtetik beherako haurrek edo zaharrek papiloma kasuak (azaleko lesioak, azken baten) izatea. Nerabeen artean izaten dira kasu gehien eta izerdi botatzeak izaten du zerikusia: "Izerdiaren erruz poroak zabalik izaten ditugu eta horrela birusak errazagoa du epidermisan sartzeko", diosku Martinezek.

Izan ere, birusen bat azalean sartzean gertatzen dira papiloma kasuak, Martinezen arabera. "Ehundik gora papilomavirus isolatu dituzte dagoeneko. Batzuek azalari eragiten diote eta beste batzuek, aldiz, mukosari. Ingurunearen erruz edota infektatutako beste pertsona batek eraginda ematen da kontagioa, oso gutxitan animalien bitartez. Gorakada nabaria izan duen patologia da et antzera era-

giten die gizonei zein emakumei. Kasu gehienak oinazpian izaten dira".

**HELDUETAN, ZAILAGOA BEREZ OSATZEA**  
Gehienetan, papilomak sufritzen dituzten helduek sistema immunologikoa ahulagoa dutelako izaten da. Horrek ere zerikusia izaten du tratamenduarengan; hain zuzen, kasuen %20 inguru berez osatzen dira baina adinean gora zailagoa da hori gertatzea.

**Nerabeen artean izaten dira kasu gehien, kirola egiten dutenen artean bereziki**

**Prebenitzeko, leku publikoetan ortozik ibiltzea saihestu behar da, besteak beste**

Hainbat arrazoiengatik tratatu behar ditugu papilomak; batzuetan, mina, odola edota ezgaitasun funtzionala eragin dezake papilomak; bestalde, zenbat eta zaharragoa izan lesioa, orduan eta zabaltzeko arrisku handiagoa dago; eta kontagiatzeko arriskua ere kontuan izan behar da.

### HAINBAT TRATAMENDU

Hainbat tratamendu direla esaten digu Luis Martinez podologoak: keratolitikoak (azidoak aplikatzea, hain zuzen); krioterapia deiturikoa (funtsean, hotza aplikatzea papiloma agertzen den tokian); terapia fotodinamikoa; kauterizazio termikoa edo kimikoa; bleomizina... "Kasuaren larritasunaren arabera bata edo bestea aukeratuko dugu. Edozein ere, bat ere ez da %100 efektiboa, eragingarria. Lehen aipatu dudan moduan, haurrek hobeto erantzuten diote tratamenduari; batez ere lesioaren eboluzioa motza denean eragingarriagoa da tratamendua".

Papilomak prebenitzeko, azala zaintzea, leku publikoetan ortozik ibiltzea saihestea eta transpirazioa eragozten duten oinetakoak ez erabiltzea gomendatzen da. Betiere, papiloma izateko zalantza daukagunean, lehenbailehen espezialistarengana jotzea ondo dago, hark argituko baitugu gaitzaren gaineko edozein zalantza.



**IKERLEKU**  
PODOLOGIA ZENTROA

Oinetako gaixotasunak  
Azterketa biomekanikoa  
Kirol podologia  
Neurrira egindako plantillak



■ ELKARRIZKETA: NICOLAS BERMEJO / UARCAPE HORTZ-KLINIKAKO ARDURADUNA

# "Egungo teknikei esker ez da ezinbestekoa hortzak galtzea"

MIRIAN BITERI

**A**rrasateko Uarkape hortz-klinikako arduraduna da Nicolas Bermejo. Datozen lerrotan hortzetako arazoak ekiditeko hartu beharreko hainbat neurri garrantzitsu azalduko dizkigu. Horretaz gain, gaixotasunak agertzen direnean gaur egun aukeran dauden metodoen gaineko azalpenak eman dizkigu Uarkapeko arduradunak elkarrizketan.

**Zelan ekidin ditzakegu hortzetako arazoak?**

Garai baten normala bazen ere, gaur egun dauden teknika berriei esker ez da ezinbestekoa hortzak galtzea edo bizitza amaierara bi protesirekin iristea. Hori gerta ez dadin, lehenik eta behin, higiena ezinbestekoa da. Hortzak, gutxienez, bizpahiru alditan garbitu behar ditugu egunero, hortzetako plaka mugitzen joan dadin.

Horretaz gain, urtero profesionalengana joateko ohitura hartu behar dugu. Kontsulta horren bidez, sor daitezkeen bestelako arazoaren gainean kontrol zehatza egingo digute; esaterako, kariesa. Horren harira, kontuan izan behar dugu pertsona bakoitzaren ahoa mundu bat dela. Batzuek hortzetako gaixotasunak edukitzeko erraztasuna dute eta kasu horiek laguntza handiagoa behar dute. Baina, hortzetakoez gain, kontsulta horien bidez beste hainbat gaixotasun antzeman daitezke. Esaterako, erretzaile batengan minbizia edo traumatismoak.



Nicolas Bermejo, Arrasateko Uarkape hortz-klinikako arduraduna.

MIRIAN BITERI

**"Hortzetakoez gain, kontsultekin beste gaixotasun batzuk antzeman daitezke"**

Hirugarrenik, dieta orekatsua izatea ere oso garrantzitsua da. Dieta azukreduna eta hidrato larregi dituenak ez da osasungarria gure hortzendako, eta, hortaz, ekidin egin behar ditugu; hobe da bitamina eta mine-

raletan aberatsa izatea. Horrek barazkiak, frutak, okela eta arraina izan behar ditu.

**Zeintzuek ibili behar dute, horren harira, arreta handiz?**

Bereziki, haurdun dauden emakumeak. Haurdun geratu aurretik arazoak izanez gero, haurdunaldian zehar asko larri daitezke horiek. Haurdunaldian elikadura-ohiturak aldatzen dira, orduz kanpo jaten da eta hortzak gutxiago garbitzen dira. Horretaz gain, umeak eta pertsona nagusiak ere asko kontrolatu behar ditugu.

**"Garrantzitsua da inplantea ahalik eta azkarren egitea, hezurragatik"**

**Dena den, askotan prebentzio neurriak hartuta ere, gaixotasunak agertu eta hortzak kendu egin behar dira. Zer egiten duzue kasu horietan?**

Hortzak ordezkatzeko hiru metodo nagusi ditugu aukeran

gaur egungo profesionalek: alde batetik, protesi finkoa daukagu. Kasu horretan, dauzkagun hortzak aprobetxatzen ditugu; horiek tailatu ostean, mugitzen ez den protesia zementatu egiten dugu. Horrek zerbitzu bikaina emango digu.

Bigarrenik, jarri eta kentzen den protesia aurki dezakegu. Hortzetako aparatu moduan ezagutzen ditugunak dira. Orain arte oso emaitza ona eman dute; baina inplanteen agerpenarekin, horiek bigarren planoan geratu dira.

**Zer daukate inplanteek gaintzeko aukerak ez dutena?**

Ondoko hortzak erabili barik, hortza ordezkatzeko aukera ematen dizute. Protesi finkoak edo mugikorretan ondoko hortzak erabili behar ditugu eta horiek gehiegi kargatzen dira. Inplanteen kasuan, berriz, ondoko hortzak errespetatu egiten ditugu eta horitan eraginik ez dute.

Orokorrean, inplanteak kasu gehienetan ondo egin daitezke; hezuraren anatomia oso eskas denean bakarrik ezin da inplanterik egin. Baina kasu horietan ere inplanteak egiteko posibilitatea egon daiteke teknika osagarri batzuk erabiliz: mentuak, mintzak eta hezurra.

Garrantzitsua da ahalik eta azkarren egitea, hezurra ahalik eta egoera onenean izateko. Profesionalak esango digute noiz den unerik egokiena horretarako. Esan beharra dago, gainera, metodo horrek emaitza bikainak ematen dituela.



**HORTZ KLINIKA**  
**UARCAPE**  
BERMEJO doktorea

*Odontologia orokorra*  
*Endodontzia*  
*Inplanteak*  
*Protesiak*

Uarkape 16, ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 • 943 79 10 85



■ ELKARRIZKETA: GUILLERMO LARRAÑAGA / ANGIOLOGO ZIRUJAU KARDIOBASKULARRA

# "Gazteek ere izan ditzakete barizeak"

IRATI AGIRREAZALDEGI

**G**uillermo Larrañagak eta bere taldeak kirurgia kardiobaskularrean jarduten dute. Diagnostikoa egiten dute, gaixotasun baskularrak tratatu... Gurean, Arrasateko Instituto Medico Palacio Mendian hartzen dituzte gaixoak. Barizeak gaitz kardiobaskularra izanik, horien zergatiaz eta sendabidez jardun dugu angiologo zirujau kardiobaskularrekin.

## Zer dira barizeak?

Zain-sistemako ezohiko dilatazioak dira. Barize mota asko dago: armiarma moduan ezagunak diren barize txikiak edo sakoneko zain-sistemaren gutxiegitasunak sortuak. Hortaz, barizeak ez dira dilataturako kordioak bakarrik.

## Zein dira sintomak?

Gehienek nekea, astuntasuna, inurridura; sumindura hanketan batez ere beroarekin; egonezina hanketan, mugitzeko beharra... sumatzen dituzte.

## Gazteek ere izan ditzakete?

Denbora luzez zutik egoteak sortzen ditu gehienetan barizeak. Izan ere, hodi baten barneko presio hidrostatiakoak sortuak dira. Hortaz, adinduen artean ohikoagoa bada ere, gazteek ere

izan ditzakete. Lana edo haurdunaldia gaitzaren arrazoi dira, baina sortzetiko gaixotasuna ere izan daiteke. Sendagileak pazienteari barizeek minik ematen dioten galdetu eta erantzuna ezeko denean, askotan ez zaio garrantzirik ematen, baina kasu egin behar zaio.

## Gizonengan eta emakumeengan maiztasun berarekin izaten dira barizeak?

Beharbada, pixka bat gehiago emakumeetan, baina gizonetakoek ere izan badituzte. Kontua da gizonetakoek ez dietela kasurik egiten eta gerora barizeek arazo gehiago ematen dizkiete. Aurreko belaunaldietan barizeak izatea gauza ohikoa zen. Orain, emakumeek arrazoi estetikoengatik bada ere, gehiago kontrolatzen dituzte.

## Zer da barizeen esklerosia?

Barizeak tratatzeko modua da. Erabil daitezke likidoa, bitsa, laserra, nitrogeoa, karbono-

**"Emakumeek, estetikagatik, gehiago kontrolatzen dituzte barizeak"**

anhidrido... barizeak desagerrarazteko. Armiarma barizeetan emaitza onenak ematen ditu.

## Laserra ere erabil daiteke?

Esklerosiaren osagarri moduan erabil daiteke, ez bakarrik, okerreko propagandak hala dioen arren. Ez dago ehuneko ehuneko eraginkorra izan daitekeen laserrik esklerosi tratamendu osagarririk gabe. Izan daiteke azalean barrenako edo odolhodian barrenako laserra. Azken hori prozedura kirurgikoa da, kirurgia arruntak baino kalte txikiagoa egiten du, baina emaitza oso onak ematen ditu barizeen laser bidezko kirurgiari dagokionez.

## Barizeendako zein kirurgia mota daude?

Barizeen araberakoa da. Horretarako, azterketa egin behar da, ekografia bat eta zainen mapa moduko bat. Horrela zehaztuko da urritasunik dagoen ala ez eta zein sektoreri eragiten dion. Horren arabera erabakitzen da zein kirurgia erabili. Izan daitezke anbulatorioan egiten den flebektomia, anestesia lokalarekin gaizki dabilen segmentua kentzean datzana; kirurgia aktiboa, zain sistemaren jarioa zuzentzean datzana; odolhodian barrenako laser bidezko kirurgia, zaina mantentzen du,



Guillermo Larrañaga sendagilea, bere lankidearekin.

GOIENKARIA

okluidu eta zuntz-zaina sortu barizea desagerraraziz; edo kirurgia arrunta, gaizki dabilen zaina osotasunean kentzen duena.

## Sendatze prozesua nolako da?

Azkarra izaten da. Zirujauok gero eta modu apalagoan jarduten dugu eta kasu gehienetan irradi-frekuentzia edo laserra era-

**"Ebakuntza egunean etxera joan eta gehienek astebete behar dute sendatzeko"**

biltzen dugu. Anatomia-egiturari dagokionez, konplexuagoak diren kasuetan ez dira teknika horiek gomendatzen. Hortaz, sendatze prozesua erabili den teknikaren eta kaltea zenbaterakoa izan den araberakoa izango da. Gaur egungo kirurgiek apenas ematen dute minik eta ebakuntza egin eta egun berean joaten dira gaixoak etxera eta astebetean sendatu egiten dira.

## Barizeak dituztela uste dutenek non lor dezakete horren gaineko informazioa?

Debagoienekoak izanez gero, Arrasaten, Instituto Medico Palacio Mendian dugun kontsultara jo dezakete aurrez ordua hartuta.

## INSTITUTO MEDICO PALACIO MENDIA



Kirurgia baskularrean aditua.

Barizeak laser edo irradi-frekuentziaz kentzen ditugu



ARGAZKILARITZA

## Argazki lehiaketa abian ipini du Udalak

Lanak urriaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira udaletxean

I.A. > ANTZUOLA

Antzuolan jaito edo bizi direnendako gai libreko argazki lehiaketa antolatu du Udalak. Parte-hartzaileak hiru mailatan banatuko dituzte: 6 eta 12 urte artekoen maila; 13 eta 18 urte artekoena; eta 19 urtetik gorakoena.

Partaide bakoitzak koloretan zein zuri-beltzean hiru argazki baino ezingo ditu aurkeztu lehiaketarako.

Argazkiak ageriko egilearen datu barik aurkeztu behar dira 30x40 zentimetroko kartoi finean eta argazkien tamaina gehienez 25x35 zentimetrokoa izango da. Atzean argazkiaren izenburua eta maila ipini beharko dira. Gutun-azal itxi batean, berriz, parte-hartzailearen datuak eta argazkiaren izenburua.

AZAROAN ERAKUSKETA

Lanak udaletxean aurkeztu behar dira urriaren 30a baino lehen, eta ondoren, argazkilaritza esparruko adituek baloratuko dituzte, kalitate teknikoa eta artistikoa eta adierazteko originaltasunaren arabera.

Lehen mailakoen sariak honakoak dira: 20 euro lehenengoarendako eta 15 euro bigarrenarendako; eta bigarren eta hirugarren mailakoendako 150na euro lehenengoendako eta 90na euro bigarrenendako.

Sari banaketaren ondoren, lehiaketara aurkeztutako lan guztiekin erakusketa egingo dute azaroan, Olaranen. Erakusketa bukatu eta gero egileek udaletxean jaso ahal izango dituzte argazkiak hilabeteren barruan.

AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA

## Astelehenean emango dute AHTren bigarren zatiaren berri

Torresoroan izango da batzarra, 19:00etan, eta gero proiektua ikusgai izango da udaletxean

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA


Udaletxera ailegatu da AHTren Antzuolako tarteko bigarren zatiaren proiektua. Proiektuaren informazio zuzena emateko, irailaren 21erako, astelehenerako bilera irekia antolatu dute. 19:00etan izango da, Torresoroan. Ondoren, hilaren 22an, 23an eta 24an udaletxeko batzar aretoan proiektua ikusgai ipiniko dute.

ZUBIA 30 METROKO ALTUERAN

Lehenengo zatiaren proiektua erakutsi zutenean egin zuten bezalaxe, oraingoan ere, herritarren alegazioak jasoko dituzte eta komeni da irailaren 25a baino lehen egitea alegaziook.

Bigarren zati hori Egurribai baserriaren inguruan hasiko da, tunela amaituko den tokian; eta San Blas aldean, tren

hurrengo tunelera sartuko den tokian amaitu. Zati horretan ia guztia biaduktua izango da eta bigarren tramua horren zati handiena zubibide horrek hartuko duenez, garrantzitsua ere izango da. Guztira zazpi zutabe eta 500 metro inguru izango ditu 30 metroko altueran egongo den zubiak. Horrenbestez, sekulako begi-inpaktua eragingo du. Gainera, kontuan hartu behar da Deskarga inguruan erreka-aren eta errepidearen gainetik pasako dela.



Antzuolako tarteko bigarren zatia Egurribai baserriaren eta San Blas auzoaren artekoa izango da.

GOIENKARIA

AISIALDIA > GAZTEAK

## Izena eman behar dute Eguzki auzoko gazte txoko berrian begirale izan nahi dutenek

Irailaren 30a da azken eguna eta euskaraz jakitea eta adinez nagusia izatea dira baldintza nagusiak

I.A. > ANTZUOLA

Gazte txokoa lehenbailehen abian ipini nahi dutenez, 2009-2010 ikasturtean. Gazte txokoan

jarduteko prest dauden hezitzaileak aukeratzeko deialdia egin du Idolaz euskara elkarteak. Baldintzak dira euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorakoa izatea; gainera, baloratuko da begirale titulua izatea eta Antzuolan bizi izatea. Izena emateko irailaren 30a baino lehen udaletxera jo behar da edo e-posta bidali honako helbidera: [liburutegia@antzuola.com](mailto:liburutegia@antzuola.com).

IREKITZE DATA ZEHAZTEKE

Oraindik erabaki barik dago noiz zabalduko duten Eguzki auzoko etxeen azpian egongo den gazte txoko berria. Izan ere, begiraleak aukeraturakoan, haiek egingo dute ekintzen programazioa eta horren arabera jakinaraziko da irekiera data. Gainera, kontuan hartu behar da gazte txoko berriko lanak oraindik guztiz amaitu gabe daudela.

bere ustez



Jone Lete

Guztioi, eskerrik asko

**B**adira urte batzuk *Kontuola*-n iritzi artikulua idazteko aukera eman zidatela. Garai hartan ilusioz eman nuen baietza eta tartean-tartean herriarentzako zerbait idazten nuen.

Agian ez zen izango denengustuko, baina, egia esan, urte hauetan guztietan nire helburua ez da izan inor mintzea, nire iritzia ematea baizik. Agian ez dut ondo asmatu, baina esan beharra daukat gogoz eta zenbait ekarpen egiteko asmoarekin idatzi dudala orain arte idatzi dudana.

**"Ilusioa egiten du kalean norbaitek zure iritzi artikulua gustatu zaiola esaten dizunean"**

Hemendik aurrera, ordea, tarte batean behintzat, hau izango da hemen idatziko dudan azken artikulua. Ez idazteko gairik eta arrazoirik ez dagoelako, uste baitut oraindik badagoela idazteko gai pila bat, baina beste pertsona batzuei aukera ematea ere ez dago gaizki.

Beraz, nire partetik eskerrik eman nahi nizkioke *Kontuola*-ri, garai batean eta GOIENKARIAri gero, idazteko aukera emateagatik, eta nola ez, zuri, irakurle. Ilusioa egiten du kalean norbaitek gelditu eta zure iritzi artikulua gustatu zaiola esaten dizunean. Eta urte hauetan pertsona batek baino gehiagok esan dit hori. Beraz, zuri, irakurle, eskerrik asko eta laster arte!

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**LARREA**

TABERNA

Kalebarren 17  
ANTZUOLA

**EGAÑA**

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea  
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23





GOIENKARIA

Hilaren 21ean eta 22an eman ahalko da izena Amuskak antolatutako ikastaroetan; aurreko urteotan bezala, aurten ere pintura egin ahal izango da.

EMAKUMEAK > AMUSKA

# Amuskak hainbat ikastaro eta hitzaldi antolatu ditu

Irailaren 28an larruazalaren zahartzearen gaineko hitzaldia egingo du Marisol Rebollo adituak kultura etxean, 18:30ean

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Amuska emakumeen elkartearen dagoeneko mugitzen hasi dira. Atzean utzi dituzte azkenaldiko belaunaldi-lekukoa egiteko ara-

zoak eta batzorde berriak lanean dihardu, abuztuaren hartutako atsedendialdiaren ondoren. Azken urteotako ildo beretik jarraitzea erabaki dute.

Batzorde berriak antolatuta-ko lehen ekimena irailaren 28an egingo dute. Egun horretan, Marisol Rebollo adituak larruazalaren zahartzearen gaineko berbaldia egingo du. Hitzordua 18:30ean jarrita dago, kultura etxean. Betiko moduan, hitzaldi horretarako sarera libreza izango da.

LAU IKASTARO

Bestalde, datozen hilabetei begira lau ikastaro mota antolatu ditu elkarteak. Astelehenean, ehaziri-lanak egiteko aukera izango dute herriko emakumeek; martitzenean, olio-pintura eta patchwork-a. Kolore, forma eta neurri askotariko oihal zatiak josiz egiten den lana da hori. Puntadaz puntada mantak, koltzak eta etxeko arropa jostean datza. Eguaztena, azkenik, eskulanen eguna izango da.

Ikastaroak urrian hasiko dira eta abendura arte iraungo dute. Bi orduko eskolak emango dira astero.

IRAILAREN 21 ETA 22AN

Interesa dutenek astelehenean eta martitzenean, irailak 21 eta 22, eman beharko dute izena herriko kultura etxean. Arratsaldez pasa beharko dute handik, 18:00etatik 19:00etara, hain zuzen. Amuskatik ohartarazi dute izen-abizenak ematearekin batera derrigorrezkoa izango dela ikastaroa ordaintzea.

30 EDO 40 EURO

Prezioari dagokionez, azkenik, bi kopuru mota egongo dira: emakumeen elkarteak bazkideak direnek 30 euro ordaindu beharko dituzte ikastaro bakoitzeko; bazkideak ez direnek, berriz, 40 euro.

POLITIKA

## EB tasak batzuei jartzearen alde dago

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako EB-Berdeak taldea telefono operadorei, banketxei eta aurrezki kutxei tasak jartzearen eta gainontzeko zergak izoztearen alde agertu da egunotan prentsa ohar baten bidez. Jakinarazi du, horrekin batera, ordenantza fiskalak aldatzerakoan horixe bera proposatuko die la herriko gainontzeko alderdi politikoei.

Talde horren arabera, sarrera alternatiboak bilatu behar dira. Gogorazi du, horren harira, telefono operadoreek espazio publikoa erabiltzen dutela zerbitzua ematerakoan. Banketxe eta aurrezki kutxei dagokienez, kalean dauden kutzazain autonomikoengatik ere ordaindu behar dutela dio.

UMEAK > TORTOLIS LUDOTEKA

## Ate irekiak egingo dituzte hilaren 27tik 30era ludotekan

Tortolis ludotekan irailaren 28an zabalduko dute izenematea

M.B. > ESKORIATZA

Udako oporren ostean, herriko zerbitzuak ikasturte berria antolatzen doaz apurka. Asteon, Tortolis ludotekaren aurkezpenaren berri jaso dugu. Gazteria teknikari Mainer Etxanizek azaldu digu irailaren 27tik 30era bitartean ate irekien astea egiteko asmoa dutela han, honako ordutegian: 17:00etatik 19:00etara.

Aldi berean, 2009/10 ikasturterako izenematea irailaren 28an zabalduko dutela eta urriaren 1etik aurrera Tortolis ludo-

tekak betiko moduan funtzionatuko duela iragarri du; hau da, adinaren arabera antolatutako txandekin.

KALE JOLASAK

Baina esandako eguna iristen den bitartean, hainbat ekimen antolatu dituzte datorren aste-ari begira. Hilaren 22tik 25era kale jolasak egongo dira herriko plazan, 17:00etatik 19:00etara. Martitzenean, plastilinazko aurpegiak eta marrazkiak egingo dituzte 3 eta 5 urtekoek; eguaztenean, kortxoarekin eskulanak 6-9 urte arteko neska-mutikoei; eguenean, altxorren bila jokatu dute 10-12 urtekoek; eta egubakoitzean, berriz, collage erraldoia egingo dute adin guztikoek elkar-lanean.

oharrak

KINTADIA

> 1959an jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 24an

1959. urtean jaiotako eskoriatzarrek bazkaria egingo dute urriaren 24an. Bazkaria 14:30ean izango da Apotzagako elkartearen. Izena eman gura dutenek 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 3035 0044 8 4 044.1.035241 kontuan urriaren 9a baino lehen, izena eta abizena adierazita.

URA

> Etxeetako ur-kontagailuen irakurketa, astelehenean

Astelehenean, irailak 21, Eskoriatzako etxeetako ur-kontagailuen irakurketa egingo da, urteko hirugarren hiruhilekoko ordainagiriak prestatzeko. Irakurketa ordutegia 08:30etik 15:00etara izango da.

PINTURA

> Pintura ikastaroan izena eman daiteke irailaren 29ra arte

Kultura etxeak antolatutako pintura ikastaroa urriaren 3an hasiko da. Eskolak zapatu arratsaldean izango dira, 14:30etik 17:30era. Interesatuak irailaren 29a baino lehen eman behar dute

horretan izena, 943 71 46 88 telefono zenbakira deituta. Ikastaroa urrian hasi eta ekainean amaituko da eta prezioa 100 euro izango da.

KIROLA

> Helduendako xake ikastarorako izenematea, martitzenera arte

Helduendako xake ikastarorako izenematea hilaren 22an amaituko da. Izena 943 71 46 88 zenbakian edo [gazteria@eskoriatza.net](mailto:gazteria@eskoriatza.net) helbidean eman behar da. Hastapen ikastaroa da; fitxak ezagutu eta xakean aritzeko oinarriko ezagutzak jasotzea du helburu.

ERRETIRATUAK

> Andorrarako irteera ordaindu behar da asteon

Herriko erretiratuak Andorrara joango dira urriaren 5etik 10era bitartean. Olazar erretiratuen elkartetik jakinarazi dute bigarren ordainketa irailaren 22tik 24ra egin beharko dela.

Bestalde, Udalak omenaldia egingo die 65 urtetik gorako herriko erretiratuak irailaren 27an. Parte hartzeko izena gaur amaituko da. Izena 11:00etatik 12:30era eman behar da, erretiratuen bulegoan.



INGURUMENA > MUGIKORTASUN ASTEA

# Umeak ikastetxeetara oinez joan daitezzen bultzatzeko ekimena egitekotan dabilza

Mugikortasun Astearen harira, martitzenean 'Goazen oinez ikastetxera!' ekimena egongo da herrian; asmoa da esperientzia hori ikasturte osoan egitea, eta lanean dihardute hori hala izan dadin

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Jakina denez, aurtengo Mugikortasun Astea berrikuntza interesgarriekin dator; esaterako, martitzenean, hilak 22, *Goazen oinez ikastetxera!* ekimena dago. Autoa etxean utzi eta herriko hainbat txokotatik ikasleak ikastetxeetara oinez joateko taldeak irtetea datza hori.

Hain zuzen, bi talde osatuko dira: bata Intxaurtxuetako plazatik irtengo da, 08:45ean, eta kiroldegi ondoko plazan dagoen Partxisatik Luis Ezeizarantz abiatuko dira; ikastetxe publikoko ikasleak han geratuko dira, eta besteak Jose Aranarantz joango dira. Bigarren ibilbideari Olaetako plazan emango diote hasiera, 08:40an. Aranburuzabala kalean dagoen geltokia atzean utzita, esandako bi ikastetxeetara joango dira. Ibilbide osoan arduradunak ibiliko dira umeak zaintzen.


**DAGOENEO LANEAN ARI DIRA**

Esan bezala, martitzenerako ekimen "sinbolikoa" egitea aurreikusita dago, Mugikortasun Astearen barruan. Asmoa, dena den, esperientzia ikasturte osoan jarraitua izatea da, eta hori horrela izan dadin lanean dihardute dagoeneko herrian. Udala, ikastetxeak eta guraso elkarteak harremanetan jarri dira, ekimenari bultzada emateko.

Udal teknikari Saioa Altzuak azaldu du Euskal Herriko hainbat herritan dagoeneko martxan dagoela eta denbora laburrean arrakastatsu bilakatu dela. Besteak beste, Lemoan, Oiartzunen, Arratiako eskualdean eta Urretxu-Zumarragan egiten dute.

**ONURAK**

Esperientzia horrek ikasleendako hainbat onura izango dituela azpimarratu du. Herriko umeek ohitura osasungarriak har dituzten egokia dela nabarmentzeaz gain, oinez joatean ikastetxeetara "argiago" eta "energia handiagoarekin" iristen direla dio. Taldean joateak ere on egingo die la uste du, ikasleen arteko harremanak hobetzeko balio dezake-eta. Udal teknikariaren arabera, gurasoendako ere ero-



Goiko planoan, umeek martitzenean egiten dituzten ibilbideak eta ordutegia ikusten dira.

ESKORIATZAKO UDALA



Goizero auto ilarak daude Luis Ezeizan.

MIRIAN BITERI



Jose Aranan ere antzera dabilza egunero.

M.B.

soa izan daiteke: "Horrela, umeak ez dituzte egunero eraman beharko ikastetxera; txandakatzeta da helburua".

Ikastetxeetara sartu eta irteterakoan ingurunean sortzen diren auto ilarak murriztea ere

ahalbideratuko duela eta horrek zarata, usain eta kutsadura txikitzea ekarriko duela nabarmendu du. Aldi berean, horrenbeste auto pilatuko ez direnez, esandako inguruneetan segurtasuna handitu egingo dela uste du.

**LUIS EZEIZA**

Ikastetxeek eta guraso elkarteek, esan bezala, Udalaren asmoaren berri dute. Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak bat egin du martitzeneko ekimenarekin. Are gehiago, esperientzia ikasturte osora zabaltzea "oso ondo" ikusten duela eta hementik gutxira, interesa duten gurasoei izena hartuko zaiela jakinarazi du, lantaldeak antolatzeke: "Ez dakigu irtengo den, berria da eta herrian; akaso, hasieran kosta egingo zaigu, baina gu, dena den, ahalegindu egingo gara". Azaldu du asmoa dela Jose Arana gunekoekin elkarlanean antolatzea. Modu horretan, ikastetxe ezberdinetara doazen umen arteko harremanei bultzada ematea lortuko dutela aipatu dute Luis Ezeizakoek.

**JOSE ARANA**

Arizmendiko Jose Arana gunekoek ere bat egin dute martitzeneko *Goazen oinez ikastetxera!*

ekimenarekin. Ikastetxetik azaldu digute oraindik gaia aztertzen ari direla gurasoen ordezkariekin batera eta, laster, erabakiak hartzeko moduan egongo direla. Dena den, azpimarratu dute oso ideia ona iruditzen zaiela. Denborak esango du zertan geratzen den.

## MUGIKORTASUN ASTEA

### Erreka Eguna eta bizikleta martxa

Ikastetxeetako ekimenaz gain, Mugikortasun Astearen barruan beste hainbat ekitaldi daude aurreikusita; tartean, Erreka Eguna. Urte asko pasatu dira Eskola Agenda 21 barruan Eskoriatzako ikasleek Udalarri erreka garbitzea eskatu ziotela. Iaz gai hori berriro hartu eta garbiketa auzolanean egitea erabaki zen, azaroko Aste Berdean. Baina eguraldi txarragatik eta erreka hazi-hazia zetorrela-eta, eguna atzeratu egin behar izan zen.

Deba eta Bolibar erreken garbiketa lanak bihar izango dira, eta 10:00etan hasi eta 12:00etarako bukatutzat emango dira; ordu horretan, plazan mokadua eskainiko zaie parte hartu dutenei. Interesa dutenek izena eman behar dute [ingurumena@eskoriatza.net](mailto:ingurumena@eskoriatza.net) helbidean.

Bestalde, domekan bizikleta martxa egingo dute. 10:00etan, Eskoriatzako plazatik irten eta handik Aretxabaletako Iturrigorri frontoirantz abiatuko dira. 11:00etan Arrasatekoekin elkartuko dira, berriro Eskoriatzara itzultzeko. Eguraldiak laguntzen badu, hamarretakoa Torrebason izango da eta bestela, Iturrigorrin.

**Villar**  
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9  
Tel.: 943 71 50 42  
ESKORIATZA





XALBADORPE ELKARTEA

## Hondarribian egun-pasa

Xalbadorpe elkarteko 60 bat lagunek egun-pasa egin zuten barikuan. Oiartzun, Hondarribia eta Zarautzen izan ziren. Elkartetik jakinarazi digite, gainera, podologoak hilaren 24an egingo duela iraileko kontsulta. Izena emateko: 943 76 80 77 (Nati). Gogora ezazue osasun etxean hasi direla gripe arruntaren aurkako txertoak ipintzen.

**Bixen Calzon** > Goiena Sporteko gerentea

## "Lotsak laga eta kirol jarduera berriak doan ezagutzera etorri!"



Bixen Calzon Intxauspe.

L.Z.

eskaintza. Elgetako Udalak esfortzu handia egin du spinning-erako bizikletak erosten, ate irekiak antolatzen, eta orain adin tarte guztiei zuzendutako eskaintza egiten.

**Beste proposamen bat dago aurten, GAP-stretchinga. Zer da eta nori zuzenduta dago?**

Musikarekin eta taldean tonu muskularra lantzen da jarduera horretan. Gluteoak, abdominalak eta hankak lantzen dira GAP delako jardueran. Stretchinga luzaketak dira. Edozein pertsonari zuzenduta dago. Aproposa da oso gantzak erretzeko eta bizkarreko arazoak dituztenendako.

**Aurreko ikasturteko irakasleak mantenduko dira?**

Bai, Ainhoa Callejak jarraituko du Elgetan.

**Zenbat jarduera fisiko egin beharko genuke?**

Orokorrean, astean hiruzpalau saio, betiere helburua zein den kontuan hartuta.

**Urrian ate irekiak egingo dituzue. Zertarako dira eta nori zuzenduak?**

Aukera paregabea da jarduera ezberdinak ezagutu nahi dituztenendako. Lotsa alde batera utzi eta kirol praktika berriak ezagutzera animatu nahi ditut elgetarrak. Animo!

**Zein jarduerak funtzionatzen du Elgetan?**

Eskola kirolak oso ondo funtzionatzen du, eta arrakasta handien daukan jarduera spinninga da. Sasoian egoteko gimnasia eta hirugarren adinekoendako gimnasia saioak ere arrakastatsuak izaten dira.

**Ikasturte honetarako eskaintza prestatzerakoan, zer hartu duzue kontuan?**

Adin tarte guztien beharrak asetzea bideratu dugu kirol

**LANAK** > ASENTZIO ETA LUDOTEKA

# 10 kamioikada zikinkeria atera dituzte putzutik

Mendilankor kooperatiba egiten ari den lanotan errepideko asfaltoak kendu dute asteon

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Abian dira Asentzioko lanak. Aparkalekua, bidegorria eta komuna egingo dituzte, besteak beste. Gainera, bost bat mahai gehiago ipiniko dituzte eta txitxiburruntzia egiteko parrillak berriro egingo dituzte.

Mendilankor kooperatibak dihardu lanok egiten. "Bizpahiru hilabeteko kontua da, hasiera baten, baina eguraldiak zeresan handia izango du. Zein urtarotan gauden ikusita, egural-

diaren menpe egongo gara", adierazi du Mendilankorreko kide Ibon Arrasatek.

**PUTZUA GARBITU EGIN DUTE**

Lanak egiteko makineria bertan zegoela ikusita, Udalak Asentzioko putzua garbitzeko eskaera egin zion Mendilankorri. "Zikinkeria asko atera dugu, baina asko", adierazi du Arrasatek. "Hamar bat kamioi bai!". Lokatza, bizikleta bat eta adar asko atera dituztela esan digu. "Adarrak ikaragarri, arrantzarako prestatutako kanaberak asko eta asko". Garbitu ona eman diote putzuari, eta, esan dutenez, punturen baten metro bateko sakonera ere badauka.

Orain, gainerako lanak egiten jarraituko dute; besteak beste, bidea egokitzen.

**LUDOTEKA, PREST**

Torrealdean ere apurka-apurka badoaz ludoteka eta gaztelekua hartuko dituen lokala jantzen. Kultura etxeko gelatik materiala ugari eta jolasak ekarri dira. Udalaren asmoa da urrian bi zerbitzuak martxan ipintzea, bai ludoteka, bai gaztelekua.

Bestalde, bi zerbitzu horiek kultura etxean libre lagatako gelei beste erabilpen bat emango zaie ikasturte honetan. "Pentsatu dugu musika eskolak kultura etxera pasatzea", adierazi du Rebeka Uberak, Hezkuntza zinegotziak. Gela txukundu eta margotu egin dute. Pianoa ere eraman dute. Aurrerantzean, beraz, Lorea Larrañagak kultura etxean emango ditu eskolak. Jainaga trikitalariak, berriz, Herri Eskolan jarraituko du.



Lokatza eta adarrak atera dituzte, gehienbat, Asentzioko putzutik. Garbitu ona eman diote.

MENDILANKOR

**AISIALDIA** > ASTEBURUA ELGETAN

## Herriko 12-14 bat baserritar izango dira aurten azokan

Domekako Vespa eta Lambretta motorren V. edizioan 90 parte-hartzaile espero dira

**L.Z.** > ELGETA

Azoka 11:00etan zabalduko dute, eta aurreikusita dago herriko 12-14 bat baserritarren produktuak bertan salgai egotea. Ordu berean, Udalak aurten lehenengo aldiz umeendako antolatutako sagar jokoak egingo dira Salbador kalean.

**TORTILLA LEHIAKETA**

Baserritarren azokarekin bat egingo du aurten ere gaztetxeak antolatutako Sagardo Egunak. Herriko hainbat txokotan ipinitako kupelak zabalduko dira 18:00etan. Ordu berean hasiko da urteroko tortilla lehiaketa. Parte hartzaile ugari espero dira aurten ere. Iaz, 31 izan ziren eta Fly taldeak eraman zuen sari nagusia.

**VESPA ETA LAMBRETTAK**

"Domekan 90 motor espero ditugu", esan du Fermin Iribarrek. Nola ez, Vespak eta Lambrettak

izango dira, guztiak goizean plaza ikusgai egongo direnak. Eguerdian parte hartzea egingo dute, eta jarraian Iñaki jatetxean bazkaria egingo dute.

**Aperribay, s.l.**

*Marmoldegi eta granitoak*

Pagatza indus. z/g.  
Tel. eta faxa: 943 78 90 21  
**20690 ELGETA**



KULTURA > LEHIAKETA

## 2010eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa abian da

Urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira lanak udaletxean edo liburutegian

2010eko egutegirako argazkiak aukeratuko dira aurkezten direnen artean

A.B. > ARAMAIO

Argazki kamerak kalera ateratzeko momentua iritsi da. Azken urteetan tradizio bilakatu den moduan, argazki lehiaketa antolatu du aurten ere Udalak. Asmoa da lehiaketara aurkezten diren argazkien artean 2010. urterako Udalak argitaratuko duen egutegian erabiliko diren argazkiak aukeratzeta.

BALDINTZAK

Argazkien gaia libre da, baina ezinbestean Aramaiorekin zerikusia izan beharko dute:

ingurumen naturala, soziala edo artistikoa, eraikinak, ohi-turak, jaiak...

Partaide bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango ditu. Argazki bakoitzari izenburua eta atera zeneko data ipini behar zaio. Betiere, argazkiek lehenago argitaratu gabekoak eta saritu gabekoak izan behar dute; koloretakoak zein zuri-beltzekoak izan daitezke, baina paperean aurkeztu beharko dira. Neurriak gutxienez 18x24 zentimetrokoa izan behar du.

Argazkiak bi lekutan aurkez daitezke: udaletxean eta kultura etxean. Horretarako azken eguna urriaren 31 da.

SARIAK

Guztira bost sari banatuko dira. Hasteko eta behin, irabazle nagusi bat aukeratuko da eta hark 200 euroko saria eroango du. Horrez gain, lau kategoria bereiziko dira: neguko, udaberriko, udako eta udazkeneko argazki onenak. Kategoria bakoitzeko irabazleak 100 euro irabaziko ditu. Argazkilaritza gustuko dutenek, beraz, ez dute aitzakiarik lanean ez hasteko.

oharrak

ZIRKULAZIOA

> Rallysprinta dela-eta zenbait kale itxi egingo dituzte bihar

Zapatuan, irailak 19, rallysprint proba egingo da Aramaion. Hori horrela, Pedro Ignacio Barrutia eta Aita Gabriel kaleak itxita egongo dira goizetik gauera arte. Udaletik adierazi dute, bestetik, kale horietan ezin izango dela autorik aparkatu. Zapatu goizerako kaleok hutsik egon behar dute-la azaldu dute.

LAN ESKAINTZA

> Udalak arkitektoa behar du

Hirigintzako aholkularitza teknikoko funtzioak burutzeko pertsona bat behar du Udalak. Ezinbestekoa da EGA titulu edo baliokideren bat izatea eta zerbitzua hasteko unean autonomo profesionala izatea. Kontratua urtebeterako izango da eta astean sei orduz egingo du lan. Interesa dutenek irailaren 21a baino lehen aurkeztu behar dute eskaria udaletxean.

KULTURA > ZINEMA

## Egubakoitzetako film emanaldiak bueltan dira

A.B. > ARAMAIO


Aste honetatik aurrera, bari-kuetan zinemaz gozatzeko aukera egongo da berriro ere; izan ere, bari-kuetako film emanaldiak abian dira. Betiko moduan euro bat ordaindu beharko da eta emanaldiak 22:15ean hasiko dira.

Bariku honetan, irailak 18, Quentin Tarantinoren akziozko *Death Proof* filma eskainiko dute eta datorren asteko bari-kuan, irailak 25, *La flauta magica* filma. Datorren hilabeterako ere egitarau polita antolatu dute.



Death Proof filma.

GOIENKARIA



Aramaioko jolasparke berriaren planoak.

A. BARRUSO

AZPIEGITURAK > JOLASPARKEA

# Hasi dituzte parkeko lanak eta urrian ipiniko dituzte ziburu berriak

3 eta 6 urte bitarteko umeendako gunean ipiniko dituzte jolas eta lurzoru berriak

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Herriko txikitxoek laster ziburu berriak izango dituzte parkean. Parkea bi zatitan banatuta dago, umeen adin tartearen arabera: kultura etxearen ondian zegoen gunea 0 eta 3 urte bitarteko umeendako da, eta horren aldamenean dagoen gunea, berriz, 3 eta 6 urte bitartekoendako da. Kontua da azken

horretan ziburuak oso egoera txarrean zeudela eta beharrezkoa zela horiek kendu eta berriak ipintzea. Hori horrela, Udalak parkea berritzeko proiektua landu zuen. 3 eta 6 urte bitarteko umeendako gunea da, hain justu, berrituko dutena. Dagoeneko hasi dituzte lanak. Oraingoz, lurra konpontzen eta egokitzen dabilta; obra zibila

deritzona egiten, alegia. Parke berriaren lurzorua, gainera, kautxuzkoa izango da, biguna. Ziburu berriak urriaren hasiera aldera ipiniko dituzte. Piraten barku bat, gorabehera bat, saskiak eta kulunkak ipini dituzte. Kolore oso biziak izango dituzte eta lurzorua berdea izango da.

Proiektuaren aurrekontua 55.881 euro da. Udalaren asmoa da urriaren amaiera alderako herriko txikitxoek ziburu berriekin gozatzeko aukera izatea.

ERRETIRATUAK > ALAIK ELKARTEA

## Datorren asterako bi hitzaldi antolatu dituzte erretiratuek

Erlaxazio tekniken ingurukoa izango da hitzaldi bat, eta kontserbak egiten ikasteko, bestea

A.B. > ARAMAIO

Alaiak erretiratuen elkarteak hitzaldi interesgarriak antolatu ditu datorren asterako; lehenengoa irailaren 22an izango da erlaxazio tekniken inguruan eta bigarrena hilaren 23an kontserbak egiten ikasteko.

ERLAXAZIO TEKNIKAK

Marijo Pagaldai izango da erlaxatzeko tekniken inguruan mintzatuko dena. Pagaldai erizaina da formazioz eta osasun kontuekin lotutako hainbat ikastaro eta hitzaldi eskaintzen ditu; tai txi irakaslea ere bada Eskoriatzan.

Eguneroko bizitzak erlaxatzeko erabil daitezkeen tekniken inguruan hitz egingo du Pagaldai. "Erlaxatzea ez da sofán botata egotea. Nire hitzaldia eguneroko jardueri zuzenduta egongo da. Alde teorikoa izango du, baina baita praktikoa ere. Erlaxatzeko zein ariketa egin behar diren ere azalduko dut", adierazi digu Pagaldai.

KONTSERBEN IKASTAROA

Jakion enpresako Susana Aiaustiuk kontserbak etxean nola egin irakatsiko die erretiratuei. Hitzaldi teorikoa izango da; beraz, bertara joaten direnek etxean ipini beharko dute praktikan Aiaustiuk azalduko guztia. Jakionen barazkien eta fruituen kontserbak egiten dituzte eta hitzaldia, batez ere, horiei zuzenduta egongo da.



EMAKUMEAK &gt; IRTEERA ZARAGOZARA

# Zaragoza ezagutzera doaz 'sorginak' aste bukaeran

Nafarroa aldean geratuko dira lehenengo eta Zaragoza ezagutuko dute gero; eta batzuek Pilarko Ama Birjinari egingo diote bisita

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Sorginak Emakume Elkarteko hainbat kide Zaragoza aldera doaz aste bukaeran. Bihar goizean irten eta domeka ilunkaran bueltatuko dira herriko 18 bat emakume, Zaragozako bazterrak ezagutu eta gero.

Aragoiko bidea hartuko dute, baina hara ailegatu baino lehen Nafarroan geratzeko asmoa daukate bihar goizean, Tuteran aldean hain zuzen. Kontserbak egiten dituzten lantegiren bat bisitatuko dute, baita bazkaldu ere. Arratsalderako Zaragozan izango dira eta batzuek atsedean hartzen duten bitartean, beste batzuek hiria ezagutzera joko dute.

Domeka goizean, osteran, *Mujeres en Aragón* izeneko bisitaldia egiteko asmoa daukate batzuek eta beste batzuek Pilarko Ama Birjina ikusi eta meza entzuteran joango dira. Bazkalostean Gatzagarako bidea hartuko dute guztiek.



Sorginak emakume elkarteak Lapurdira egin zuen irteera.

GOIENKARIA

## URTEROKO BIDAIA

Urtero antolatzen du Sorginak elkarteak irteeratxo bat, hasieran udaberri inguruan eta orain udazkenean. Orain dela hogeitau urte baino gehiago sortu zuten emakumeen elkarteak Gatzagan, irteera bat eginda sortu ere, Pari-

sera hain zuzen. Bidaia hura oso garrantzitsua izan zen eta harreman estua sortu zuen herriko emakumeen artean. Orduetik urteroko joaten dira hara edo hona; sasoi baten Europa aldera, baina hainbat kide edadean aurrera doazela ikusita gertuago gera-

tzea erabaki dute azken urteotan: "Edadean aurrera bai, baina ez dute hutsik egiten eta aurten ere 82 urte inguru dituen amandrea izango da nagusia. Gazteak ere badatoz, baina azken unera arte zalantzan egon dira", jakinarazi digu *sorgin* batek.

## argazki zaharra



## Txirrindularia animatzen gatzagararak

Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia Debagoienan bukatu zen orain dela 12 urte. Goizean Arrasaten bukatu zuten etapa eta arratsaldean erlojuz kontrakoa egin zuten Gatzagaineraino. Bide guztian jaso

zituzten animuak eta txaloak txirrindulariek, batez ere euskaldunek; euren arten zegon Abraham Olano.

Argazkian ageri dira Gatzaga inguruko hainbat neska ahaleginean datorren

txirrindulariari begira, tartean Itsaso Elkorobarrutia eta Dorleta Elkorobarrutia.

**Argazkia:** Zebbarri.  
**Testua:** GOIENKARIA.  
**Urtea:** 1997.

## GRIPEA

### Txertoa jartzera hilaren 22an datoz

Hitzordua aurrez egin behar da Eskoriatzako osasun etxera deituta

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Astean hasi dira jartzeko gripe arruntaren aurkako txertoa. Eta Gatzagan datorren martitzenean, hilak 22, jarriko dute (11:45-12:45). Eskoriatzako osasun etxeko erizainak joango dira udaletxean dagoen gelara eta ordubetez egongo dira herrian bizi direnen eta base-errietatik datozenen zain. Hitzordua, baina, aurrez egin behar dute interesatuek Eskoriatzako osasun etxera deituta (943 71 44 52).

## URRIAREN 31 ARTE

Aurreratu egin dute aurten kanpaina, azaro inguruan A gripearen aurkako txertaketa hasi gura dutelako. Gripe arruntaren aurkako txertoa hartzea gomendatzen diete medikuek 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoak dituztenei -diabetesa edo biriketako, bihotzeko eta giltzurrunetako gaixotasunak-.

Txertaketa kanpaina urriaren 31 bitartean izango da zabalik eta martitzenean hartu ezin duten gatzagarrek Eskoriatzako osasun etxera jo dezatela.

> DEIALDIA


## Sanmilixanetan postua jartzeko izenematea zabalik

Azaroaren 15ean ospatuko dituzte San Milixan jaiak, baina dagoeneko gertatzen hasita dago Udala. Artisauferia da protagonista egun horretan eta postua jarri gura duten artisauak iraila bukatu baino lehen egin behar dute eskaera udaletxean. Eskaera fitxa beteta bidertu behar dute bertara, dokumentuekin batera: artisauen erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria; zergadunaren jardueraren ekonomikoaren ziurtagiria; eta autonomoetako azken bi ordainagiriaren kopia.

Udalak, gainera, hainbat baldintza jarri ditu: erakusketan egongo diren produktuen egilea izatea derrigorrez artisaua eta azoka egunean erakustaldia egitea. Argibide gehiago udalaren webgunean: [www.leintzgatzaga.com](http://www.leintzgatzaga.com).



# Debagoieneko GREMIOAK



## ARROZTEGIAK

### AZKARATE ARROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

### AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta

- Telebista, audio eta bideoa
- Salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak

Otalora 14

T: 943 79 16 10

F: 943 79 16 10

### ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate

- Instalazio elektrikoak
- Antena kolektiboak

Zerkaosteta 15

T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturalak eta urbanizazioak
- Kontratak

- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

### IMANOL ITURGINTZA

Arrasate

- Iturgintza
- Berogailua eta gasa
- Bainugelak

Kale Txiki 9 behea

Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

### OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 007 369

f.oyanguren@ctv.es

### TXORROTA

Arrasate

- Berogailua eta gasa
- Galdarak aldatzea
- Obra integralak
- Zaharberritzeak

Bolibar dokorea 5, behea C

Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

F: 943 77 17 13

### URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

### VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta

- Hargintza lanak
- Bainugelako altzariak
- Berogailuak
- Erretenak ipini eta garbitzea

Santa Kurtz 7, 3. ezk.

Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

- PVC leihoak
  - Aluminio termikoko leihoak
  - Poliuretanozko leihoak
- Zigarrola 1- 8 pab.
- Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
- F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

### ION LEIHOAK

Arrasate

- Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
- Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
- T: 943 79 11 35
- F: 943 77 31 20

### YOSU THERMIK

Arrasate

- Lehiu eta ate isolatzaileak
  - PVC leihoak
  - Aluminio termikoko lehiuak
  - Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
- Kataide poligonoa 4 Pab.
- Tel: 943 77 01 57
- F: 943 77 03 21

### IZBAR

BERGARA

- Leihu eta ate isolatzaileak
  - Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
  - Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
  - Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
- San Lorentzo industrialdea, Urarte kalea 20
- Tel: 943 79 69 91

## LOREZAITZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
  - Ureztatze sistemak
  - Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
- Basabe poligonoa D-2-1
- Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
- F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
  - Pareztatzeak
  - Errotulazioa
- Maitena 3-1.
- Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17





Seat Ibiza Cupra autoa asfaltatu berri duten Arriolako auzotik igarotzen; zapaturako gertu egongo da tramu osoa.

GOIENKARIA

AUTOAK > ARAMAIOKO RALLYSPRINTA

# Hirurogei pilotutik gora, tartean Vilariño anai-arrebak, bihar Aramaion

14:30ean itxiko dute errepidea eta 15:30ean hasiko dute rallysprinteko lehenengo txanda

Azken urteotan lehorreko gurpilekin ibili dira pilotuak, baina bihar bestelako egoera izango da

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Bihar egingo dute Aramaioko 8. rallysprinta eta dagoeneko 64 pilotuk eman dute izena. Partehartzeari dagokionez ez da errekorra, baina ez du askorik behar, orain dela bi urte 68 pilotu izan ziren-eta. Antolatzaile lanetan dabilen Azpikoracing taldekoak pozik azaldu dira zenbatekoarekin: "Guretako kopuru handiegia ere bada, buruhauste gehiago, baina ez gara kexatuko, beste urte batzuetan pilotuei etortzeko deika ibili gara-eta".

Bihar, 14:30ean itxi egingo dute errepidea antolatzaileek eta rallysprinta 15:30ean hasiko dute. Hala, Arriola auzoan lanetan ibili badira ere, biharko amai-

tuta egongo dira asfaltoko lanak eta ibilbideak ez du aldaketarik izango. Labur esateko, Ibaratik irten eta Etxaguengo bidegurutzeraino aldapa gora eta ondoren, Gantzarako bidea hartuta, azken kilometroak aldapa behera: "Nik aldapa beherako zatia atsegin dut gehiago, estuagoa delako. Halako tramuak gustatzen zaizkit niri, estuak eta kurba askorekin", adierazi du etxean bigarrenez korrituko duen Inhar Amenabar aramaioarrak (R5 GT Turbo). Kopilotu moduan Agurtzane Zubieta izango du Amenabarrek.

Aramaioakoarekin batera, irteera puntuan izango da hitzordu horretan kale egiten ez duen

Igor Orobengoa (Seat Ibiza GT TDI); bihar, Javier Goikoetxea izango du kopilotu.

SEI KILOMETRO PASATXO

Aurreratu dugu ibilbideak ez duela aldaketarik izango, 6,7 kilometroko tramua: "Tramu ederra da, rallyetan egoten den horietakoa. Txarto ohituta gaude, askotan errepide zabaletan ibiltzen garelako, baina ni horrelako errepideetan ibiltzen naiz gustura", adierazi zuen iaz Subaru Impreza autoarekin *hegan* egin zuen Gorka Apalantzak. Hala, Apalantzak eten egin zuen azken urteotan Santi Artetxeren nagusitasuna. Bihar, berriz, Subaru horrek beste gidari batzuk izango ditu, Ander eta Angela Vilariño, lehenengoz Aramaion.

Ez dira, baina, auto *potoloekin* ibiliko diren bakarrak, besteak beste, Zapiain (Seat Cordoba WRC), Ruben Garcia (Escort WRC), Jose Labaka (Mitsubishi Evo V) eta Josetxo Zapiain (R. Maxi Megane) lehiatuko dira-eta.

Inhar Amenabar > Pilotua

"Euria eman dute biharko; hortaz, helmugara iristea da lehenetsuna"

X.U. > ARAMAIO

Inhar Amenabar pilotugaztearendako (Aramaio, 1988) herriko proban korritzen duen bigarren urtea izango da. Biharko eguna iristeko desatzen, eguraldiarekin kontuz ibili beharko duela dio.



GOIENKARIA

lazkoa lehenengo urtea izan zen lasterketetan, eta aurreten apur bat azkarrago gabilta, aldaketa txiki batzuk ere egin dizkiogu-eta autoari.

Zer moduz zabiltazte aurren?

Ondo, Euskal Herriko eta Errioxa-

ko probetan parte hartzen ibili gara eta joan den astean egin genuen marka onena, Hondarribian. Laugarren multzoan 17. postuan sailkatu ginen, eta 50 autotik gora ginen.

Gertu biharko probarako?

Bai, eguna iristeko desatzen. Baina euria eman dute eta kontuz ibili beharko dugu; proba amaitzea da lehenetsuna.

Iaztik hona, zertan aldatu da zure pilotatzeko modua?

Biharko faboritorik? Vilariñotarrak.

FUTBOLA > HIRUGARREN MAILA ETA OHOREZKO MAILA

## Liga ondoen hasi duenaren bisita izango du Aretxabaletak

Portugaleteren eta Salvatierraren kontra oso erraz irabazi du domekako kontrarioak

X.U. > ARRASATE

Aretxabaletak liderra hartuko du domekan (16:30, Ibarra), eta liga hasi berri liderra datorrela esatea asko esatea ez bada ere, Amorebieta kontrarioen gainetik pasa da hiru partidutatik bitan;

horrek erakusten du bizkaitarrek indartsu daudela.

Lehenengo jardunaldian bost egin zizkion Portugaleteri (5-2) eta joan den asteburuan Salvatierra 3-0 hartu zuten mendean. Tartean, bigarren jardunaldian

0-0 egin zuten etxetik kanpo, Amurrión. Emaizta horiekin hirugarren maila ondoen estreinatu duen taldea da Amurrión, baina aurrean azken jardunaldiko garaipenari esker sekulako konfiantza hartu duen Aretxabaleta izango dute.

MONDRAK JOKATUKO DU ETXEAN

Ohorezko mailan (lehenengo preferentea), Mondra da asteburuan etxean jokatu duen ordezkari bakarra (zapatua, 16:30, Mojategi). Azkargortaren mutilek aurreten kategoria horretan ondoen

indartu den taldeetako bat izango dute aurrean, Pasaia.

JAITSI DIRENEN KONTRA

Aloñak eta Bergarak, berriz, kategoriaz jaitsi berri diren Zarautz eta Ordizia izango dituzte aurrean. Bergarak Ordiziaren kontra jokatu du (zapatua, 16:15, Altamira), joan den astean Azkoagaitetik bizirik irten zen taldearen kontra, alegia (1-1). Aloñak, berriz, Zarautz izango du aurrean (zapatua, 17:00). Zarautzarrak 2-0 galdu zuten joan den astean Berrioren zelaian.



MOTO-KROSA > BERGARA HIRIA, EUSKADIKO OPENA

# "Euskal Herriko moto zirkuitu onenetariko egin dugu"

Antolatzaileek diote, tamalez, eguraldiak goitik behera baldintzatuko duela biharko proba

XABIER URTZELAI > BERGARA

Bihar goizean eguraldiari begira egongo dira Bergarako lasterketako antolatzaileak: "Euririk egiten ez badu lasterketa egingo dugu, baina euria hasten badu bertan behera utzi beharko dugu, nahiz eta pena handia hartu", adierazi du aspaldian Bergarako zirkuituan lanean dabilen Asier Blazquezek: "Sekulako zirkuitua geratu zaigu, benetan, Euskal Herriko onenetakoa. Aste barruan bertan egon naiz, eta aho zabalik geratu, salto ikusgarriak egin daitezke eta bertan. Pentsa, salto batean 37 metro egin daitezke; hortaz, pentsa jendeak zelan gozatuko duen".

Bergarako zirkuitua -Angiozarrera bidean, Garbigunearen ondoan-, baina, ez da egonkorra,

eta horren alde ari dira pilotu debagoiendarrak lanean: "Ibarraren 20 pilotu gabiltza zirkuitu egonkorren alde lanean, horrek sekulako aukerak emango lituzkeelako: lasterketak antolatu, ikastaroak eman, bizikletendako zirkuituak egin... ea adostasunera iristen garen denok".

EHUN PILOTU INGURU

Biharko lasterketarako antolatzaileek 100 pilotu inguru espero dituzte: "Hainbat kategoria egongo dira, kadete mailatik hasi eta beteranoetaraino; eta, horrekin batera motor klasikoak ere izango dira lehian, lehengo Bultaco MK11 motoak, Ossak... 25 urte baino gehiago dituztenak".

Orain dela hilabete gutxi crosscountry proba egin zuten



Bergarako zirkuituan, iaz, pilotuak elkarrekin saltoa egiten.

GOIENKARIA

Bergarako zirkuituan: "Baina ikusleendako askoz ikusgarriagoa da moto-krosa. Lasterketa motzagoak dira, 20 minutukoak, eta denbora tarte horretan pilo-

tuak topera joaten dira, sekulako saltoak eginez". Bihar, 11:00etan hasiko dituzte entrenamendu saioak eta 16:00etan egingo dituzte lasterketak.

> XAKEA

## Taldekako xake azkarreko txapelketa egingo dute Bergaran

Sanmartinetako jai egitarauaren barruan antolatu du Bergarako Xake Taldeak txapelketa, eta Nazioarteko Taldekako xake azkarreko txapelketa izango da.

Xake partidak Agorrosingo kirolgunean jokatuko dituzte eta bi saiotan banatuko dute txapelketa. Goizeko saioa 10:00etan hasiko dute eta, bazkaltzeko atsedean hartu eta gero, 16:00ekingo diote berriro ere txapelketari.

> MENDIKO BIZIKLETA

## Ibarreko mendiko bizikleta martxen berri emateko bloga

Aurten lehenengo aldiz Debagoieneko mendiko bizikleta martxak batu egin dira, neurri handian, antolaketa lanak errazago egin ahal izateko, eta martxa horietan gertatzen denaren berri emateko bloga jarri dute abian [www.goiena.net/blogak/debagoienamtb](http://www.goiena.net/blogak/debagoienamtb) helbidean, hain zuzen.

Azken asteotan Gatzagako eta Oñatiko martxak egin dituzte, eta martxa horietako erretratuak ikusgai dituzue blogean.

## ARRASATEKOBASERRIKO PRODUKTUENAZOKA

09:00 - 14:00 Seber Altube Plaza

## HILEKO 3. ZAPATUAN

Irailak 19

Urriak 17

Azaroak 21





TXIRRINDULARITZA &gt; LEHENDAKARI TXAPELKETA, OÑATIN ETA BERGARAN

# Gurean erabakiko da Lehendakari sariaren irabazlea

Oñatiko lasterketa bihar izango da; goizeko 10:00etan izango da irteera Olakua auzoan

Domekan, ostera, Bergaran izango da lasterketa, 10:00etan

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Oñatin eta Bergaran zapatuan eta domekan jokatu diren lasterketek erabakiko dute nor izango den aurtengo Lehendakari txapelketako irabazlea. Caja Rural taldeko Garikoitz Bravo dago sailkapeneko lehenengo postuan 104 punturekin; bigarren, 93 punturekin, Seguros Bilbao taldeko Ramon Domene dago.

Iaz ere gurean erabaki zen Lehendakari txapelketako maila; orduan, Jon Pardo nafarrak eraman zuen 19 eta 20 urte bitartekoek jokatzeko duten saria.



Iazko Oñati sariko irudia; Naturgas taldeko mutilak ageri dira lasterketaren buruan.

GOIENKARIA

**ETXEBERRIREN OMENEZKOA**

22. Oñati saria bihar, zapatua, jokatu da. Aurtengoa, gainera, Etxeberriren oroimenezko lehenengo lasterketa izango da. Goizeko hamarretan emango diote hasiera lasterketari Olakua auzoan. 102 kilometroko lasterketa izango da eta igo beharko dituzte, besteak beste, Kanpanzar eta

Udana mendateak. Txirrindulariak Zubillaga aldetik iritsiko dira helmugara, 12:30ak pasa.

**DOMEKAN, BERGARAN**

San Martin jaietan murgilduta, 44. San Martin saria jokatu dute domekan Bergaran. Goizeko hamarretan emango diote hasiera lasterketari San Antonio

kalean. Ondoren, geltokiko zubitik aterako dira saihesbidera. 97 kilometroko lasterketa izango da Bergarako. Helmuga San Antonio kalean bertan egongo da; espero da lehenengo txirrindularia 12:25ean iristea.

Iazko lasterketan Lizarte taldeko Enrique Sanz izan zen azkarrena San Antonioko helmugan.

**SAN MIGEL JAIK**

## Beteranoen zazpiko futbola zapatuan

A.E. &gt; OÑATI

San Migel jaien atarian hainbat kirol hitzordu izango dituzte aste bukaeran Oñatin. Aipatzekoa da aurten lehenengo jokatzeko dabilzan San Migel zazpiko futbol txapelketa. Herriko beteranoak dabilza txapelketa jokatzeko. Joan den aste bukaeran hasi zuten txapelketa 14 taldek; aurrera egin dutenek final-laurdenak jokatu dituzte zapatuan Azkoagainen, 13:00etan eta 14:00etan. Finala datorren astean izango da.

**GOLFA**

Domekan, 09:30ean, VII. golf txapelketa jokatu da Irelo-re golf eskolan. Zelaia dituen zazpi zuloei bi itzuli egin beharko dizkiete; 14:00 inguruan banatuko dituzte sariak. Iaz Josu Arregi eta Rosa Larrea izan ziren irabazleak.

**ARKU TIROKETA DOMEKAN**

Goizeko bederatzietan hasita baso ibilbideko arku tiroketa txapelketa jokatu da Urrutxu inguruan.



# IRURAK MARGOAK

## DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak

Moketa eta sintasola

Iztuku esponjatua

Paper pintatuak

Harea zorrotada

Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32



# G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **ELEBERRIA**  
Fermin Etxegoien  
oñatiarraren lehen  
eleberria:  
'Autokarabana' > 38



> **NEW GUASS**  
Ben Sims techno  
izar britainiarra  
izango da bihar  
Bergaran > 39

> **MAITENA  
MAÑARIKUA**  
14 urte besterik  
ez du, baina  
musika ibilbide  
nahiko luzea  
dagoeneko.  
Solfeoko ikas-  
ketak amaitu  
zituen eta  
pianokoak ere  
aurki bukatuko  
ditu > 42



David Gonzalez (baxua), Gorka Urbizu (gitarra eta ahotsa) eta Aitor Goikoetxea (bateria), Berri Txarrak taldeko hirukotea. Bihar Eskoriatzako kiroldegian izango dira.

GOIENKARIA

## Berri Txarrak disko berriarekin etorriko da bihar Eskoriatzara

### AURKEZPENA

'Payola' diskoa kaleratu berri du Berri Txarrak-ek; biraren lehen kontzertua da biharkoa

### HIRU TALDE

Nafarrekin batera, Deabruak Teilatuetan eta Simbiose izango dira Eskoriatzan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Aitzorrotz Kultur Elkartearen eskutik, Berri Txarrak taldeak kontzertua emango du bihar, zapatua, Eskoriatzako kiroldegian, 22:00etan. Nafarrekin batera Deabruak Teilatuetan eta Simbiose portugaldarrak izango dira *telonero* lanetan.

Kaleratu berri duten *Payola* diskoa aurkeztuko du Berri Txarrak-ek. Euren seigarren lana da Chicagon grabatu dutena. "Payola hitz arrunta da Estatu Batuetan eta Mexikon; Tom Waitzen biografia batean irakurri eta aproposa iruditu zitzaigun adierazi nahi genuen kontzeptuarendako. Orokorrean, eroskeriari buruzko gogoeta planteatzen du diskoak. Izenburu deigarria da;

Payola entzun eta zaleak wikipediara jotzen irudikatzea gustatzen zitzaigun...", diote nafarrek.

Astelehenean bertan jarri zuten diskoa salgai, Roadrunner Records zigiluaren eskutik. Zapatukoa izango da lehen aurkezpen kontzertua, astelehenean bertan Donostiako Doka Kafe Antzokian ezusteko emanaldia egin bazuten ere. Bi zatitan banatu zuten asteleheneko kontzertua eta Eskoriatzan ere gauza bera egin lezake: lehen zatian disko berriko kantu guztiak jo zituzten eta bigarren zatian taldearen kantu zaharrei tartea egin zieten.

Hirukotea gustura dago disko berriarekin: "Gure *marka* moduko horrek hortxe jarraitzen du, baina badira nobedadeak eta

orain arte sekula egin ez genituen estilo batzuk: 70eko hamarkadako hard rocka oinarri duten kantutak, riff astunetatik tiraka irten direnak eta zenbaitetan Black

Sabbath bezalakoak gogora ekar ditzaketanak... Kantu luzeak eta abesti punk-ak tartekatatu ditugu". Zaleendako ezinbesteko hitzordua bihar Eskoriatzan.

### Eskoriatza, biraren lehenbiziko geldialdia

Eskoriatzako emanaldiarekin emango diote hasiera Lekunberrikoek disko berriko aurkezpen birari. Urte amaiera bitartean beste lau kontzertu dituzte hitzartuta: Basauri, Iruñea, Gasteiz eta Durangon. Tartean, urrian, bira labur bat egingo dute Frantzian Burning Heads punk talde frantziarrarekin batera. "Disko berriarekin nazioartean irekitako ildo sakondu nahi dugu", diote Lekunberrikoek.

Biharko kontzerturako sarrerak 16 eurotan daude salgai Debagoieneko ohiko tokietan eta baita [www.ticketmaster.es](http://www.ticketmaster.es) webgunean ere. Zapatuan, berriz, kontzertuaren egunean, 19 eurotan salduko dituzte sarrerak.





Fermin Etxegoien.

GOIENKARIA

LITERATURA &gt; AURKEZPENA

# Fermin Etxegoienek 'Autokarabana' izenburuko lehen eleberria argitaratu du

Pamiela etxeak argitaratu du liburua eta atzo egin zuten aurkezpena Donostian

MIREIA BIKUÑA &gt; OÑATI

Fermin Etxegoien oñatiarrak *Autokarabana* izeneko lehen eleberria aurkeztu zuen atzo. Donostiako liburutegian egindako aurkezpenean, idazleaz gain, Pamiela argitaletxeko Jose Angel Garai

egon zen. Liburuaren gainen berba egin zuen egileak eta metaforaz betetako eleberria dela esan digu: "Autokarabana hitza aukeratu dut izenburu moduan, asko daudelako eta ohikoa bilakatu direlako gure artean. Autokara-

bana mugimenduan dagoen eta autonomoa den zerbait da. Gainera, metafora askotarako balio dezake; besteak beste, familiaren, kooperatibaren edo aberriaren metafora izan daiteke".

Kooperatiba baten lan egiten duen pertsonaiaren istorioa kontatzen du. "Protagonista Euskal Herrian bizi da. Hiri handi baten familia izan du, baina jaioterriara bueltatzen da eta kooperatiba hasten da lanean. Esperientzian oinarritutako literatura da, egungo familia eta laneko bizipenak jasotzen dituen", esan du Fermin Etxegoienek.

## BI URTE LIBURUA IDAZTEKO

Bi urte pasa eman ditu eleberria idazteko. "Egunero idatzi dut zerbait. Eguneroko lana izan da; bestela, 15 urte beharko nituzkeen liburua bukatzeko!", esan du.

Liburuarekin gustura dagoela azaldu du: "Nire helburua zen eleberri entretenigarria eta irakurterraza egitea, eta lortu egin dudala uste dut. Dena den, irakurleek esango dute gustatu zaien edo ez...".

Eleberria bukatu ondoren idazten jarraitu gura duen galde-tu diogu: "Ni lanbidez kazetaria naiz. Hiru urte egon nintzen, egunero, iritzi artikulua idazten *Berrin*-n eta horrek idazketarako grina piztu zidan. Idazten hasten zarenean, ezin duzu utzi. Dena den, nire asmoa ez da eleberri bat bukatu orduko beste bat idazten hastea".

## 'KALAKA'-KO GIDOILARIA

Fermin Etxegoien (Oñati, 1966) kazetaria da lanbidez. Egun, ETB1eko *Kalaka* saioko gidoilaria da. Aurretik, *Katu kale*; *Doctor Livingstone, supongo*; *Ciudadanos* eta *Lau haizeetara* saioetako gidoigile izan da. Era berean, egun, *Gaztea* irratian *Ekaitz perfektua* saioa egiten du. Bietan jarraitzeko asmoa du: "*Kalaka* saioa asterokoa da -eguenetan ematen dute ETB1en-; hortaz, egun gogorak izaten ditugun arren, ondo antolatzen dugu astea. Irratia gustuko dut, musikazalea naiz-eta".



## LANGILE ETA LANGABETUENTZAT PRESTAKUNTZA IKASTAROAK %100 DIRUZ LAGUNDUTA

Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotzen zaion katalogo modularra.

FABRIKAZIO MEKANIKO ARLOA	
Tornu konbentzionaleko mekanizazioa.	80 or.
Fresatzeko makina konbentzionaleko mekanizazioa.	80 or.
CNC tornuan programazioa. FAGOR 8055.	40 or.
CNC tornuan programazioa. FANUC.	40 or.
CNC fresagailuan programazioa. FAGOR.	46 or.
CNC fresagailuan programazioa. HEIDENHAIN.	46 or.
CNC tornuan programazioa eta exekuzioa.	46 or.
CNC fresagailu programazio eta exekuzioa.	46 or.
CNC sarpen bidezko elektrohiduraren prestaketa eta programazioa.	30 or.
CNC hari bidezko elektrohiduraren prestaketa eta programazioa.	30 or.
Abiadura handiko mekanizazioa.	50 or.
CAD. UNIGRAPHICS.	30 or.
CAM. UNIGRAPHICS.	20 or.
Mekanika diseinua. 3D Modelaketa. Modelatu eta Planoak.	30 or.
Mekanika diseinua. 3D Multzoak. SOLID WORKS.	30 or.
Marraketa 2D irudikapen grafikoa. AUTOCAD.	40 or.
Planoen irakurketa.	50 or.
Saiakuntza Suntsitzaileak eta ez Suntsitzaileak.	40 or.
Elektrodo eta erdiautomatikorekin Soldadura.	55 or.
Lan arriskuen prebentzioa. Oinarritzko maila.	40 or.
Tratamendu Termikoak eta Metalografia.	60 or.
Egiaztapen dimentsionala.	40 or.
Egiaztapen tridimensionala. COSMOS.	40 or.
Automatismo hidraulikoak.	36 or.
Zubi-Garabi erabiltzea	17 or.
Jasoketa eskorga.	23 or.
Hotzeko estanzazioa disenua.	20 or.
Erregulazio elementuak	20 or.
PLC's	60 or.
ELEKTRIZITATE ARLOA	
Oinarritzko Automatismo Programariak. STEP7-300.	35 or.
Automatismo Programariak Aurreratuak. STEP7-300.	40 or.
Muntaia Domotikoak. I. Maila. Sistema zentralizatuak.	40 or.
Muntaia Domotikoak. II. Maila deszentralizatuak. BUS EIB	60 or.
Elektrotekniko automatismoak.	40 or.
Etxebizitzeko instalazio elektrikoak.	60 or.
Megafonia-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Telefonia-interkomunikazio-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Antena-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Segurtasun-instalazioak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Eguzki-instalazio fotovoltaikoak muntatzea eta mantentzea.	30 or.
Baimendutako instalatzaile karneta ateratzera zuzendua.	100 or.
ADMINISTRARITZA eta INFORMATIKA ARLOA	
Enpresa txikiaren Administrazioa eta Kudeaketa	60 or.
Nominak eta Gizarte Segurantzak.	60 or.
Kontabilitate-analisia.	85 or.
Informatika-aplikazioak administrazio arloan	80 or.
Dokumentuen informatika-elaborazioaren kudeaketa.	75 or.

Ikastaroen hasiera data izen emateen arabera izango da. Hasiera batean ikastaroak astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 20:30etara izango dira, kontuan hartuko direla erreleboka lan egiten duten ikasleak.


**PRESTAKUNTZA ZIKLOAK ARRATSALDEZ.**  
Prestakuntza ikastaroa goi mailako zikloko sarbide-probetarako.



Informazio gehiagorako edo izena emateko:  
IEFPS Miguel Altuna



Ibargarai 1 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 70 49 • Faxe: 943 76 38 41 • email: [formakuntza@imaltuna.com](mailto:formakuntza@imaltuna.com)



Liburuaren azala.

GOIENKARIA



MUSIKA > GAZTELEKUAN

## Philippe Menard frantziarra Oñatin egongo da gaur

Bi emanaldi eskainiko ditu gaztelekuan: saio didaktikoa arratsaldean eta kontzertua gauean

MIRIAN BITERI > OÑATI

Philippe Menard frantziarrak emanaldi bikoitza eskainiko du gaur, egubakoitza, Oñatin. Arratsaldean, 18:00etan, gazte-  
endako saio didaktikoa eskainiko du gaztelekuan, doan. Horretan, *One man band* (persona bakarraz osatutako taldea) formulaz gain, 60 eta 70eko hamarkadetako musikaz eta bluesaz jardungo du bereziki. Gauean, berriz, kontzertua

eskainiko du, 22:30ean. Horretarako sarrerak bost euro balio-  
ko du.

Tequila taldean 17 urtez jardun ostean, Menardek bere bideari ekin zion *One man band* formula erabiliz. Gitarra, bateria, ahoko soinua eta berak egindako musika tresna bereziak jotzeaz gain, ahotsaz ere arduratzen da. Frantziarrak zazpi disko eta zuzeneko DVDA kaleratu ditu guztira.



Irudian, Ben Sims britainiarra.

GOIENKARIA

MUSIKA > NEW GUASS ARETOA

## Ben Sims disko jartzaile britainiarrak emanaldia egingo du bihar gauean

Techno alorreko gaur egungo izarretakoa da britainiarra; gauerdia aldera hasiko da saioa

M.B. > BERGARA

Joan den zapatuko inaugurazio festaren ostean, techno alorreko izarretako batek joko du bihar, zapatua, Bergarako New Guass aretoan: Ben Sims disko jartzaile eta produktore britainiarrak,

hain zuzen. Diskoteka saioa gauerdia aldera hasiko da. Horretarako sarrerak 15 eurotan jarriko dituzte salgai.

Ez da lehenengo aldia Ben Sims Bergaran dagoena. 2006an, Jam aretoaren 10. urteurrena

ospatzeko antolatutako jaialdian parte hartu zuen.

IBILBIDEA

Disko jartzaileak mundu osoa zeharkatu du 1997an Theory Recordings zigilua sortu zuenean. Hamar urte baino ez zituenean, hip-hop alorrean murgildu zen eta handik urte gutxi batzuetara, taberna txikietan disko jartzeari ekin zion; hip-hop house-ekin nahasten zuen orduan.

Dy-Na-Mix agentziarendako lanean hasi zenean, techno alorra jorrazteari ekin zion; gaur egun, esan bezala, esandako musika estiloaren izarretakoa da. Beste askoren artean, harena da *Manipulated* izeneko tracka.



Philippe Menard, kontzertu baten.

SAMUEL RAMES

ZURE AZALAK DISTIRA BEREZIA IZAN DEZAN

# ERREGENERAZIO PROGRAMA

Hidratazioa  
Oxigenazioa  
Fotogaztetzea

**AG**  
Amagara

Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09



Irailaren 18tik urriaren 2ra.

Zentro honek betetzen ditu 1002/2002 (BOE 243. 2002/10/10) Errege Dekretuan ezarritako araudia eta 265/2003 (EHAA 222, 2003/11/13) Dekretua. Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen arabera izango dira, baita pertsona bakoitzaren sentibiltasunaren arabera ere.



## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 89 metro koadroko etxebizitza salgai edo alokagai. Sukalde, hiru gela, egongela, bi bainugela, bi balkoi eta despentsa. Jantzita utziko genuke, garaje itxiarekin. 687 11 07 21.

**Aramaio.** Bi familiendako harrizko etxea, lorategiarekin, salgai. Parajelasaian (Errotabarrin) eta herritik oso gertu. Prezio interesgarria. 685 71 35 63.

**Arexabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdiguena. Aukera ona. Prezio negoziagarria. 659 64 67 38.

**Arexabaleta.** Markole. 100 metro koadroko etxebizitza salgai. Bi terraza (150 metro koadro), ganbara eta garajea. 650 34 89 85.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Arguin kalean. Hiru logela, egongela, sukalde eta komuna. 606 86 71 97.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Boluko Koldo Eleizalde kalean. Argitsua. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukalde eta terraza. Berogailuarekin. Jantzita utziko genuke. Prezio ona. 655 73 16 61.

**Noja.** Guztiz jantzita dagoen 70 metro koadroko duplex ederra salgai. Bi logela, sukalde, egongela handia, bi komun, bi terraza, garaje itxia. Urbanizazio pribatua, igerilekuarekin. Sei urteko eraikina. Aukera ona. 667 31 37 45.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukalde eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Zerrajeran. Hiru logela, bi komun, sukalde eta egongela handiak. Deitu 16:00etatik 23:00etara. 943 03 78 56 edo 685 73 29 94.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan unibertsitatetik 200 metrora. Lau edo bost pertsonarentzat. Berokuntza zentrala dauka. 659 44 86 79.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. 617 78 85 38 edo 943 79 31 47.

**Arrasate.** Ikasleentzako hiru logelako etxebizitza ematen da errentan erdiguena. Telefonoa: 666 45 87 42.

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza ematen da errentan. Bi komun, sukalde eta egongela. Eguzkitsua. 669 05 80 33.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bidekurutzetan. Bi logela, komuna, sukalde eta egongela. Bikote batendako aproposa. Egoera onean. Deitu 18:00etatik 20:30etara bitartean. 652 76 09 55.

**Donostia.** 2009-2010 ikasturterako atikoa ematen da errentan alde zaharrean. Bikote batentzako aproposa. Bi logela, sukalde-egongela eta komuna. 616 01 40 17.

**Oñati.** Apartamentua ematen da errentan. Bi logelakoa. Bikote batentzat aproposa. Deitu 20:00ak eta 22:30ak bitartean. 699 78 47 49.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Neska batek logela bakarreko etxebizitza hartuko luke errentan. 679 52 33 66.

**Bergara.** Premiakoa da. 666 01 13 42.

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza hartuko luke errentan Oñatin. 677 28 50 52.

## 105. ETXEA OSATU

**Arexabaleta.** Bi gela ematen dira errentan. 600 09 56 18.

**Arexabaleta.** Bi logela ematen dira errentan, sukalde erabiltzeko aukerarekin. 659 65 21 45.

**Arexabaleta.** Partekatutako etxe batean bi gela daude alokagai. Etxe berria. 250 euro, gastuak barne. Deitu ezazu telefono honetara: 616 75 41 30.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan Eguzki dorrean. Deitu ezazu telefono honetara: 620 52 94 98.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan sukalde erabiltzeko aukerarekin. 270 euro. 618 00 08 28 edo 943 79 82 43.

## IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:  
ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.  
GOIENKARIAK ez du argitaratzen dirén iragarkiñen ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Bergara.** Erdialdean. Logela ematen da errentan. 170 euro gehi gastuak. 696 02 68 30 edo 670 40 74 53.

**Bergara.** Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Sukalde eta Internet erabiltzeko aukera. Deitu 670 85 86 68 telefono zenbakira.

## 106. BESTELAKOAK

**Oñati.** Langile gazteak logela edo apartamentua behar du. Beste batzuekin batera etxebizitza bilatzeko ere gertu nengoke. Deitu 679 29 31 06 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garajea hartuko nuke errentan Bolu inguruan. Deitu ezazu 675 70 50 43 telefono zenbakira.

## 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu umeak zaintzeko, arratsaldean. Deitu ezazu 675 70 50 43 telefono zenbakira.

## ARETXABALETAK

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira. Paper gabekoek ez deitu. 638 48 25 43

## BERGARA

**BERGARAKO industrialdean PABILIOIA ERRENTAN. 1.000 m<sup>2</sup>. Tarte ko solairuan 120 metro koadro bulego eta zerbitzuetarako. Instalazioa eginda dago. 630 96 71 00**

## BERGARA

**Sukalde laguntzailea behar da asteburutan sagardotegian. 690 85 52 25**

## 402. ESKAERAK

**Arexabaleta.** Emakumea gertu nagusiak zaindu, etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Mari. 943 53 33 92.



DEBA  
GARAIA

INMOBILIARIA

Telesforo Aranzadi 2

T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

## ETXEBIZITZAK SALGAI

## BERGARA

- Artekale, 89 m<sup>2</sup>, ondo.
- Arizuri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin.
- Matxiategi, 65 m<sup>2</sup>, berriua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m<sup>2</sup>, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m<sup>2</sup>, berria, garajea eta trastelekua.
- Zubieta, 55 m<sup>2</sup>, 84.142 euro. Negoziagarriak.
- Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo.
- Ibargarai, 80 m<sup>2</sup> oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m<sup>2</sup> oso ondo.
- Urdangarin pasealekua, 132 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m<sup>2</sup>, eguzkitsua, berriua.
- Elorregi 70 m<sup>2</sup>, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m<sup>2</sup>, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>, berriua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m<sup>2</sup>, terraza eta ortuarekin.
- Bidekurutzeta, 50 m<sup>2</sup>, berriua. Oso eguzkitsua.
- Zabalotegi, 111 m<sup>2</sup>, oso ondo.
- Etxebizitza berrien erakuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubieta, Martokon eta San Lorentzon.

## SORALUZE

- Baltegieta, 83 m<sup>2</sup>, berria.
- Sagarrerreka, 58 m<sup>2</sup>, aukera ona.

## ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m<sup>2</sup>, erdi berriua.

## ELGETA

- San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

INMOBILIARIA

**Ibargarai 3 • BERGARA**  
Tel. / Faxa: 943 76 97 97  
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**

- Matxiategi 82 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Zubieta 230 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubieta 80 m<sup>2</sup>. Berritua. Ganbarearekin.
- Elusu baseria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 m<sup>2</sup>. Berritua. Gazteentzat.
- Zubieta 67 m<sup>2</sup>. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m<sup>2</sup>. Oso ondo
- Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Antonio, 46 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Masterreka. 46 m<sup>2</sup>. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m<sup>2</sup>. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Ganbarearekin.
- Osintxu 64 m<sup>2</sup>. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m<sup>2</sup>. Terrazarekin.
- Zubieta 58 m<sup>2</sup>. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m<sup>2</sup>. Oso ondo.
- Osintxu 62 m<sup>2</sup>. Prezio ona.
- San Lorenzo 68 m<sup>2</sup>. Berritua.
- Zubieta 55 m<sup>2</sup>. Berritua. 84.162 €.
- Etxebizitza berrien erakuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.
- San Lorentzon etxe berriak

**Antzuola:**

- Buztinzi, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m<sup>2</sup>. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135.000 €.

**Elgeta:**

- San Roke 72 m<sup>2</sup>. Berritua.
- San Roke 80 m<sup>2</sup>. 80 m<sup>2</sup>-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m<sup>2</sup>. Berritua.

**Soraluze:**

- Atxuri 49 m<sup>2</sup>. 117.618 €.

## 502. EMAN

**Antzuola.** Ingelesko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Deitu 618 92 95 75 edo 679 86 68 39 telefono zenbakira.

**Arexabaleta.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBH edo batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago. Deitu 670 71 24 97 telefonora.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikasi duen mutil batek Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko eskola partikularrak emango lituzke. 664 66 73 09.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrozitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Ingelesko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. 635 73 77 21.

**Arrasate.** Ingelesko eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Esperientzia handia. 609 94 90 01 edo 943 77 16 90.

**Arrasate.** Unibertsitateko ikaslea gertu asteleheneetatik ostegunetara eskola partikularrak emateko. Orduetgia: 18:30etik aurrera. Txaber. 636 12 05 79.

**Bergara.** Ingelesko eskola partikularrak ematen ditut. Komunizazioa lantzeko. 654 94 87 26.

**Bergara.** Ingelesko eskolak ematen dira. Maila guztiak. 618 91 32 89.

**Bergara.** Ingelesko irakasle ezaguna eskola partikularrak emateko gertu. Azterketak gainditzeko edo erforzaturako. Oso merke. 616 12 56 29.

**Bergara.** Kimikan lizentziadun batek matematika, fisika, kimika, natur-zientziak eta geologia eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Irakaskuntzaren esperientzia. 648 06 79 85.

**Debagoiena.** Arkitekтура lizentziadun batek matematika, fisika, kimika, kimika, natur-zientziak, marrazketa... eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. 639 46 07 26.

**Debagoiena.** Ingeles komunikatibo eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak prestatzeko edo eskola laguntza. 15:00etatik aurrera. Telefonoa: 610 97 49 68.

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntza, DBH edo Batxilergoko klase partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika, ingelesa...). 678 27 27 57.

## 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Ford Transit** Connect Van zuria salgai. 2008koa. Lanerako prestatua, kristal bako kaxa, biserleku, zerbitzu publiko txartela, oso kilometro gutxi. Oso prezio ona. Deitu 10:00etatik 13:00etara edo 16:00etatik 19:00etara. 672 62 42 33.

**Opel Corsa Joy.** 1400 cc, 16v, 38.500 km eta 4 urte. Oso egoera onean. 7500 euro. 688 61 76 77.

## 7/ ANIMALIAK

## 701. SALDU

**Behiak eta ardiak.** 6 behi eta 18 ardi saltzen dira. 697 53 08 40.

**Txakurrak** salgai. Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. Bi ar. Hiru koloretakoak. Ehi-zarako aproposak. Uztailaren 23an jaiotak. Deitu 649 84 67 09 telefono zenbakira.

## 703. EMAN

**Katakumea** ondo zaindu duen norbait behar da. Oso otzana eta polita da. Hiru hilabete ditu. Egurtua izan da. Deitu 656 75 87 93 telefonora.

## 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Altzariak.** Bi plazako sofa eta relax bat salgai. Marroiak. Estreintatu barik. Dena 320 euroan. Arrasaten. 660 21 98 44.

**Bergara.** Dendarako altzariak eta osagarriak salgai. Manikiak, beira-arasak, metalezko apalategiak eta mahai osagarriak. 627 96 19 22.

**Bi bizikleta tolesgarri** salgai. Eramateko poltsarekin. Egoera onean. Kanpinerako egokiak. 130 euro biak. 688 65 30 62.

**Egurrezko altzaria** apalekin salgai. Prezio interesgarria. 639 94 48 65.

**Gurpildunauki** motorduna salgai. Erabili gabea. Prezio negoziagarria. 618 62 79 43 edo 943 79 65 72.

**Hozkailu industrialak.** 2,05eko altuera, 1,40ko zabalera eta 0,70eko sakonera. Hiru atekoa. 649 84 67 09.

**Liburu** oso zaharrak saltzen ditut. Eleberrri, ipuin... 696 84 19 51 edo 943 53 29 18.

**Mendiko bizikleta.** Mondraker Factor R salgai, suspentsio bikoitza eta blokeoarekin. Prezioa 1.400 euro. 655 74 48 55 edo 943 78 24 90.

**Nokia 6124** telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 50 euro. 617 13 17 51.

**Oilagorretarako** txartel bi salgai Burgosen. 3.900 hektarea, haritz eta pinuz, Pinilla de los Barrueros eta Gete herrietan (Salas de los Infantestik 8 kilometrorra). Gehienez 11 eskopeta. Txartel bakoitzak 1.200 euro. 696 92 18 29 edo 665 70 10 31.

**Piragua bi** salgai. osagarriekin, bata mistoa eta bestea erreka edo olatuetarako aproposa. 679 10 95 23.

**Umeendako karroa.** Silver Cross etxekoa. Oso egoera onean. 250 euro. Ez da aulki egiten. Arrasate. Tamara. 679 23 27 93.

**Umeendako karroa** salgai. Jane markakoa. Hiru gurpileko, eta freno. la berria. Prezioa interesgarria. 100 euro negoziagarria. 608 36 26 07.

## 802. EROSI

**Arexabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu zenbaki honetara. 696 32 63 13.

**Bergara.** Artzain txabola erosi eta lokal batetik trukatu nuke. 645 00 80 55.

**Borda** edo antzekoa erosiko nuke. tuyo585@hotmail.com. 669 17 09 51.

**Lursaila** erosiko nuke Bergara inguruan. Idatzi mezu bat tuyo585@hotmail.com helbidera edo deitu 669 17 09 51 telefono zenbakira.

## 804. HARTU

**Altzariak.** Etxea osatzeko altzari eta etxetresnak hartuko nituzke, ezin ditudalako erosi. 615 79 51 89.

## 806. GALDU

**Sakelako telefonoa** galdu dut. PESAKo autobusean Bilbo-Bergara ibilbidean. Deitu ezazu telefono honetara: 639 50 51 85.

## 9/ HARREMANAK

## 904. BESTELAKOAK

**Bergara-Donostia.** Egunero Bergararik Donostiara (Errotaburu-joan) joaten naiz. Norbaitek gastuak banatu nahi baditu, deitu. 679 86 51 36.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero, deitu. 635 20 33 14.



# VIII. RALLYSPRINT'ak

## ARAMAIXO · ARABA

2009  
irailak 19



1 GO MANGA, 15:30EAN  
BIDE MOZKETA, 14:30EAN 3 MANGA



**JUBAR®**  
ATEAK, S.L.

Ate eta pertsianak. Puertas y persianas. Automatismok. Automatismos.

Pol. Katalde, 18 ARRASATE ☎ 943 79 10 20

APLICACIONES INDUSTRIALES CON PERFIL DE ALUMINIO

**PERFIPAR, S.L.**

Tfno. 943 71 30 20 • Fax: 943 71 30 06

**Lur Gorri, s.l.**  
Excavaciones - Aterkuntzak

Aspikoetxe baserrria. Uztetilla Auzoa. 01160 ARAMAIO (Euskal Herria)

Tel.: 639 472 990 / 696 952 598

**BESAIDE S.A.**  
excavaciones

Tfnos. 943 71 26 96 - 943 79 78 31  
Polígono Markulete  
20500 ARRASATE

**Udalaitz, S.L.**

Gipuzkoa Etorbidea, nº 36 • 20500 ARRASATE-MONDRAGÓN  
Teléfono 943 71 18 70 • Fax 943 71 18 71 • udalaitz@otola.org

SERVICIO OFICIAL

**KANPAZAR FIAT**  
Alfa Romeo

TALLER: Bizkai Etorbidea, s/n • ☎ 943 79 41 98 - Fax 943 77 12 84  
20500 ARRASATE Gipuzkoa

**CE Cristalería Errasti, S.L.**

Tel./Fax 943 791 425 • Tel./Fax 943 792 255  
20500 ARRASATE

**UGARTE**  
LANTEGI ORNIGAIK-SUMINISTROS INDUSTRIALES  
www.suministrosugarte.com

**GORBEA**

Distribuciones Gorbea Pol. Ind. Katalde 12 20500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tel./Fax: 943 771 417

OSTALARITZA ETA TXIKIKARDI KOMERTZIOEN BANATZALEAK GARAI!

granini mahou KAS RAM PEPSI SIZIFER OTELO

RIJOJA VEGA

**ad Ibbabe**

**GARAJE IBABE C.B.**  
Txapa, Pintura eta Mekanika

Gesalibar Auzoa, 31 • Arrasate-Mondragón • Tel: 943 79 99 61 • Fax: 943 79 13 90

Revisiones para ITV - Neumáticos - Cambios de aceite

**Arteaga**  
Landetxea

**gestión aholkulariak**

**gertu**

Tfnoa. 943 79 94 21  
Faxa 943 79 86 44  
gertu@conet.es  
Otalora, 38-B  
20500 ARRASATE

**EUSKAL PRESOK**  
EUSKAL HERRIRA

**tw** Logística S.L.

**OPEL**

**Giauto** 902 345 123  
www.giauto.es

**AÑAI TABERNA**

Eguneko menuak, Razioak, Piater konbinatuak, Bokadilloak, ...  
tel: 945-44-51-01 (Aramaio)

**I TURRIETA SAGARDOTEGI**

Isturietta Baserrria - Auzoa Aramaio  
j.turrieta@yahoo.es • Tfnoa: 945 445 385 - 685 721 593  
http://iturrietasagardotegi.blogspot.com/

**Tximela S.A.**

Venta y Alquiler Maquinaria O.P. Maquinaria Salmerita eta Algeira

**LETE TOLDOAK**

Tel. 943 77 05 58  
ARRASATE

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

**epele**  
Caldereria

**KANPAZAR ERRETEGIA**

Kanpazar gaina - Iguria auzoa z/g ELORRIO - Bizkai ☎ 946 582 912 / 669 302 686

**GRUAS IBAI**  
SERVICIO PERMANENTE

San Juan - 20570 BERGARA (Gipuzkoa) • ☎. móvil: 659-67.68.21 / 607-76.33.10

**Arriboto**  
aramaio abertza  
Musika eta giro paregabea  
Bixente Goikoetxea 10 • ARAMAIXO

**JOMA**

**BEREYA**  
elekttrizitatea  
INSTALACIONES ELECTRICAS  
T.D.T. Televisión Digital Terrestre

NOTARIO ETXAGIBEL, 1-PAB. 2 • ARRASATE  
TEL. 943 79 13 79 - FAX 943 77 15 34 - Móvil 670 083 410

**ARGI-PLASTIK**  
Fabricación de Ventanas, P.V.C., Aluminio Térmico, Poliuretano

EXPOSICIÓN Y FABRICA: Zigarrola, 1 - Pab. 8 Tel./Fax: 943 77 11 30 ☎ 943 79 62 18 20500 MONDRAGON

DELEGACIONES: San Pelayo, 22 • ☎ 943 17 33 08 48260 ERMUA

**AMG autoak**

Torrebaso Pasalekua, 14-b 20540 ESKORITATZA 943 714 279

**BIRIBIL**  
TABAKOAK, EDARIAK  
Zarugalde 35 - ARRASATE

**Gallastegi**  
MOTOR SPORT

Telleria, 4 Pabellón 5 Debagoiena Industrialdea 20500 Arrasate Tel.: 94 379 73 58

**BOLINTXO**  
OKINDEGIAT - GOZOTEGIAT

San Juan Auzoa • BERGARA  
Tel. 943 76 16 93



Maitena Mañarikua &gt; Organo eta piano jolea

# "Elizan organoa jo arren, entzuteko kantu modernoagoak gustatzen zaizkit"

Gaztea da Maitena Mañarikua elgetarra, 14 urte ditu. Baina hain gaztea izateko musika ibil-

bide nahiko luzea du. Solfeoko ikasketak amaitu zituen eta pianokoak ere aurki bukatuko ditu.

Hala ere, horrekin nahikoa ez eta organoa jotzen ikasten ere badihardu. Haren doinuak Elge-

tako elizan entzun daitezke domeketan, baina entzun denetarikoko musika entzuten du.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Gero eta ezohikoagoa da jende gaztea elizan ikustea, eta are bitxia goa gazte horietako batek elizako organoa jotzen badu. Bada, Maitena Mañarikua elgetarrak domeketan organoa jotzen du Elgetako elizan. Hala ere, elizako kantuez gain, bestelako musika modernoagoa ere atsegin du.

**Pianoa eta organoa jotzen dituzu. Noiz hasi zinen musika ikasketekin?**

Elgetako musika eskolan hasi nituen musika eta piano ikasketak. Gero, Bergarara ikastera joan nintzenez, hango musika eskolan hasi nintzen piano eskolak hartzen. Solfeoko ikasketak amaitu nituen eta orain pianoko seigarren mailan nabil. Organoa jotzen ere ikasten dihardut.

**Zergatik aukeratu zenuen pianoa jotzen ikastea?**

Gurasoek esan zidaten ea musika tresnaren bat jotzen hasi nahi nuen, eta aurrez kontzerturen baten entzuna neukanez eta polita iruditzen zitzaidanez, hori aukeratu nuen.

**Lehiaketetan ere hartu izan duzu parte, ezta?**

Bai. Andoainen. Hala ere, lehiaketa moduan baino gehiago, ikasitako beste aurrean erakusteko modu bat bezala hartu behar da. Hasieran apur bat urduri ipintzen nintzen, baina, piezak ondo ikasiz gero, norbera ere lasaigo egoten da. Antolatzaileek piezak ematen dituzte aukerari eta ikasitakoan han jotzen dugu.

**Jendaurrean jotzen duzu?**

Askotan ez, baina Andoaingo lehiaketan ez ezik Elgetan, Espaloian ere jo izan dut, eta orain domeketako mezetan organoa ere jotzen dut Elgetako elizan.

**Nolakoa izan da pianotik organorako pausoa?**

Pianoa jotzen jarraitzen dut oraindik, baina irakasleak esan zidan ea berarekin elizan organoa jotzeko prest banengoen, eta ikasten hasi nintzen. Hasieran, ikasi bitartean, biok jotzen genuen; nik kantu errazak eta hark gainontzekoak. Gero, bakarrik jotzeko gai nintzela esan zidan, eta orain domeketan txandaka jotzen dugu. Organoan pedalak eta botoiak ondo erabiltzen jakin behar da, eta pianoa baino zailagoa den arren, gustuko dut. Hala ere, oraindik gehiago praktikatu behar dut maila ona hartzeko.



LARRAITZ ZEBERIO

**Non jotzen duzu?**

Elgetako elizan eta baita Bergarako Santa Marinako elizan ere; azken horretan, ikasteko.

**Nolakoa da mezan organoa jotzea?**

Ni batzuetan joaten naiz mezara eta organoa jotzea tokatzen zaidanean ere gustura egiten dut. Mezako kantuak gogoko

ditut organoarekin jotzeko, baina ez dago bat bereziki gustatzen zaidana, jo behar direnak jotzen ditut eta kitto.

**Pianoarekin nolako kantuak jotzen dituzu?**

Pianoan bestelakoak: euskal kantuak jotzen ikasten dihardut eta beste batzuk martxoagoak ere bai. Hala ere, badira hainbat

pieza pianoan ikasten ditudanak eta gero organorako balio dutenak; hortaz, elizan ere jotzen ditudanak.

**Eta entzun, zein musika entzuten duzu?**

Denetarik. Erabat klasikoak entzutea ez dut gogoko, baina rock eta horrelako estiloetakoak ere ez. Modernoak entzuten ditut: Ama-

ral, Amaia Montero... Euskal kantuak ere gustatzen zaizkit. Gainera, euskal kantu batzuen partiturrak ematen dizkirate irakasleek eta pianoan jotzen ditut. Inoiz joan izan naiz piano kontzerturen bat zuzenean entzutera aitarekin, eta gustatu egin zitzaidan.

**Musika ikasketak sakontzeko asmorik baduzu?**

Solfeoko sei mailak egin nituen; hala ere, pixka bat sakontzea ez legoke gaizki, baina oraindik goiz da horretarako. Oraingoz, konforme noizbait Bergaran, Elgetan edo Andoainen kontzerturen batean parte hartuz gero.

**Beste zaletasunik baduzu?**

Patinetan ibiltzea gustuko dut. Txikitik ikasi nuen eta lagunekin ibiltzen naiz herrian bueltaka: txaleten inguruan, goiko biribilgunean, handik plazara jaitsi... Baserrira ere lagunekin joaten naiz eta txakurrarekin paseatzea gustatzen zait. Baserrira ez ezik lagunekin inguruko herrietako jaietara joatea ere gustatzen zait: Elgetako jaietan ibiltzen gara, baina baita Elorrioren, Eibarren, Bergaran, Antzuolan...



L.B.

## PERTSONALA

**Herria:** Elgeta. **Adina:** 14 urte. **Ikasketak:** DBHko hirugarren maila. **Zaletasunak:** Musika, pianoa eta organoa jotzea, patinetan ibiltzea eta lagunekin baserrira eta jaietara joatea. **Film bat?** Barre eragitekoak gustatzen zaizkit. **Pianorako pieza bat?** Edozein

euskal kantu; *Eperra eta Urepeleko artzaina*, esaterako. **Elizako kantu bat?** *Nire bizia*, polita da. **Musika talde bat?** Amaral. **Bidaia bat, nora?** Hemen gustura nago, baina joatekotan Ingalaterrara joango nintzateke gustura.



# Pedro Olea zinema zuzendaria 'Magazinea'-n

'Zinezko bizitza' saria jasoko du zuzendari bilbotarrak Donostiako Zinemaldian

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Pedro Olea zinema zuzendari bilbotarrari elkarrizketa egingo diote eguazteneko *Magazinea* programan. Kutzako Urrezko Zerbitzuak urtero Donostiako Zinemaldian ematen duen *Zinezko bizitza* saria jasoko du aurten Oleak eta sari horren inguruan,

zineman egindako lanaz eta bere ibilbideaz galdetuko diote bilbotarrari. Oleari egindako elkarrizketaz gain, Arrasateko Gazte Bulegoak software librea instalatzeko egindako hitzorduaz ere jardungo dute saioan. Astelehenean, berriz, Jose M. Bengoa oñatiarra gonbidatuko dute artzain- txakur txapelketaren 50. urteurrenez hitz egiteko, eta martitzenean Garagaltzako buzkan-tzak izango dira hizpide.

**GOITB, 'Magazinea'**  
> Eguaztena, 19:45



Gipuzkoa Kultura saioaren karetakeko irudi bat.

GOITB

## telebegi

Edorta Arana

> 'edorta.arana@ehu.es'

### Zuzenean, errepikatu

**P**latoan eginiko saioak soilik izaten dira zuzenean. Gainontzeko telebista programak aurrez grabatuak izaten dira. Enlata-tuak izendatzen dituzten horien artean daude, besteak beste, fikziozkoak, lehiaketak eta dokumentalak.

Programatzailearen zereginen artean dago behin eta berriz, kanal berean ala kompetentzian emittituak izango diren saioak berriaren prezioan saltzea. Eta batzuetan lortzen dute. Gehiengoz ez.

Eufemismo batez (multidifusioa) deitzen duten urtaro nagusia uda da eta hor gogaitu arte errepikatzen dituzte urtean zeharreko programen bilduma eta birbildumak.

Bereziki kanal tematikoetan dauka zentzua behin baino gehiagotan aireratzen diren saioen kudeaketak. Gai batean espezializatzen diren kanal horietan, egunero ordu pare bateko tartea izaten da estreinuko, asko jota; gainontzekoa alde aurretik eskaintakoa izaten da. Espezializazioa.


## Donostiako Zinemaldia irratian

O.E. > ARRASATE

Iñaki Igartua oñatiarrak itzultzaile lanak egingo ditu Donostiako Zinemaldian, eta elkarrizketa egingo diote Arrasate Irratian astelehenean. Filmeen, zuzendarien eta aktoreen aurkezpenak egiten ditu oñatiarrak, eta pelikula bukatu ostean, bertaratu diren galdera eta iritziak itzultzen ditu. Bigarren urtez jardungo du lan horretan Donostiako Zinemaldian.

**Arrasate Irratia, 'Uda giroan'**

> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara



### Motor hotsak 'Harmailatik' saioan

Bi eta lau gurpileko ibilgailuen motor hotsak entzungo dira asteleheneko *Harmailatik* programan. Izan ere, zapatuan motorzaleek dituzten bi hitzorduren berri emango dute, zabal, Xabi Urtzelai aurkeztu duen programan. Batetik, Aramaion egingo duten rallysprinta landuko dute eta, bestetik, Bergarako San Kristobal auzoan egingo duten moto-kros txapelketa, Bergara Hiria Euskadiko txapelketa.

**GOITB, 'Harmailatik'**  
> Astelehena, 22:15

## astea GOITBn

## arrasate irratia

FM 107.7

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Uda Giroan

Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Astelehenetan Kirolak  
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)  
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin  
Udal Gazte Bulegoa  
Sexologia Zerbitzua  
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...  
Astearen errepaso (Goienkariarekin)  
Egunko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak  
Zozketak (egubakoitzean)  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 ([irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com)))  
12:05 Euskadi Irratiko albistegia  
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Uda Giroan  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

Egubakoitza, 18	Zapatua, 19	Domeka, 20	Astelehena, 21	Martitzena, 22	Eguaztena, 23	Eguena, 24
13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak .	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	10:30 Trikitraka trikiton.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Eltze beroa.	11:30 Kantari.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Ikusmira.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	14:00 Elkartasun bideak.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Elkartasunaren bidean.	14:30 Ikusmira.	12:30 Ikusmira.	15:15 Mugaz kanpo.	15:10 Harmailatik.	15:10 Ilunpean.	15:15 Elkartasunaren bidean.
16:15 Ikusmira.	15:00 Ur eta lur.	13:00 Erreportajea.	15:45 Elkartasunaren bidean.	15:50 Solaskide.	15:50 Golb tb.	15:45 Mugaz kanpo.
16:45 Berriak.	15:30 Trikitraka trikitron.	13:45 Solaskide.	16:15 28 klip.	16:20 Itsasoari begira.	16:20 28 Klip.	16:15 28 Klip.
17:15 Marrazki bizidunak.	16:30 Marrazki bizidunak.	14:15 Eltze beroa.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.
18:00 Ilunpean.	18:00 Erreportajea.	15:45 Kantari.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.	18:30 Solaskide.	18:15 Trikitraka trikiton.	17:45 Wazemank	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	17:15 Musikantoi.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:00 Ikusmira.	19:15 Erreportajea.	18:15 Musikantoi	18:05 Solaskide.	18:15 Ur eta Lur.	18:00 Gipuzkoa Kultura
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Ur eta lur .	19:45 Solaskide.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
20:45 Kantari.	20:00 Erreportajea.	20:15 wazemank.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.
21:15 Goiena Magazinea.	20:30 Golb tb.	21:15 Ur eta lur.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
22:15 Solaskide.	21:00 Ikusten.	21:45 Musikantoi.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.	20:45 Kantari.
22:45 Musikantoi.	21:30 Ilunpean.	22:45 Golb tb.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
23:45 Goiena Magazinea.	22:15 Solaskide.	23:15 Ilunpean.	22:15 Harmailatik.	22:15 Ilunpean.	22:15 Ilunpean.	22:15 Ilunpean.
00:45 Emisio amaiera.	22:45 Musikantoi	00:00 Itsasora begira.	23:00 Erreportajea.	23:00 Lamien artean.	23:00 Lamien artean.	23:00 Lamien artean.
	23:30 Wazemank.	00:30 28 klip.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.
	00:30 28 klip.	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.
	01:00 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.






Arrasateko **Ruben Alonso** eta Durangoko **Elvira Alfaro** bihar ezkonduko dira Legutioko parrokian. Bazkaria Gasteizen egingo dute. Bidaia Thailandiara egingo dute. Blind koadrilaren partetik, ondo pasa eguna eta ondo ibili Asia aldean!



Bergarako **Eider Domenech** eta **Jon Sotil** bihar ezkonduko dira. Ospakizuna Oñatiko Zelai Zabal jatetxean egingo dute. Bidaian AEBetara eta Bora Borara joango dira. Etxeko guztien partetik, zorionak, bikote!



**Raul Navas** aretxabaletarra eta **Itziar Velasco** eskoriatzarra bihar ezkonduko dira Dorletako santutegian. Eztei-bidaia New Yorkera eta Mexikoko Maia Erriberara egingo dute. Zorionak eta muxu bana, laguneren partetik.



**Oihana Racionero** eta **Jon Velasco** arrasaterak bihar ezkonduko dira Arantzazun. Ondoren, bazkaria egingo dute Arantzabaleto Baster-Alde jatetxean. Bidaian Argentinara joango dira. Lagunen partetik, zorionak eta ondo ibili!



**Mikel Castillo** eta **Eva Romero** arrasatearrak abuztuaren 29an ezkondu ziren. Bazkaria Salegi jatetxean egin zuten. Astelehenean AEBetara eta Hawaiira doaz bidaian. Etxeko partetik, ondo ibili bidaian eta *etxeko lanak* eginga ekarri!



**Jose Antonio Morero** arrasatearra eta **Begoña Barron** madrildarra bihar ezkonduko dira Segoviako La Granja de San Ildefonso, 18:00etan. Afaria eta parranda Esquileon (Cabanillas del Monte) egingo dute. Zorionak, bikote, Azkenpoteren partetik!

## bono fotoa



**Oñatin ermita eta monasterio ugari dago. Monasterio horretan, beste hainbat bitxiren artean, erretaula barroko ikusgarri hori. Nola du izena monasterioak?**

Argazkia eta galdera > Jose Fernandez

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**  
Arrasateko **Felix Ayastui**.  
Zorionak!  
Erantzun zuzena:  
Arrasaten, Altzibar baserria.



Garmendia Ardoek emandako  
**Ardo botila packa\***  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

\* Larchago iskillarapeko ekologikoa botila bat. Larchago beltz berezia botila bat. Larchago kiantza botila bat.

ERANTZUNA .....  
IZEN-DEITURAK .....  
HERRIA ..... TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



#### Zapatua, 19

Goizean eguzkia eta lainoak borrokan ibili ostean, eguerdirako zirimiria izango da eta arratsalde parteterako dena lainotuko du.



#### Domeka, 20

Goiza laino artean esnatuko da eta eguerdian zirimiria egingo du. Arratsalderako, berri, zaparradak daude iragarrita.

### EUSKAL HERRIAN

Zapatu goizean zerua oso hodeitsu egongo da eta gero euria egingo du arratsaldean, poliki-poliki atertzen joango den arren. Domekan, ostera, toki gehienetan ateri izango da, baina lainotuta.



### TEMPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	10°C	Max.	Min.	Euria
Astelehena, 14		°C	°C	l/m <sup>2</sup>
Eguaztena, 9	30	15	-	
Eguena, 10	31	14	-	
Egubakoitza, 11	28	15	-	
Zapatua, 12	24	12	-	
Domeka, 13	24	15	-	
Astelehena, 14	19	10	-	
Martitzena, 15	20	12	25,1	

ASTEKO EURIA  
(l/m<sup>2</sup>) **25,1 L**

## guardiako farmaziak

### ARRASATE

Zapatua, 19	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Domeka, 20	Corcuera	Maisu Aranbarri	943 79 2226
Astelehena, 21	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Martitzena, 22	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 18 65
Eguaztena, 23	Español	Araba Etorbidea, 14	943 79 18 65
Eguena, 24	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Egubakoitza, 25	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 79 12 39

### BERGARA

Zapatua, 19	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Domeka, 20	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Astelehena, 21	Camacho	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Martitzena, 22	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Eguaztena, 23	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguena, 24	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Egubakoitza, 25	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15

### OÑATI

Zapatua, 19	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 20	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 21	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 22	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 23	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 24	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22

### ARETXABALETA/ESKORIATZA

Zapatua, 19	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 20	Fraille	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 21	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Martitzena, 22	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 23	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Eguena, 24	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28
Egubakoitza, 25	Agirre	Gorosarri Plaza	943 71 48 28

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.  
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.



URTEURRENA

## Manuel Davila Murillo

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 19an, 19:30ean, Aretxabaletako Ama Jasokundearen parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## David Solaun Zubialdea

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 20an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Felix Uriarte Galdos

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 20an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Valentin Jauregi Loiti

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 20an, 12:50ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Manuel Alberdi Makazaga

2008ko irailaren 23an hil zen, 79 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 20an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Ama eliz nagusian izango da.

*Nahiz eta gure artean urrutira joan beti izango zaitugu gure bihotzean.*



Esker on bertaratzten zareten guztioi.

URTEURRENA

## Angela Martinez Arrese

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 20an, 12:50ean, Bergarako San Pedro parrokiari ospatuko da.



Elizkizunetarako joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

OROIGARRIA

## Marini Elkorobarrutia Perez

*Agurrik ez. Gero arte, maitia.*



Etxekoak.  
Arrasaten, 2009ko irailaren 18an.

OROIGARRIA

## Marini Elkorobarrutia Perez

*Maite zaitugu, tia Marini.*



Iker, Oier, Eider eta Unai.  
Arrasaten, 2009ko irailaren 18an.

OROIGARRIA

## Marini Elkorobarrutia Perez

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 14an.

*Urak dakarrena urak daroa.  
Zuk emandakoa gurekin gelditzen da.*



Zure lagunak.  
Arrasaten, 2009ko irailaren 18an.


ESKER ONA

## Ramon Jausoro Aperribai

Arrasaten hil zen 2009ko irailaren 10ean.

Ramon eta Jose Mari Jausororen omenezko meza, irailaren 27an, 12:50ean, Mendiola auzoko elizan.

*Bihotza bigun, mina sentituz,  
sortu ginduen hazi biziari agur esateko.  
Arro gaude bere izana gugan dagoelako  
eta bera zeruko izarrik distiratsuenen bihurtu delako.*



Gure eskerrik beroenak une hauetan gurekin izan zareten guztioi.

Arrasaten, 2009ko irailaren 18an.

ESKER ONA

## Begoña Plazaola Gallastegi

Zumarragan hil zen 2009ko abuztuaren 20an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko irailaren 18an.

ESKER ONA

## Ramona Lete Arriola

Bergaran hil zen 2009ko irailaren 11n, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2009ko irailaren 18an.

ESKER ONA

## Aitor Arza Zelaia

Oñatin hil zen 2009ko irailaren 6an, 50 urte zituela.

Samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko Ona tabernaren izenean.



Oñatin, 2009ko irailaren 18an.

ESKER ONA

## Lorea Garro Segura

Gasteizen hil zen 2009ko irailaren 8an, 45 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2009ko irailaren 18an.

Babeslea:

  
**Euskalduna**

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net



# Irailak 18-25

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



ARRASATE

### > Emanaldi akustikoak gaur eta bihar Kulturateko aretoan

Gaur, 20:00etan, Saioa bakarlariaren (argazkian) eta Mursegoren (Maite Arroitauregiren proiektua) emanaldia izango da Kulturaten; bihar, zapatua, ordu berean, Anni B. Sweet andaluziarren txanda izango da. Sarrera doan da.

## Musika



ESKORIAZTA

### > Berri Txarrak taldearen kontzertua zapatuan Eskoriatzako kiroldegian

Talde nafarrak atera berri duen diskoa, *Payola*, aurkeztuko du bihar Eskoriatzan. Berri Txarrak-en seigarren lana da. Haiekin batera Deabruak Teilatueta eta Simbiosek joko dute, kiroldegian, 22:30ean. Sarrerak 16 eurotan salgai daude.

## Musika



ARETXABALETA

### > Miren Fernandez emanaldia bihar gauean Aretxabaletan

Miren Fernandez kantariarekin batera, Antxon Sarasua (pianoa), Iñaki Oliden (eskusoinua) eta Amairu Cajaraville (kontrabaxua) izango dira Arkupen. Ordubeteko emanaldi intimista. Bihar, zapatua, 22:00etan. Sarrera, 8 eurotan.

bainika; eskulanak; eta zeramika.

Argibideak Arkupe kultura etxean, 943 08 10 01 telefono zenbakian.

ANTZUOLA

### > Eskulan ikastaroa

Eguenetan, 14:30etik 16:30era, Edurne Uribesalgo irakaslearekin. Urriaren 1etik aurrera.

Izenematea udaletxean edo [kultura@antzuela.net](mailto:kultura@antzuela.net) helbidean.

ARRASATE

### > Pintura ikastaroa Kulturaten, ekainera arte

Amaitu Bengoa izango da irakaslea, lanegunetan 17:00etatik 20:00etara edo zapatuetan 11:00etatik 13:00etara.

Izenematea (132 € irailetik ekainera, hiru ordu astean) irailaren 14tik 18ra, 17:00etatik 19:00etara, Kulturateko pintura gelan (sarrera Seber Altube plazatik). Plaza mugatuak. Haurren gutxieneko adina: 7 urte. Argibideak: 943 25 20 25.

ARRASATE

### > Hainbat ikastaro antolatu ditu Emakume Txokoak

Sendabelarren ikastaroa; ijito dantza; zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa; gorputzaren mugimendu kontzientea lantzeko ikastaroa; arte dekoratiboa; euskal dantza; yoga; pilatesa; euskara; eta emakumeak eta osasuna: menopausia.

Izenematea irailaren 30era arte zabalik. Argibideak Emakume Txokoan, 943 79 41 39 zenbakian.

## Musika

ARRASATE

### > Itxungi irrati librearen aldeko kontzertuak gaur eta bihar

Gaur, egubakoitza, Disorder, Material Rechazado, No hay Solucion eta Plan B taldeek joko dute; bihar, zapatua, Klinsa ta Kaka Arrastua Komunzuluan, Fridays Crew, Jonny Gerriwelt, Aggressive Combat, Last Strenght eta Trullo y sus Zurullos Mecanicos-ek.

Gaztetxean. Gaur, 22:00etan hasita, Bihar, zapatua, 18:00etan hasita.

OÑATI

### > Ez taldearen disko aurkezpena zapatuan

Ez taldeak lehen diskoa aurkeztuko du eta merienda-txoa izango da.

Bihar, zapatua, Oñatiko gaztetxean, 20:00etan.

BERGARA

### > Lena Sinais taldearen kontzertua zapatuan

2008an sortutako laukotea. Bihar, zapatua, Domingo Martínez Irala kalean, 20:00etan. Euria eginez gero, San Martin plazako arkupeetan.

## Antzerkia

ARETXABALETA

### > 'Baso sorgindua' haurrendako ikuskizuna

Patata Tropikal taldearen eskutik.

Domekan, hilaren 20an, Zaria aretoan, 17:00etan. 3 euro.

## Erakusketak

BERGARA

### > Kirol argazkiak Aroztegin

Udalak antolatutako kirol argazki lehiaketako irudirik onenak ikusgai.

Irailaren 18tik 27ra. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta jaiegunetan, goizez bakarrik.

ARETXABALETA

### > Pintura ikastaroko ikasleen erakusketa

Urtean zehar pintura ikastaroan egindako lanen erakusketa jarri dute ikusgai Arkupe kultura etxean.

Aste barruan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. Igandeetan eta jaiegunetan itxita.

## Ikastaroak

ARRASATE

### > Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez

Txindoki dorrean (Bañez Dokorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibide gehiago: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE

### > Eskulan ikastaroa eta orratz lanena irailaren erdialdetik

PROPOSAMENA



OÑATI

### > Artzain txakurren lehiaketako kartelak

Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketak 50. ekitaldia beteko du aurten, eta, besteak beste, Oñatin txapeldun izan eta bizirik dauden artzainei omenaldia egingo diete irailaren 27an. Era berean, erakusketa bitxia antolatu dute egunotarako Oñatin; artzain txakur txapelketak mende erdia betetzen duela-eta, txapelketa iragartzeko kartelen erakusketa egongo da ikusgai kultura etxean hurrengo domekara arte.

Oñatiko kultura etxean, irailaren 27ra arte.

## ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimendu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

### PLANETARIUM BERRIA

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa.

- Irailak 19: 18:00tan gaztelaniaz

**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat.

- Irailak 19: 15:30etan frantsesez

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.

- Irailak 19: 12:00tan eta 17:00etan euskaraz. Irailak 20: 13:00tan gaztelaniaz eta 17:00etan euskaraz

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sistemaren zehar bidaia

- Irailak 19: 13:00tan gaztelaniaz. Irailak 20: 15:30etan frantsesez

**Kartoizko suziaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa

- Irailak 20: 12:00tan euskaraz

**Eboluzioa:** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu

- Irailak 20: 18:00tan gaztelaniaz.

### ETA GAINERA...

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia

Irailak 19: 12:15 eta 13:45

Irailak 20: 12:45 eta 16:00

**Planetarium Txikia:** 4-8 urte bitartekoek ere

izarrak ikus ditzaten.

Irailak 19: 13:15, 16:15 eta 17:45

Irailak 20: 12:15 eta 16:45

**Esperimenduak zuzenean:** Irailak 19an eta 20an, 18:15ean

**Eskulanak haurrentzat:** Irailak 19 eta 20an, 17:00etan

  
ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA  
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA  
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78  
[www.miramon.org](http://www.miramon.org)



BERGARA

> **Pintura eta marrazketa ikastaroa haurrendako**

Bearten lokalean 5-16 urte bitartekoendako pintura eta marrazketa ikastaroak. Asteleheneretan 17:00etatik 19:30era edo zapatuetan 10:00etatik 13:00etara. Izenematea, 653 71 53 82 (Mayra) eta 635 71 32 69 (Maite).

ARETXABALETA-ANTZUOLA

> **Trantze sakratuaren erritmoak, Jaiki elkartearekin**

Urriaren 10ean eta 11n Antzuolan; urriaren 13an, 14an eta 15ean Aretxabaletan. Izenematea eta argibideak: 618 04 67 43 (Paco, Aretxabaleta) eta 660 79 85 15 (Arantza, Antzuola). Plaza mugatuak.

## Ipuinak

BERGARA

> **'Libertad bajo palabra' Carlos Saez kontalariarekin**

Oihulari Klown taldearen ahozko narrazio zirkuituaren barruan. Eguenean, hilaren 24an, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

## Diaporamak

ARETXABALETA

> **'Kilimanjaro y volcán Meru', Juanjo Garbizurekin**

Afrikan egindako bidaiaren kontakizuna irudien bitartez. Eguenean, hilaren 24an, Zaraqia aretoan, 19:30ean. Sarrera, doan.

## Lehiaketak

ARRASATE

> **Santamas irudi lehiaketa**

Santamas irudi lehiaketarako dei egin du. Kartel lehiaketa ez ezik, diseinu orokor baterako deialdia ere bada: egileek kartelaz gain eskuorrirako zein kartel bateraturako (Santamasetako ekintzarik garrantzitsuenak agertuko diren kartela) proposamena egin ahal izango dute. Lehiaketa edozein arrasatearri zuzenduta dago eta urriaren 16a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak BAZen. <http://santamasirudilehiaketa.blogspot.com>.

DEBAGOIENA

> **Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa**

*Zugaz.com*-ek martxan jarri du Zugaz Bideo eta Argazki Lehiaketa eta jasotako argazki zein bideo guztien arteko onenarentzat Eroski hipermerkatuak emandako Wii bat oparitu dute. Argibideak ondoko webgunean: <http://goiena.net/blogak/kantari/>

ANTZUOLA

> **XV. Argazki lehiaketa**

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek parte har dezake. Lanak jasotzeko epea urriaren 30era arte dago zabalik. Argibideak Antzuolako udaletxean, 943 76 62 46 telefonon.



### Anticristo \*\*

Zuzendaria: : Lars Von Trier.  
Aktoreak: Willem Dafoe, Charlotte Gainsbourg. 104 min.

**C**annesen polemika handia sortu zuen *Anticristo*-k; kritika txarrak onak baino askoz gehiago izan baziren, badira filmaren defendatzaile sutsuak ere. Lars Von Trier zinema mugan mugitzen den horietakoa da. Orain urte batzuk Dogma mugimendua bultzatzaile nagusia izan zen: teknika digitalak erabiltzen, kamera sorbaldan eramaten, teknikorik gabeko muntaia lehorrak, istoriotik kanpoko musika ez erabiltzea... izan ziren horietako ezaugarri batzuk. Gero, berak sortutako erregela horietatik ere ihes egin zuen, ezaugarri batzuk mantenduz eta beste batzuk baztertuz. Eta horixe gertatzen da bere azken proposamenarekin: kamera digitala asko mugitzen da aktore mugimendu eta keinuak harrapatu nahian, planoen mozketek eta erabilitako mugimendu latzek tentsioa ematen diote istorioari, eta giro berezia lortu.

Zuzendari danimarkarrak kontrastearekin jokatu du. Filmaren sarrera zuri-beltzean, kamera geldoan, denbora luzatuaz, eta Haendelen musika erabiliak. Gero, filma askoz klaustrofobiko eta estuago bihurtzen da: baso mehatxagarri baten kokatzen da, mugan dauden bi pertsonaiek beldurra eta fantasiako osagaiak nahasten dituen naturagatik inguratua. Filmaren hasiera nahiko itxuratua bada, hortik aurrera *Anticristo*-k badu ondo dauden eszenak, filmaren erdialdeak tentsioa eta indarra du, baina ailegatzen da momentu bat istorioa geratu egiten dela, ez du bilakaera dramatikorik, zabaldu dituen bideak ez dira argitzen, bukaera nahiko bitxira iritsi arte. Berba egiten duten animaliak, indarkeriaz beteriko irudiak eta alegiaz ezaugarriak agertzen dira, eta azkenean ez dakit ondo zein nahastu eta galdu den, ni ikusle bezala edo Lars Von Trier zuzendari moduan. Irudi indartsuak ikusten ditut, baina azkenean ez dut ondo ulertzen zuzendariak zer kontaktu nahi izan duen.

Antonio Zabala

# Zinema

**ARRASATE**

**AMAIA ANTZOKIA**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 19:30.  
Up  
Zapatua: 17:00.

**ÓNATI**

**KULTUR ETXEA**

**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
Egubakoitz: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

**Malditos bastardos**  
16:55, 19:45, 22:35.  
**La noche de su vida**  
17:30, 20:00, 22:30.  
**Resacón en Las Vegas**  
17:00, 19:45, 22:30.  
**San Valentín sangriento**  
17:30, 20:00, 22:30.  
Up  
16:55, 18:45, 22:20, 22:30.  
**Enemigos públicos**  
17:00, 19:45, 22:30.  
**District 9**  
17:30, 20:00, 22:30.  
Irailaren 18tik 24ra.

**FLORIDA-GURIDI**

**Qué les pasa a los hombres**  
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzetik domekara).  
**Mapa de los sonidos de Tokio**  
18:00, 20:15, 22:30.

**Tres días con la familia**

20:00 (egubakoitzetik domekara).  
**Gordos**  
17:30, 20:00, 22:30 (egubakoitzetik domekara).  
**La clienta**  
17:30, 22:30 (egubakoitzetik domekara).  
**Frozen river**  
18:00, 20:15, 22:30.  
**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
19:15, 22:15.  
**RH +**  
17:30 (egubakoitzetik domekara).  
**Flores negras**  
18:00, 20:15, 22:30.

**Irailaren 18tik 24ra.**

**VELMO-GORBEIA**

**Mapa de los sonidos de Tokio**  
22:30, 00:30.  
**Malditos bastardos**  
15:30 eta 17:00 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:00, 21:30, 23:00, 00:30.  
**Up**  
(3-D emanaldiak)  
16:00 (zapatuan eta domekan) eta 18:00.  
Eguaztenean izan ezik.  
**Up**  
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30.  
**San Valentín sangriento**  
(3-D emanaldiak)  
20:00, 22:00, 00:00.  
Eguaztenean izan ezik.  
**Ice Age 3: el origen de los dinosaurios**  
15:40 (zapatuan eta domekan), 17:35.  
**Harry Potter y el misterio del príncipe**  
16:50 (zapatuan eta domekan).

**Resacón en Las Vegas**

18:20, 20:20, 22:20, 00:20.  
**G.I. Joe**  
16:05 (zapatuan eta domekan).  
**The age of stupid**  
19:00 (martitzenean, jatorrizko bertsioan).

**Gordos**

15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.  
**Los hombres que no amaban a las mujeres**  
19:30, 22:05, 00:40.  
**Pequeños invasores**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:05.  
**American playboy**  
19:50, 21:50, 23:50.

**Qué les pasa a los hombres**

16:45 (zapatuan eta domekan), 19:15, 21:45, 00:15.  
**Expediente 39**  
19:55, 22:00, 00:05.  
**La proposición**  
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15.  
Martitzenean izan ezik.

**Enemigos públicos**

15:30 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:30, 23:00.  
**Gamer**  
20:35, 22:35, 00:35.  
**12 trampas**  
15:20, 22:15, 00:15.  
**School Rock Band**  
16:20 (zapatuan eta domekan), 18:25.

**District 9**

16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.  
Irailaren 18tik 24ra.  
Egubakoitzetik domekara.  
Gauerdiko emanaldiak zapatuan.

**ÁBACO BOULEVARD**

**Shorts: la piedra mágica**  
17:00.  
**Malditos bastardos**  
Egubakoitz eta zapatua:  
16:00, 17:00, 19:00, 20:00, 22:00, 23:00  
Zapatutik eguenera:  
15:50, 16:30, 18:50, 19:30, 22:00, 22:30.

**San Valentín sangriento**

16:10, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.  
**Up**  
16:20, 18:20, 20:20.  
**Resacón en Las Vegas**  
16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:30.  
**Gamer**  
20:00, 22:20, 00:30.  
**Qué les pasa a los hombres**  
16:30, 19:30, 22:15, 00:45.

**Año uno**

16:15, 18:20, 20:20, 22:30.  
**Agallas**  
22:20.  
**School Rock Band**  
16:00, 18:10, 20:25, 22:40.  
**Enemigos públicos**  
19:00, 22:00, 00:45.  
**District 9**  
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.  
**Expediente 39**  
16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.  
**Hazme reir**  
17:00.  
Irailaren 18tik 24ra.



**Millenium: Los hombres que no amaban a las mujeres**

Zuzendaria: Niels Arden Oplev. Suedia-Danimarka, 2009. 150 minutu.  
Enpresari aberats batek kazetari bati aginduko dio duela 40 urte desagertu zen ilobarekin zer gertatu zen ikertzeko. Stieg Larsson kazetari eta idazle suediarren trilogia lortutako arrakasta sekulakoa izan da. Orain, pantaila handira iritsi da trilogiaren lehen zatia.

Eskasa:\* Balekoa:\*\* Ona:\*\*\* Oso ona:\*\*\*\* Bikaina:\*\*\*\*\*

**Transformers 2**

AEB, 2009. Zuzendaria: Michael Bay.  
Bi urte pasatu dira Sam Witwicket unibertsoa salbatu zuenetik. Hala ere, Samek beste gazteek dituzten arazo berak ditu. Ezustean, abentura berriak izango ditu. Shia LaBeouf, Megan Fox eta John Turturro aktoreekin.

**San Valentín sangriento**

AEB, 2009. Zuzendaria: Patrick Lussier.  
Jaioterrira itzuli da Tom, San Valentín egun batez gertaturiko sarraskiaren 10. urteurrenean. 1981ean estreinatutako filmaren remake hau hiru dimentsiotan ikusleko aukera dago Euskal Herriko zenbait aretotan. Jensen Ackles eta Jaime King aktoreak dira protagonista nagusiak.

**District 9**

Zeelanda Berria-Hego Afrika, 2009. Zuzendaria: Neill Bloomkamp.  
Estralurtarren ontzi erraldoi batean Lur planetara helduko dira, Hegoafrikako Johannesburgo hirira, baina errefuxiatu gisa. Estralurtarrak kontzentrazio esparru moduko batean sartuko dituzte eta apart-heid erregimena ezarriko diete.

**Gordos**

Espania, 2009. Zuzendaria: Daniel Sanchez Arevalo.  
Irautearen inguruko komedia koral bat da Daniel Sanchez Arevaloren (*Azuloscurocasinegro*) azken filma. Gizontasun arazoekin obsesionatuta dauden lagun batzuk dira protagonistak. Antonio de la Torre, Raul Arevalo eta Roberto Enriquez aktoreekin.

**Ponyo en el acantilado**

Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.  
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrinaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

**Mishima: una vida en cuatro capítulos**

AEB, 1985. Zuzendaria: Paul Schrader.  
Paul Schrader-ek 1985eko Canneseko Jaialdian aurkeztutako filmaren bertsio berritua eta definitzio altuan iritsi da zinema aretora. Yukio Mishima idazle japoniarren biografia kontatzen du. Mishimaren azken egunetik abiatzen da, 1970eko azaroaren 25etik, haren haurtzaroraino jauzi eginez.

**nire aukera**



Eneko Barberena  
Arrasateko Txatxilipurdi elkarte zuzendaria

### Zapatuan, Berri Txarrak ikustera

Orain dela bi urte hasi zuten Eneko Barberena Arrasatearra Txatxilipurdi aisialdi elkarte lanean. 26 urte ditu eta Zuzenbide ikasketak egin zituen Donostian. Harekin batera 40 langile eta beste 20 boluntario dihardute gaztetxoendako ekitaldiak aurrera ateratzen. Lokal aldaketa izango da ikasturte berriko nobedade nagusietako bat; Udaltzaingorearen eraikin berrian, Nafarroa etorbidean, izango dute egoitza berria Txatxilikoek.

Bien bitartean, besteak beste, ate irekien jardunaldiak eskainiko dituzte Usaetxe, Okendo eta Santa Marinako ludoteketan, irailaren 25era arte.

**Zein plan astebururako?**

Ez dakit, aukera ugari ditugulako esku artean. Ziurra den gauza bakarretakoa zera da: zapatuan Berri Txarrak taldeak Eskoriatzan emango duen kontzertura joango gara, sarrera erosita daukagu eta... Egubakoitz gauean, beharbada, Egiako Porrontxo jaietara joango gara; hiru urtez bizi izan nintzen eta gustuko ditut hango jaiak. Eta, bestalde, zapatuan Garaion *Sua* filmaren grabaziorako estrak behar dituzte eta agian hurbilduko gara. Ikusi behar zertan geratzen den asteburua, lo ere egin beharra dago eta.

**Zinemaldia ere hasten da. Joateko ohiturarik bai?**

Bai, gustatzen zait. Baina asteburuan jende gehiegi ibiltzen da, eta, astean zehar joateko aukera dagoenez, orduan nahiago.

**Kirolzalea zara?**

Bai, domeka arratsaldeetan koadrilakook areto futboleko jokatzeko ohitura daukagu, Kanpan, Santa Barbaran.

**Zer ari zara irakurtzen?**

Bizpahiru liburur irakurtzen nabil orain, Graham Swift idazlearen *Mañana* eta Unai Elorriagaren azkena, *Londres kartoizkoa da*, tartean. Azken hori aste honetan bertan erosi berri dut.

Edu Mendibil



# Bilduma artean bilduta

**GAI ASKO** Denetariko bildumak izaten dira aukeran: metxeroak, ipuinak, trena osatzeko piezak, joskintzakoak...

**MERKE** Lehenengo zenbakiak ohi baino merkeagoak izanik errazago saltzen diren arren, askok ez dute bilduma jarraitzen

**HARPIDETZA** Dendetan lehen aleek toki handia hartu ostean, bilduma batzuek harpidetza egiteko aukera ematen dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Ikasturte hasieran, eskola liburu-ekin batera liburu-denda askotan bildumetako lehen aleak eskuratzeko aukera izaten da.

Bergarako Zangitu estankoa, esaterako, horrelakoz josita ikusi dugu. "Denetarikoak ekartzen dituzte: metxeroak, ipuinak, trena osatzeko piezak, joskintzakoak... Azken horiek dira, behar bada, gehien saltzen direnak; metxeroek ere estimazioa izan dute, Zippo etxekoak izanik lehena merkea zelako; eta umeendako bildumak ere saltzen dira", esan digu estankoko Amaia Alberdik.

Antzuolako Itzar liburu-dendara ez dute bilduma askorik eroaten. Liburu-dendako Kontxi Laskurainen esanetan, "estimazio handirik ez dute izaten".

Amaia Alberdik dio salmentak jaitsi egin direla: "Lehenengo aleak merkeagoak izaten dira, ikusgarriagoak, kartoi handiekin. Horiek, behar bada, saldu egiten dira, baina gerokoak ez. Gainera, bilduma askoren gaiak urte-tik urtera errepikatu egiten dira".



KARTOIAK Amaia Alberdi bildumen lehen aleen kartoi artean, sekulako kartoiak ipintzen dizkiete-eta.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**AUKERA BAI, ESTIMAZIO TXIKIA**  
Kontxi Laskurainek ere hori sumatzen du, lehenengo aleak baino ez direla saltzen: "Nik bilduma bakoitzeko lehenengo hiru edo lau zenbakiak ekartzen ditut, baina ikusiz gero inork ez duela interesik, banatzaileari esaten diot besterik ez ekartzeko".

Bildumek ez ei dute bezero finikorik. "Norbaitek bilduma osoa egin nahi badu, ni arduratzen naiz ale bat bera ere falta ez dakion. Baina bilduma batzuek harpidetzeko aukera ematen dute, abantailak eskainita, gainera. Horrek haserre jartzen nau. Gure dendak erakusleihatat hartu, leku mordoia kendu, merkeak saldu eta hortik aurrerakoak euren kontu", dio Amaia Alberdik.

Bildumak ez ezik, aldizkariak ere opariak ekartzen dituzte. "Baina aldizkariak salmenta ere jaitsi egin da, Interneten eta telebista saioen eraginez".

Ale bat, beste bat eta hurrengo guztiak pilatu eta bilduma osatzen dutenak gutxi izango dira, baina aukerarik ez da falta.

## ahobero

**"Nire haserrealdiak motzak dira, segituan adiskidetzen naiz"**

Jose Luis Korta > Kaiku arraun elkarteko entrenatzailea

Hori galdetu behar bere haserrealdiak eta oihuak jasan behar izan dituzten arraunlariei. Hobe, bai, Korta adiskide izan etsai baino, badaezpada ere. Dena dela, ez ote dira noizbehinkako haserrealdiak horiek izango Kaikuko arrantzaleak motibatzen eta Kontxako bandera irabazteko sekretua?

## iturri onetik

**Garik disko berria aurkeztuko du Elgetako Espaloian abenduaren 12an**

*Hamasei lore* diskoa aurkeztera etorriko da Gari abenduaren 12an Elgetako Espaloia Kafe Antzokira. Kanturik onenak batuko ditu disko berriak: Hertzainak-en garaiko hiru abesti eta beste 13 bere bakar-kako ibilbidekoak. Baita Patti Smithekin grabatutako abestia ere. *Hamasei lore* hil honetan kalean izango da eta abenduan zuzenekoak eskainiko ditu. Espaloirako sarrerak aurrez salduko dituzte.

## piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

### Angelen epistola

Zutabe bat edo epistola... ik erabaki", amaitzen du bere izkribua Angel Loidi aretxabaletarrak. Arkatzez eta letra dotorez idatzi dit, ikasturte sarreran egin nuen gonbidapenari erantzunez. Luzexka da lauki honetarako, baina osorik eta bere horretan kopiatu dut blogean, zinez baita polita.

Modu deigarrian uztartzen ditu euskara jatorra eta idazkera modernista, umorea eta salaketa. Esaterako, jubilatutako zirenean *caducado* txarteltxo jarri ei zieten eta orain *osoleto*. Ñoñostiarrak ere ez ditu ahaztu. Baina Angeli mina eman dio Mugarriten haltzak eta zurrak kendu izanak. Hori baimendu duenaren bihotzaz galdetzen du, ba ote duen bihotzik alegia. Izan ere, dio zorrotz, "zuhaitzak bota dituzte errotonda jator bat egiteko".

## ai, ene!



**Aterkiari besapean eusteko asmakizuna**

Nor ez da aspertu euri egunetan aterkia, poltsa... denak batera ezin eutsita ibiltzeaz? Hara asmakizuna aterkiari besapean eusteko.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)

# UDESIGN-SHOP.COM

## RENOVE PLANA

**%25eko beherapena**

1. mailako markako altzariak orain merkeago.

Poltsiko guztietarako prezioak

- \* Egongelak
- \* Logelak
- \* Hall-ak
- \* Lanparak

Juan Carlos Guerra Plaza \* Arrasate

